

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2015-10-02
EGUBAKOITZA
654. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

"Baliotsuena jendearen harrera da"

Asier Altuna 'Kixi' | Zinema zuzendaria | 29



ULMA ere siriar errefuxiatuei laguntzen

Dirua batzeko kanpaina abiarazi du fundazioak | 2

Umearen edoskitzaroa eta hazkuntza lantzen, Oñatin | 9



Urriaren 5ean zabalduko dute Arrasate pasealekuko bide bat | 12



Oñatiko eta Aretxabaletako Sanmigelak, argazkitan | 20 eta 15

Urteko egunik dotoreena Arrasaten



Eskapularioa zintzilik eta elegante asko jantzita daudenak eskuzabal hartuko ditu gaur, egubakoitza, Maritxu Kajoik; 20:30erako iragarri du miraria txikiteroen zaindariak | 11

SINADURAK

- Agur eta ohore, Katalunia | 5
AITZOL ITURBE
- 5 | Apokalipsia bertan
TXOMIN MADINA
- %6 gehiago egin behar | 12
AITOR OROBENGOA
- 15 | Udazken koloriak
IÑAKI IDIGORAS
- Aulkian pentsakor? | 18
SAIDA GARITANO
- 22 | Emakumeak albiste
ION LIZARAZU
- 'Amama' Zinemaldian | 36
AGURNE BARRUSO



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:
Astiazaran arkitektoak ibarrean utzitako uzta
Felix Garitano abadearekin berbetan

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

BERDINTASUNERAKO PAUSOAK DEBAGOIENEAN

Emakumeen IV. Mundu Martxa Bergaran barrena ibiliko da, parekidetasunaren aldarri | 2

Emakumeen Mundu Martxaren kartelaren irudia.

EMAKUMEEN MUNDU MARTXA

VITORIA - GASTEIZ
Etor zaitez!

Parkeak, sehaskak, ume-kotxeak...
Merkatuko marka nagusien bermearekin.

UMETXOAREN HAMABOSTALDIA

Urriaren 1etik 21era.

%15 eko
deskontua lehen marketan.

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:30 / 16:30-20:00
Zapatuetan: 10:00-13:30 (zapatu arratsaldeetan itxita)

www.colchoneriaelejalde.com



Kupoi hau aurkeztuz gero gure edozein dandatan, opari bat jasoko duzu (Gubieneko erosketa, 150 euro).

ZURE UMEAK BEHAR DUEN GUZTIA

Domingo Beltran 33 Tel.: 945 242 297 Benito Ginea 1 Tel.: 945 287 667 Panama 7 Tel.: 945 267 314 Florida 43 Tel.: 945 279 085 Donostia 64 (Lakua) Tel.: 945 179 912

Ane Egino | Martxanterak talde feminista

"Patriarkatuak eskura dituen arma eta tresna guztiak jarri ditu martxan"

Gaur, egubakoitza, Emakumeen Mundu Martxak Debagoiena bisitatuko du, Bergaran ibilaldia, ekitaldia, bazkaria eta beste eginda

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Gure gorputzak, gure territorioak. Martxan jarraituko dugu denok aske izan arte! lelopean Martxoaren 8an abiatu zen Kurdistandik Emakumeen Mundu Martxako Europako karabana. Asteon Euskal Herrira sartu da, eta gaur (egubakoitza) Bergarara (egitaraua taulan). Bost urtetik behin gauzaten den nazioarteko ekimena abiapuntu, feminismoaren erretrotua egin dute Bergarako Martxanterak taldeko kideek.

Zein da Debagoieneko mugimendu feministaren egoera?

Bazegoen gogoia eta kezka mugimendu feministari dagokionez Bergaran; baina, batetik, ez genuen elkar ezagutzen, eta, bestetik, ez zegoen elkargunerik. Emakumeen Mundu Martxa aldarrikapen zein emakume ezberdin gehien batzen dituen plataforma da; malgua da, herri bakoitzean dagoen mugimenduei heltzeko. Bestalde, Oñatin eta Arrasaten historikoki mugimendu feministak izan du garrantzia. Egun, Oñatin, bi talde daude. Baina orain arte ez da herrietako mugimendu eta norbanakoen elkarlanik egon. Iaz urrian Martxanterak sortu zen Bergaran. Eta hila-bete honetan lehentasuna eman diogu martxa dinamizatzeari. Emakumeen Mundu Martxan, talde baten parte zirenak zein norbanako modura gerturatu diren emakumeak batu gara, adin, jatorri eta esperientzia askotarikoak. **Gaur urrats moreak izango dira Debagoienean. Baina bihar, zer?**

Oso positiboa izan da Debagoieneko feministak ezagutzea eta elkarlanean aritzea. Honen ostean, elkarlanak fruitu asko eman ditza-keela ikusi dugu. Elkarlanean gauzak eraikitzeke momentu egokia izan daitekeela uste dugu; izan ere, herri desberdinetako feministon gogoia, esperientziak eta baliabideak elkartuz, saretxo bat osatu dugu. Hala ere, martxa igaro ostean, aurrera begirako pausoak guztion artean zehaztu beharko genituzke. **Bizitza pribatuko zeregin nagusiak andreak betetzen segitzen dute,**



Bergarako Martxanterak talde feministako kideak, eguaztenez. | ANE EGINO

BERGARAN ZER

13:00 Martxaren iritsiera: Ibilbidea: Amillaga-Oxirondo- Herrilagunak -Ibargarai- Espoioia-San Pedro- Barrenkalea-San Martin Agirre plaza.

13:45 Ekitaldia plazan

14:30 Bazkaria

15:30 Dantzak eta antzezlanak.

18:00 Women in black performancea

eta bizitza publikoan, gizonek. Egin dira hori iraultzeko saiakerak; eraginkorrak dira, baina?

Ekintza puntualek badute eragina, baina gaia konplexua da. Egitura oso batek sostengatzen du patriarkatua. Errealitateari aurre egiteko orduan beharrezkoa da ikuspegi zabalagoa. Egoeraren jatorrian emakumeen eskubideak zapaltzen, lana isilarazten eta gorputza zein sexualitatea kontrolatzen dituen sistema oso bat dagoela onartzen ez dugun bitartean, ezingo dugu benetan eraginkorra izango den aurrerapausorik eman. Norabide horretan lan egiten dugu mugimendu feministek. Zentzu horretan, oso positiboki baloratzen ditugu Emakumeen Mundu Martxa bezalako ekimenak, gizartean oihartzun handia dute eta. Martxaren aldarrikapenetako bat bizitzaren iraunkortasuna da. Bizitza erdigunean

kokatzearen aldeko apustua egiten du, ikusezinak diren lanak, bizitzari eusten diotenak eta sistema kapitalista sostengatzen dutenak ikusgarri eginda.

Ezin aipatzeko utzi indarkeria. Benetan, bagabiltza aurrera egiten?

Emakumeen Mundu Martxak ondo ikusarazi duen moduan, sistema globalizatu eta kapitalista honen baitan mota askotako indarkeriak elkarlotzen dira: indarkeria matxista, arrazakeria, homofobia... Indarkeria beti egon da gizartean, eta, zoritxarrez, gaur egun ere jasaten dugu; indarkeria hori azaleratzeko era da aldatu dena. Eta hori iruditzen zaigu arriskuetsuena, zailagoa egiten baitzaigu berai identifikatzea. Patriarkatuak eskura dituen tresna edo arma guztiak jarri ditu martxan; hala, gure egunerokoan etengabe egiten dugu topo zapalkuntzekin, benetan zapalkuntza diren kontzientzia izan gabe. Gazte zein heldu gizarte honen parte diren heinean, estereotipoz eta mitoz inguratuta bizi dira, horiek barneratu eta erreproduzitzera iritsiz. Gazteen tendentzia kezagarria bada ere, gizarte osoak pairatzen ditu patriarkatuaren ondorioak. Bergarako zenbait ikasketetan jabetu dira bizi dugun egoerari aurre egiteko beharraz, eta hezikidetzarekin loturiko proiektuak jarri dituzte martxan. Denon esku dago gaiari behar bezala heltzea, baina kontuan izan behar dugu asko dagoela egiteko eta denbora ez dagoela gure alde.

ULMA Taldeak siriar errefuxiatuen krisian lagunduko du

ULMA Fundazioaren bitartez dirua batzeko kanpaina abiarazi du, ACNUR-i emateko

KOMUNITATEA GOIENA | M. AGIRREBEITIA
ULMA FUNDAZIOA | OÑATI

ULMA Taldeak, bere Fundazioaren bitartez, bere bazkide eta langileei dei egiten die ACNUR-ekin lankidetzan arituta siriar errefuxiatuei laguntzeko. Laguntzeko, zehazki, SMS bat bidali beharko dute 38014 zenbakira, mezuan *ULMA* hitza idatzita, eta, horrela, 6 euro emango dituzte laguntza gisa.

Kanpaina horri ekiteko, ULMA Fundazioak lehenengo 1.500 euroak jarri ditu, laguntzeko mekanika abian jarrita, nahi duenak erraz eta sinpleki laguntzea eduki dezan.

Krisi humanitarioa

Irail honetatik urte bukaerara arte, ULMA Fundazioak Taldeko bazkide eta langileen elkartasuna sustatu nahi du, bai eta ekimenean laguntzeaz interesatuta dagoen edonorena ere. Aurretik ere, ACNUR-ekin elkarlanean aritu izan da ULMA, bost urte baino gutxiagoko haurren malnutrizioa ekiditeko fondo bilketan. Hala, maiatzean eta ekainean, kolektiboaren erantzunari esker, 200 haur baino gehiagoren malnutrizioa ekiditen lagundu zen, haiei barra energetikoak jatea ahalbidetuta.

Gaur egun milioika siriarrek behar dute laguntza. Siriar errefuxiatuen larrialdia gure garai-ko krisi humanitario handie-

netako bat da, eta familia horien premiak areagotzen jarraitzen dute.

Jada lau milioi errefuxiatu baino gehiago eragin dituen gatazka izugarri batetik ihes ari diren gizonak, emakumeak, haurrak, zaharrak eta gaixoak dira.

Herrialde mugakideek ezin dute gehiago, milaka familia bizirik irauten saiatzen dira oso baldintza zailetan, eta errefuxiatu askok beren bizitza arriskuan jartzen dute, Europa heldu nahian, heriotzatik ihesean.

SMSa bidali edo bazkide izan

ACNUR Iheslarietako Nazio Batuen Goi Komisarioak gerra errefuxiatuak babestu eta laguntzen ditu munduan. 1950ean sortu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak, eta 1951n hasi lanean, II. Mundu Gerra amaitu ondoren milioi bat errefuxiatu europarri lagunduta.

ULMA Fundazioak SMS bidea ireki du, laguntzeko modurik azkarrena eta errazena delakoan, baina nahi duenak dirua ere sar dezake ACNUR-en kontuan (ES42 3035 0081 36 0810045602), kontzeptuan *ULMA* adierazita.

Beste aukera bat ACNUR-eko bazkide egitea ere izan daiteke, horretarako www.acnur.es ACNUR-en webgunera joz.

Arrasateko anbulatorioan odola ateratzeko txanda hartu beharko da urriaren 13tik aurrera

Odol ateratzeen bueltan Arrasateko anbulatorioan sortzen diren ilarak direla-eta, odol ateratzeen ordena modu eraginkorragoan kudeatzeko, txanda sistema ezartzea erabaki dute. Hain justu ere, urriaren 13tik (martitzena) aurrera hasi beharko da txanda hartzen horretarako. Hala, odola aterako da emandako txanda horren arabera eta txandarik ezean, gaixo horri ez diote arretarik emango. Txandarik izan ezean, honako telefonora deituta har daiteke: 943 03 52 50.

EROSKI
ARRASATE



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



Urriak
3
larunbata

% 20 jogurtetan eta esne-postretan
-eko DESKONTUA*

Supermerkatuetan 8€-tik gorako erosketak eta hipermerkatuetan 10€-tik gorakoak egiteagatik jogurtetan eta esne-postretan.

EROSKI
*Zure txartelean itzuliko dizugu, hurrengo erosketan erabiltzeko.



Instituzioetako ordezkariak Deskargako lanetan. | AMAIA TXINTXURRETA

2018rako bukatuko dute Antzuola-Bergara autobidea

Martitzenean Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren lanak bisitatzen, herri bietako alkateekin batera

A.T./M.T. | DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako diputatu Aintzane Oiarbidek adierazi duenez, Beasain-Bergara autobideko azken tarteko lanak, Antzuola eta Bergara lotzen dituenak, hain zuzen, 2018an bukatzea espero dute.

Martitzenean izan ziren Oiarbide, Errepideetako zuzendari Silvia Perez eta Beñardo Kortabarría eta Juanje Alberdi, Antzuola eta Bergarako alkateak, autobideko lanak bisitatzen.

Duela urtebete, aipatutako zati-ko lanetan lur erauzketa ia bukatuta zegoela, haustura orokorra

gertatu zen luizi baten ondorioz. Hori dela eta, abuztuan hasi zituzten aurreikusitako konponketa horiek egiteko urgentziazko lanak, eta sei hilabete barru amaitzea espero dute.

Oiarbidek eta Antzuolako eta Bergarako alkateek adierazi dute autobideko lanak lehenbailehen bukatzea dela euren nahia.

Gatzagako gatzak ibarreko jatetxeetan urritik aurrera

Debagoieneko Mankomunitatearen gastronomia jardunaldietan erabiliko dute

U.M. | LEINTZ GATZAGA

"Ikusita gastronomikoki gatzak oso produktu singularra dela, eta ez dela edozein bailaratan aurkitu ahal, gurean egonda, eskatu digute Leintz Gatzagako gatzak jardunaldi gastronomikoetan presente egotea: bertan eskainiko diren menu berezietan eta ekintza berezi guztietan gure gatzak presente egotea".

Eskatu eta eman. Leintz Gatzagako Udalak baiezkota eman dio Debagoieneko Mankomunitatearen proposamenari, eta, Gatz Museoko arduradun Aitor Larrañagak esplikaturako moduan, urritik abendura bitarteko jardunaldi gastronomikoetan Leintz Gatzagako gatzak izango dute jankideek Debagoieneko jatetxeetako mahaietan. "Jatetxeetan gatzontzi batzuk ipiniko ditugu, gatz hori jaten ari garen bitartean erabili eta dastatu ahal izateko, eta bestelako ekintzetan ere bai", zehaztu du Larrañagak. "Gatz hori nabaritzen da janaria

plateran dagoela, gainera botatzen badiogu, orduan bai apreziatzen da, txuleta bati, arrain bati, entsalada bati... hortaz, horrela erabiliko da. Sukaldariak mahaira prestatuta ateratzen duten plater horretara ere bota ahalko dio sukaldariak mahaietan bertan, aurkeztu aurretik", esan du Gatz Museoko arduradunak.

Gatzak merkatutzekoan

Hori da epe motzera begira Debagoieneko gatzari emango dioten irteera; urteotan orogarri eran saltzen dihardute 30 gramoko pototan, Gatz Museoa eta udalerriko Labidea saltokian.

Epe ertain-luzera begira, berriz, gatzak leku gehiagotan merkatutzeko pausoak ematen dabil Gatzagako Udala. Adibidez, diseinu berriarekin 70 gramo gatz izango dituzten potok aterata eta "diseinu horrekin berarekin" aterako litzuzke beste formatu batzuk: "Gatz pote handiagoak".

Arkeologia herritarren eskura Murugainen



Eguaztenean egin zuten aurkezpen prentsaurrekoa. | JOSU BILBAO

M.T. | DEBAGOIENA

Murugaingo indusketetan parte hartzeko gonbita egin diete herritarrei Aramaioko eta Arrasateko udalek.

Urriaren 5etik 23ra bitartean egingo dira indusketa lanak Murugaingo lau gunetan, eta 17rako eta 24rako deitu dute auzolana. Hilaren 25ean, berriz, bisita gidatua egingo dute.

Laugarren urtez egingo dute auzolan hori aipatutako herrixkan. Bertan, Burdin Aroko eta 36ko gerrako aztarnen bila ari-tuko dira boluntarioak, Ondare Babesa enpresako arkeologoen

laguntzarekin. Talde horretako arkeologo Etor Telleriak adierazi duenez, 2011n proiektua martxan jarri zenez geroztik, "emaitzek erakutsi dute Murugainek potentzial arkeologiko oso mami-tua duela eta merezi duela bertan lan egiteak".

Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak hauxe adierazi du: "Gune hori gure ondarea eta gure kulturaren parte da".

Bestalde, Aramaioko alkate Lierni Altunak bi udalen arteko elkarlana nabarmendu du, eta lankidetzara hori "positiboa eta aberasgarria" dela esan du.

Arizmendiarrietari buruzko dokumentala grabatzen aritu da Gaizka Urresti zinegilea Arrasaten

I.D./M.T. | ARRASATE

Kooperatibismoaren aita On Jose Maria Arizmendiarrietari apaiz markinarrari buruzko dokumentala filmatzen dihardu Gaizka Urresti zinegilea bilbotarrak, *Arizmendiarrietari: el apóstol de la cooperación* izena izango duena. Izan ere, haren jaiotzaren mendeurren ospatzen da aurten.

Lan horren baitan, Arrasaten hainbat elkarrizketa egin ditu Urrestik joan den astean zehar. Orain, berriz, Erroman dago. Aurrerago ere itzuliko da Debagoienara elkarrizketa

gehiago egin eta Arizmendiarrietarekin lotura duten lekuen irudiak grabatzera.

Udaberriko ikusgai

Urte bukaerarako elkarrizketa guztiak grabatuta izatea da zuzendariaren asmoa, Angel Gartzaren esanetan, eta datoren udaberri alderako ikusgai izatea espero du. Gartzak markinarraren kanonizazioaren alde dihardu lanean, eta adierazi du proiektua lagungarria dela, ikusgarritasuna ematen baitio kausari eta Arizmendiarrietaren figurari berari.



Grabaketaren une bat. | IDOIA DAVILA

'By-pass'-a jarri dute AP-1ean, Eskoriatzan, Eibarrerako noranzkoan

Martxoan izandako luiziaren ondorioz, lur-erazketarako ezpona egonkortzeko lanetan dihardute. Ondorioz, Gasteizerako noranzkoan galtzada guztiz itxi dute, eta kontrako erreia egokitu dute bi zentzutan doazen ibilgailuak bertatik igaro ahal izateko. Martitzenean jarri zuten *by-pass*-a, eta urriaren 11ko (domeka) 20:00ak arte egongo da bertan. Ordu horretan, seinalizazio berezia kenduko dute eta zirkulazioa baldintza normaletara itzuliko da.

Diputazioaren aurrekontuak azalduko dituzte astelehenean

Gipuzkoako Foru Aldundiak bilera bat antolatu du urriaren 5erako, Debagoieneko partaidetzako aurrekontuen gainean azalpenak emateko. 18:30ean izango da, Arrasateko Garapen Agentzian, eta Imanol Lasa foru diputatua bertan izango da. Debagoienean ez ezik, beste bederatzi eskualdetan ere jarri zituzten martxan partaidetza aurrekontuak. Orain, gobernu berriak proiektuaren metodologian aldaketa batzuk egitea erabaki du, eta horien berri emango dute.



Gonbidatuak Errekalde jauregiaren lorategian.



Mozkorra Parregarri taularatu zuten.



Osteko luntxa. | ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

JUANJE ALBERDI
BERGARAKO ALKATEA

"Jakin-mina eta irrika sortzeko helburua ere badu museoak"

Juanje Alberdi Bergarako alkatea museoaren balioa azpimarratu du:

Oso museo betea da...

Oso betea da bai, eta kontuan hartu behar da hemen bakarrik azalduko direla 100 bat pieza eta atzean ditugula beste 1.000 pieza baino gehiago. Inportanteena da zein den proiektuaren zentzua. Bere egunean hemen zegoen laborategiak ze garrantzi zeukan eta hori erakustea. Eta ikustea lehen ere gauza inportanteak egiten zirela. Bergarako Seminarioa etorri ziren Alemaniako, Frantziako eta Suediako irakasleak eskolak ematera. Eta hemen aurkitu zituzten baliabideak ziren konparagarriak Europen edozein lekutan aurki zezaketen besteak. Irakurri dut Humboldt hona etorri zenean esan zuela kimikako laborategia zela Stockholmekoa baino hobea.

Hasieran ideia zen museoak Seminarioan jartzea; non du etorkizuna?

Apustua egiten ari gara hemen edukitzeko. Badaude gela batzuk birmoldatzeko, erabilgarriak izan zitezkeenak. Pentsatzen dugu dela leku nahiko egokia eta hemen dagoen jauregia oso aberatsa eta oso inportante eta interesgarria da. Eta honekin, bultzatu eta indartu egingo dugu.

Beraz, orain jendea etortzera animatuko dugu, ezta?

Jakina. Nik uste dut oso polita eta oso erakargarria dela. Ikusi-entzuteko gauza piloa daude, gauzak ukitzeko, jakiteko... eta, azkenean, jakin-mina sortzeko eta beste irrika bat sortzeko, orain dela 250 urte egiten zirenak, orain, zergatik ez?

Debagoienak badu beste altxor bat: Bergarako Laboratorium museoa

200 gonbidatu izan ziren inaugurazio ekitaldian, joan den egubakoitzean

UBANE MADERA | BERGARA

"Hito historikoa, ametsa egia bihurtuta, zoragarria"... Halako berbak izan zituzten ahotan Laboratorium museoaren inaugurazioan izan ziren gonbidatuak askok. Eta hain justu, asko izan ziren gonbidatuak Errekalde jauregiaren altxorren inaugurazioa, 200 bat lagun. Herrikoak eta kanpokoak. Eta horietako asko, jakina, erakundeetako ordezkariak. Bisita gidatua, inaugurazio ekitaldia bera, eta Bergaran

ekoiztutako *Mozkorra parregarri* opera ikusi ondoren, Errekalde jauregiaren lorategi ederrean bukatu zuten ekitaldia.

Egunero zabalik

Ofizialtasunak eginda, bada, zabal-zabalik ditu ateak eskualdeko azken altxorak. Museoa egunero dago zabalik, eta, oraingoz, ez da ezer ordaindu behar sartu eta erakusketa iraunkorrak dituen 100 piezak, 200 urte pasatxoan gordeta egon direnak, ikusteko.

DATUA

34

URTE

Orain dela 34 urte hasi ziren museoaren sortzeko proiektua lantzen, eta 24 urte jardun dute egia bihurtzeko "gogor" lanean.

MARKEL
OLANO

AHALDUN NAGUSIA



"Euskal Herrian eta Gipuzkoan badaukagu aukera serioa ezagutzaren aldeko apustua egiteko. Gure partetik, Foru Aldundiak parte hartuko du proiektu honetan eta bidelagun izango gaituzue, eta badaukagu hemendik aurrera agenda horretan elkarrekin lan egiteko aukera eta parada".

XABIER
ARANBURU
MUSEOKO
TEKNIKARIA



"Taldeak 24 urtez oso gogor lan egin ondoren egia bihurtu da. Bergarako Errege Seminarioaren altxorrik handienak eta inportanteenak ikusgai daude eta besteak ikusgai egongo dira aldikako erakusketak egiten ditugunean. Uste dut asko gustatu dela. Oso didaktikoa da. Barre ere egiten duzu, eta beti ikasten duzu zientzia eta historia".

MIGEL ANGEL
ELKOROBEREZBAR
IKERTZAILEA



"Urte askoan zain egon eta gero, eta hainbeste jende lan izugarria egin eta gero, ametsa ematen zuena errealtate bihurtu da. Bailarako guztiak gonbidatuta daude hona etortzera. Aukera ezin hobea da, parajea ere zoragarria da, Bergarak eskaintza handia du, eta horien artean museoak, punta-puntakoa".

ATERA ARGAZKIA

MARITXU KAJOI 2015 | HERRIKO PLAZA | PHOTOCALL

URRIAK 2, 13:00ETATIK 15:00ETARA ETA 17:00ETATIK 19:00ETARA

Argazkiak Goiena.eus atarian egongo dira ikusgai, eta Whatsapp bidez jasotakoak ere bai.

PARTE HARTU ETA BIDALI ZURE ARGAZKIAK

WHATSAPP: 688 69 00 17

ANTOLATZAILEA:

BABESLEAK:

goiena



Sikol



kapikua

LIRAIN
ESTETIKA ZENTRUA

Josle



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena



ZABALIK

AITZOL ITURBE
goiena.eus/komunitatea/



Agur eta ohore, Katalunia

J oan zen igandean 40 urte bete ziren Espainiako diktadurak Txiki eta Otaegi ETako kideak beste hiru militante katalanekin batera fusilatu zituela. Sinbolo diren arren, mendeetan barrena —batzuek historian hala idatzi nahi duten arren, gurea ez baita azken hamarkadetako gatazka— Espainiako estatuak, bere izen ezberdinekin, euskal herritarren aurka erabili duen errepresioaren bi adibide dira.

Inork, ez inoiz eta ez inon, ez du askatasuna lortu bere zapaltzailearen kontzientzian eraginda (Assata Shakur). Eta horregatik esan nahi diet hasi Orreagan, Amaiurtik, Elgetako frontetik eta Cerdanyola del Vallestik pasa, eta gaur egunera arte gure herriaren askatasunaren eta zapalduen aldeko borrokan ondorio latzak jasan dituztenei, agur eta ohore. Erakustearren behartu ezean ezer aldatuko ez duen zapaltzailearen aurrean borroka dela bide bakarra.

Eta horixe erakustearren esan nahi diet agur eta ohore kataluniarrei. Azken urteetako prozesuan argi izan dutelako ez dutela Madrilera begira egon behar. Ortuzarrek ez omen du inbidiarik sentitzen. Zergatik ote da? Nik inbidia sentitzen dut.

Eta gora CUP! Sektore estrategikoen nazionalizazioa, euro monetatik ateratzea, parte-hartzea, errepublika feminista, herritar guztiak eskubide berberak, aberastasunaren eta lanaren banaketa, zerbitzu sozialak bermatzea, nekazaritza ekologikoa... horra hor CUPen programa politikoa ageri diren hainbat termino. Eliteen atzaparretatik alde egin eta herritarren zerbitzura egongo den estatu bat eraikitzeko proposamen iraultzaileak 336.375 bozka lortu ditu. Eta gehiago izango dira etorkizunean.

Badakigu auzolana zer den, eta segi dezagun, beraz, euskaldunok ere, eguneroko inurri lanaz, Espainiaren eta kapitalismoaren atzaparretatik ihes egiten, Euskal Errepublika euskaldun, sozialista eta feminista lortu arte.

Segi dezagun Espainiaren atzaparretatik ihes egiten

USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | tmadina@goiena.eus

Apokalipsia bertan

P ertsonak garenez, denok ere bizioak ditugula uste dut, eta neure bat aitortuko dizuet: tarteka, sarriegi, Intereconomiaren *La Gaceta* agerkari digitala irakurtzen dut. Eta ia beti ondorio batera heltzen naiz: apokalipsia bertan dago, eta agerkari horretako kazetariak ondo asko identifikatu dituzte bere lau zaldunak: kataluniarrek; LGBT kolektiboak; ezkertiarrek; eta katoliko ultrakontserbadorea ez den edonor. Denek galbidera daramate Espainia, eta, ondorioz, baita mundua ere. Baina albisteak baino katastrofistagoak izan ohi dira irakurlearen erantzunak. Irribarre ironikoa kezka bihurtzen zait orduan: eta, kasualitatez, apokalipsiaren ostean, haiek eta ni bakarrik geratzen bagara?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Llachenak

Elixabete Garmendia Lasa
http://goo.gl/xsVufA

Egia esan, enpatxatuta bukatu genuen 70eko hamarkadaren erdialde hartan *L'estaca*-rekin. Metxeroak piztu eta gorputza ezker-eskuin mugituz osatzen zen koreografia, eta jende oldeak mantsotzen duen erritmo nekosoan, arrastaka bukatzen zen beti Llachen kanta. [...]

Ez dira horrenbeste maiztu —gurean behintzat— Llachen beste kanta batzuk. Adibidez, *A poc a poc*, pasarte batean hauxe dioena: "Pixkaka-pixkaka askatasunak hesiak zabalitzen dizkie / hainbat eta hainbat herri makurturen ametsei".

Hor dago *Tossudament alçats*, 2013ko ekainaren 29an Camp Nou Assembly Nacional Catalanak eta Omnium Culturelek antolatutako zuten Askatasunaren aldeko Kontzertu hungigarri hari amaiera eman zion kanta, himno bihurturik; hantxe hartu zuen txanpa independentziaren aldeko mugimenduak hiru hilabete eskasera —Diada egunean— osatuko zuen giza kate erraldoirako. *Tossudament alçats* kantari, metxeroen ordez, telefono mugikorrek jarri zioten argia.

Normalean, kanten eta eguneroko bizitzaren artean halako arrakala bat egoten da. Kantak fantasiaren munduari dagozkio, gurari eta ametsen adierazpideak dira, eta errealtatearekin topo egitean distira galdu eta pitzatu egiten dira askotan. Berdin gertatu ohi da kantariekin: magoen parekoak dira, liluratuko zaituzte eszenario gainetik, baina bakar-bakarrik utziko astegun buruzurietan. Badaude salbuespenak; Lluís Llach, esaterako. Katalunian martxan dagoen prozesu honetan ez da egon kantekin bakarrik; Junts Pel Si taldeko zerrendaburu izan da Gironan igandeko hauteskundeetan, eta dagoeneko Parlamentarako bidean da.

Samara Veltek egin zion elkarrizketan (*Berría*, 2015-09-10) baina batzuk azaltzen ziren: CUPen eta Junts Pel Siren artean aukeratu behar izana —bihotza han, burua hemen—; "halako gauzetan parte hartzeari", dion "erreparoa eta izua...", eta, aldi berean, konbentzimendu sendoa eta ondo oinarritua: "Komunikazio bide izan nahi izatea —artistikoa edo ez— eta tresna politikoa gisa ardurarik ez sentitzea, hasteko, hutsaltasun intelektuala da; eta horren

ostean, iruzurra".

Honenbestez, Llachen koherentzia begi bistara ateratzen da; koherentzia bere kanten eta jarrera politikoa aktiboen artean. [...]

Brunete politikomediatikoak darabilen zalapartak islatzen du Kataluniako prozesuaren tamaina. Botoetan gehiengoaren langa ez pasatu izanaren arantzak min egin behar du independentisten azalean. Eta, hala ere, nork ez luke egon nahi tren horretan, tunelean geldiarazi eta zubiak saboteatuko badizkiote ere? Batzuek bai, baten batzuek sentitu genuen inbidia aurtengo Diadan —ere—; inbidia ematen digu Kataluniako jendartearen zati handi baten erabakimenak; miretsi egiten dugu ANC eta antzeko erakundeen indarra [...]

Llachen kasuan, berriz, bere abestiak ezin hobeto egokitzen zaizkio gertatzen ari denari, poesiaren eta errealtatearen arteko hausturarik gabe. Entzun bestela *Tossudament alçats*-en zati hau: "... gure gain hartzen dugu etorkizuna idazteko eskubidea / pentsatuz herri zahar hau / bidea izan daitekeela oraindik / urrutirago heltzeko eta bizitzearen artera hurbiltzeko". Profetikoa dirudi.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendaria Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Diffusioa: 18.857 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Bergara maitte

Maritxu Barrena

Bergara

Uda aldetik hona, Bergarako kaliak geroz eta zikiñago ikusten ari naiz.

Arazo hau ez da ez alkatiaren ez eta zinegotzixen tema bakarrik.

Arazo hau... Bergaran bizi dien eta *odol txarra* dauken pertsona batzuek sortzen da.

Errefusa eta organikoa jaisteko egunak dienean, batzuk poltsak -ez kubuak- lurrian lagatzen ditzuzte, lehen egiten zan moduan. Hau nere gustokua ez izan arren... -nik kubuak, nere kakuan, ordutan eta egunetan lagatzen ditzut-, sikiera gabeko garbitzailliak, nahiz eta bere lana ez izan, jasotzen dabe... Bestela, gure kaliak katuz eta arratoiz jositta egongo zien eta... danondako kalte!

Horretaz aparte, beti egon da jente zikiña... kontenedore berde, hori eta urdiñak sekula ez ditzuztenak errespetau: plastiko, paper edota beira poltsa berian bota eta kale ertzian lagatzeko ohituria daukanak.

Ohitura arraro honek dauzken pertsonak, momentu honetan, edozein egunetan eta ordutan etaratzen dabe bere poltsa, zaku, eta abar. Bueno, edozein ordutan ez... ez gure kalian, behintzat... Koldo Eleizalden. Ez dakit zein edo zeintzuk izango dien bere

etxeko zikinkerixak modalidade honetan etaritzen ditzuztenak, "con premeditación, alevosía y nocturnidad" izaten dalako... Zikiñak bakarrik ez... kobarde batzuk be badie.

Badakit PNVk bere kanpaiñan bosgarren kontenedoreko asuntua puntu baten ipini, eta horrek Bergarako jente pillo bat mugitu zebala. Baiña puntu honen ondutan beste bospasei puntu be bazeren. Eta, poliki-poliki, prometidu daben gauza gehixenak egiten jungo diela.

A! Ni ez naiz alderdikide iñorrena, baiña Bergara izugarri maitte dot. Eta harro nago beti eta edozein momentu edo lekutan bergararra naizela esateko. Hori zaiñetan daukat, agian, etxian eta familixiakini beti hola izan dalako.

Idatzi honen bittartez bi gauza esan nahiko nittuzke:

Bat: Bergara, Bergarakuak garela sentitzen dogunondako... gure herrixa da! Gure herri polit, eder eta maittagarrixa.

Bi: Bergara zikin mantendu nahi dabenak ez dabe gure Bergara maitte!

Sagan, beti bigarren?

Mikel Arantzabal
Eibar

70 garaipenetik gora dauzka profesioaletan, baina, azkenaldian, bigarren postuak

batzen eta batzen ibili da Peter Sagan eslovakiarra.

Munduko txapelketan favorito zen, baina taldekide bi bakarrik zituen: anaia nagusi Juraj eta Kolar izeneko bat. A ze laguntza...

Hala ere, beste behin, argi geratu da berezko zerbait daukala, eta aurpegira barre egin die Belgikari, Espainiari Italiari eta halako talde indartsu eta mediatikoei.

Aitor Urrutiaren utzikeriak saria duenean, kudeaketa eredu berriaren beharra

Maider Otamendi eta Lorea Diaz de Gereñu

(Eskoriatzako EH Bildu)
Eskoriatza

Eskoriatzako Zaharren Egoitzaren alde duela lau urtetik hona ospatzen den Garagardo Festa Solidarioa bukatu berri dela, jaso dugu berria. Aitor Urrutia, Zaharren Egoitzako zuzendari ohia, gestio txarragatik kaleratua, PNVk Gasteizko legebiltzarkide izendatu du.

Izendapen honen inguruko iritzia eman aurretik, eskoriatzarren auzolana zoriondu nahi dugu eta bertan parte hartu duen jendea txalotu, urtero bezala,

auzolanean eta borondate osoz Egoitzari aportazio bikaina egin diotelako. Elkartasun keinuz beteriko asteburua izan da, herriaz harro sentitzekoa. Baina ezin dugu ahaztu Festa Solidarioa zuzendari ohiak Zaharren Egoitza egoera ekonomiko oso larrian utzi zuelako burutzen dela.

Horregatik, berri honek harritu eta mindu egin gaitu. Izendapen honen larritasunaz jabetzeko, zuzendari ohiaren utzikeria eta lan txarraren datu batzuk gogoratuko ditugu, guztiak izandako epaiketan baieztatu zirenak: 2006tik ez zuen benetako kontabilitatea eraman; 2009ko abendutik ez zituen Foru Aldundiarekin zituen betebeharrak gauzatu, hau da, egoiliar bakoitzaren fitxa bete eta diru laguntzen eskaera ez zuen bidali; honen ondorioz, Aldundiak laguntza horiek eten egin zituen; azkenik, 2010eko maiatzean 390.000 euroko zorra eta Egoitzaren diruzaintza ia agortuta utzi zuen. Okerrena da Urrutiak hau guztia ezkutatu egin zuela, Patronatuari emaitza positiboak aurkeztuz.

Gainera, Patronatuak kaleratu behar izan zuenean, Aitor Urrutiaren jarrera harroa eta manipulatuzailea izan zen. Hasieran Egoitzaren egoera ekonomiko jasangaitza bere ardura zela onartu bazuen ere, gero biktimaren mozorroa jantziz, Ezker Abertzalearen mendeku politikoa zela asmatu zuen, bidegabeko kaleratzea

argudiatuz eta Patronatuaren kontra epaitegietan salaketa jarritz. Bere gezurrekin, Udalaren erabakia Udaltzarrarena izan zela eta, ANVz gain, Elizateak, PSE, EB eta EA ere kaleratzearen alde agertu zirela estali nahi izan zuen. Zorionez, Eibarko Gizarte Epaitegiak Patronatuari arrazoia eman zion. Kaleratzea justifikatua zegoen. Honek mendekuaren gezurra agerian utzi zuen.

Gure ustez, izendapen honekin, EAJ-PNV utzikeria eta kudeaketa txarra bultzatzen dabil, legebiltzarkide izatea arduragabekeriaren sinonimo bihurtuz. Non geratzen da egunero aldarrikatzen duen kudeaketa on eta profesionala? Argi dago horrela lagunarteko txoko baten funtzionamendua, diru publikoa edozein modutan erabiltzea eta instituzioetan nahi duten guztia egiteko inpunitate osoa bultzatzen dutela. Guk nahiago dugu urte hauetan zehar Eskoriatzako herrian praktikan jarri den eredu, zerbitzu publikoen defentsan, herria auzolanean batuz Zaharren Egoitza bizirik mantentzeko eta urtero zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

Amaitzeko, zera da okerreña, herritar guztiei *lurzoru etikoa* delakoaren irakasgaiak eman eta etxeko lanak jarri nahi dizkiguten garaian, berriro ere herritarren diruarekin, legebiltzarkide honen soldata galanta ordainduko dugula.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otolara Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Erabili Goiena Klubeko txartela komertzio eta zerbitzu hauetan:



ALZU SL EHIZA ETA ARRANTZA Arantzazuko Ama 2. Oñati.

- Arropetan %10eko deskontua

NAREN. Belorrieta 5, behea. Aretxabaleta. RPS: 289/13

- %15eko deskontua zerbitzu guztietan (errehabilitazioan izan ezik).

ESKO SPORT. Intxaurtxueta 5. Eskoriatza.

- Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.

ESTACION SERVICIO ARRASATE. San Andres 7. Arrasate.

- % 2ko deskontua gasolindegian erregaia erositako.
- % 2ko deskontua dendako produktuetan.

NINIKA. Ramon Maria Lili 8. Bergara.

- %10eko deskontua artikulu guztietan.

GAES. Otorala 18. Arrasate. / Zurradero 10. Bergara. RPS: 45-46/10

- %10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

MO. J. Carlos Gerra 1. Arrasate. / Ibargarai 16. Bergara. RPS: 175/15

- %15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan)

KUTTUNA. Aranburuzabala, 19, behea. Eskoriatza. RPS: 285/13

- %5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik)

OÑATI GARAJEA. Goribar Auzoa, 9. Oñati.

- %5eko beherapena egiten diren konponketetan

JAUJA KIROLAK. Irizar pasealekua, 1 behea, Bergara.

- Produktu guztietan %10eko deskontua

GRACIAN MERTZERIA. Bidekurutzeta kalea 6, Bergara.

- 25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO. Erdiko kalea 22, Arrasate – RPS: 115/13.

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta audifonoetan.

LONBIDE OINETAKOAK. Bidekurutzeta kalea 5, Bergara.

- Produktu guztietan %10eko deskontua.

MARKIEGI. Olarte kalea 2, Arrasate.

- Produktu guztietan %10eko deskontua.

MIREN GARAI ESTETIKA. Zarugalde kalea 23, 2 ez. Arrasate.

- Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin, eskuetako tratamendua doan.

ML ILE-APAINDEGIA. Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea, Arrasate.

- Nanokeratin System proteina tratamenduan %20ko deskontua.
- Beste edozein zerbitzutan %5eko deskontua.

PORTALOI OPTIKA. Erdiko kalea 10, Arrasate. RPS: 262/13

- %15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).

P. MANSO OPTIKA. Irizar pasealekua 2, Bergara. RPS: 56/11

- Produktu guztietan, %15eko deskontua (beste promozio batzuekin ez metagarria).

IZADI BELAR DENDA. Seber Altube plaza 8 / Kontzezino 8. Arrasate.

- %5eko deskontua kosmetika naturaleko produktuetan. (Eskaintza ez metagarria)

AKER TATTOO&PIERCING Ferrerías 44, behea. Arrasate.

- %10eko deskontua 2. tatuaje (2. tatuajea 4 hilabeteko gehieneko epean egin behar da).
- Pertsona berak 2 piercing egun batean eginez gero, 2.piercingak %20ko deskontua.

HAURTXOA UME DENDA Erdiko kalea 16. Arrasate.

- %10eko deskontua produktu guztietan (ez metagarria beste eskaintza batzuekin).

ZURICH ASEGURUAK Motxon, 5 behea. Oñati.

- Auto aseguruia Zurich-era ekarriz gero, %25eko deskontua zure polizan.
- %20eko deskontua etxeko aseguruan.

ALDAPE JATETXEA Iturriotz kalea 41, Arrasate

- Asteleheneretik ostiralera eguneko menuan (bazkaria) kafea doan.
- Aste bukaeretakoa menuan (bazkaria edo afaria) kafea doan.

AQUARIUM Carlos Blasco Imaz plaza 1. Donostia. Gipuzkoa

- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

ARRASATE HOTELA Biteri etorbidea 1 behea, Arrasate

- Aste bukaeretan edo jaiegunetan 2 eguneko egonaldia 100 € (BEZa barne)

AZPEITXI JATETXEA Aranerreka kalea 13. Bergara

- Eguneko menuan, bazkarian kafea doan.
- Asteburuetakoa menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.

GAHIR FISIOTERAPIA/OSTEOPATIA Aranburuzabala 6. Eskoriatza RPS: 320/13

- %50eko deskontua lehenengo kontsultan.

GORKA ILE-APAINDEGIA Ferrerías kalea 35, behea Arrasate

- Ilea garbitu, moztu eta orraztu 32 euroren truke. Emakumeentzat.

ARRIKRUTZ KOBAK AISIALDIA Araotz Auzoko bidean. Oñati

- Sarreran %10eko deskontua (gehienez bost pertsona).

DOR ESTETIKA Errementari plaza 5, Oñati.

- %5eko deskontua zerbitzu guztietan (eskaintza ez metagarria).

GIARTZU GIMNASIOA Boni Laskurain pasealekua, Bergara.

- %10eko deskontua spinning eta karateko ikastaroetan.
- %10eko deskontua estetikako zerbitzuetan.

MUJIKA SASTRERIA Barrenkalea 1, Bergara.

- %5eko deskontua Sporteko erosketak guztietan (eskaintza ez metagarria).

SESIÑENA ILE-APAINDEGIA Atzeko kalea 10 behea. Oñati.

- %10eko deskontua zerbitzu guztietan (eskaintza ez metagarria).

JUANITOSA Atzeko kalea 11. Oñati.

- %10eko deskontua denboraldiko poltsotan.

AZUL ILE-APAINDEGIA Otorala Lizentziaduna kalea 24. Arrasate.

- %10eko deskontua betile-luzapenean. %5eko deskontua zerbitzu guztietan.

ARKAUZ OPTIKA Lazarraga kalea 2, behea Oñati.

- %15eko deskontua audifonoetan.
- %15eko deskontua produktu guztietan (eskaintza ez metagarria).

RESUSTA-KARRIKIRI Erdiko kalea 38 Arrasate.

- %10eko deskontua produktu guztietan (eskaintza ez metagarria).

COT ILE-APAINDEGIA Sagasti auzoa 1. Antzuola.

- %5eko deskontua lan teknikoetan (permanentea, metxak eta tindatzea).

AMUEBLADORA MONDRAGONESA Zigarrola kalea 1 (5. pabilioia). Arrasate.

- %5eko deskontua CENTRO HOGAR MUEBLES dendan (ez metagarria beste eskaintza batzuekin).

IMPRESPAL Komenio kalea 2. Bergara.

- %5eko deskontua produktu guztietan

ETXEBERRIA ERLOJUTEGIA Bidekurutzeta kalea 16. Bergara.

- %5eko deskontua bitxietan

ADATS ILE APAINDEGIA Herrilagunak kalea 4. Bergara.

- Keratina tratamendua Prezioa: 175 € Goiena klubeko bazkideek 75 €.
- %10eko deskontua 21 urte azpiko bazkideentzat.

ESKAITZA GEHIAGO IKUSTEKO: <http://goienakluba.com>

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

DUELA 10 URTE

2005-10-03

Kilometroak jaia Aretxabaletan

KMK'05 jaia Arizmendi Ikastolak antolatutako zuen orain dela 10 urte, urriaren 2an. 100.000 lagun espero zituzten arren, eguraldi txarraren ondorioz aurreikuspenak ez ziren bete. Hala ere, antolatzaileak "gustura" geratu ziren eta "balorazio positiboa" egin zuten. Agintarien eta antolatzaileen hitz eta ongietorrien ostean, Alberto Iñurrategi mendizaleak eta Jose Antonio Altuna Txatillo-k moztu zuten zinta.



Iñurrategi eta Altuna zinta moztzen. | AITOR LIZARRALDE

2005-10-07

Hiltegia Bizirik plataforma lanean

Hiltegia Bizirik plataformak hiltegiaren gaineko gestio planaren beharra aldarrikatu zuen auto eta traktore karabana batekin. Plataformakoek Mankomunitatearen "utzikeria" salatu zuten; eta, besteak beste, "neurriak hartzerakoan arduradunik ez egotea" salatu zuten. Hiltegiaren oraina eta etorkizuna ziurtatzeko plangintza zehaztu zuten: helburuak ondo finkatu eta hiltegiaren zorrak ekiditeko tresnak jartzea, adibidez.

DUELA 5 URTE

2010-10-01

MU telebista sortu zuten

Mondragon Unibertsitateak Internet bidezko telebista sortu zuen: MUtelebista. Mondragon taldeko lehen telebista korporatiborako hiru atal zehaztu zituzten: astero erreportajeak, zuzeneko emanaldiak streaming bidez eta bideo gordailua. Horrez gain, zehaztu zuten hizkuntza ofiziala euskara izango zela.

ARAMAIO

HERRITARRAK

Jesusa Bergaretxe Aramaioko baserri garaienean bizi da Jesusa Bergaretxe, Ipurtotzen. Kalera gutxitan jaisten da; auzoan egiten du bizimodua, eta baserri giroan ibiltzen da gustura | ARANTZAZU EZKIBEL

"Gure baserrian batzen ziren azken gariak, beste guztiak ebaki ondoren"

Aurtengo San Martin jaietan pregoilari lanak egin ditu Bergaretzek beste hiru lagunekin batera. Betiko ofizioak mantendu dituztenak omendu nahi izan zituen Udalak. Bergaretxe baserriko lanetan ibili izan da urte askoan.

Ipurtotz baserrikoa zara. Nondik datorkio izena etxeari?

Garai batean Etxangarai zen baserriaren izena, Udalaren dokumentuetan ere horrela dator. Izenaren istorioa hau da: garai batean auzolanean egiten ziren baserriko lanak. Bada, gure baserrian batzen ziren azkeneko gariak, beste guztiak ebaki ondoren. Istoriok dio gure etxe parean, beherago bizi zen emakume bat bazebilela igitaiarekin garia ebaikitzen. Igitaiarekin, makurtuta zebilen; garai hartan, gonarekin ibiltzen ziren. Ba, ipurdia hoztu egin zitzaion eta esan omen zuen: "Hau ez da Etxangarai, hau Ipurtotz da". Emakume baten esaerak horrelako influentzia izatea arraroa egiten zait, baina egia da orduko dokumentuetan Etxangarai dela baserriaren izena.

Aurtengo San Martin jaietan pregoilari lanak egin dituzu, beste herrikide batzuekin batera.

Kultura zinegotziak egin zidan proposamena. Horrelakoetan ez dut ezezkorik esaten; hortaz, joan egin nintzen. Lau lagun joan ginen. Garai bateko lanbideak egiten dituztenak omendu nahi zituzten, eta ni auzoko ordezkari moduan joan nintzen. Nik baserriko lanak egin izan ditut.

Pregoilari lanetan nola moldatu zinen?

Etxafuegoa bota genuen eta hitz batzuk esan genituen. Ez genuen aparteko lanik egin. Baserriko lanen ordezkari moduan egon nintzen.

Baserrikoa izan arren, Arrasaten bizi izan zinen hainbat urtez.



Jesusa Bergaretxe Etxaguen auzoan, San Migel egunean. | ARANTZAZU EZKIBEL

"Garai bateko lanbideak egiten dituztenak omendu nahi zituzten"

"Txorizoak erostera partikular asko etortzen zaizkit etxera"

Bai, Arrasatera ezkondu nintzen; hala ere, aste bukaeretan beti etortzen nintzen baserrira. Gero, aita gaizki jarri zen eta baserrira itzuli nintzen.

Txorizoak, buzkantzak eta beste egiten dituzu.

Etxean ikasi nuen horiek egiten; gainera, ama gazte hil zitzaigunez –orain dela 49 urte–, gerora, nire kabuz, gehiago ikasi dut. Eginaz ikasten da. Egiten ditudan odolkiak saldu egiten ditut, Aramaion eta inguruko herrietan. Txorizoak erostera partikular asko etortzen zaizkit etxera, adibidez.

Txorizoak egiteko sekretua zein den esan daiteke?

Ez dago sekreturik, okela ona erabiltzea da gakoa, lehengai ona. Gainera, esan behar da jende askok egiten dituela txorizo onak hemen inguruan.

Euskaltzalea ere bazara.

Ni euskalduna naiz. Aitarengandik ikasi dut euskalduna izaten

euskaraz hitz eginez –ahal den guztiarekin–. Horregatik, askotan, haserretu egiten naiz hemen bertan bertako lau lagun gaztelera berba egiten entzutean. Danetik jakitea ondo dago, baina hemen ez dago zertan gaztelera egiten. Hala ere, borroka horrekin nekatu naiz dagoeneko.

Uste duzu gero eta gehiago egiten dela gaztelera?

Gaur egun gazteak euskaraz alfabetatuta daude, denek dakite euskaraz, baina behin edate batera helduek gaztelera jotzen dute askok. Nire ustez, ez dago Euskal Herriko euskara gabe. Hika ere asko galdu da. Gainera, emakumeari gizonezkoari bezala berba egiten zaio; hori ez bereizteak min handia ematen dit. Jende helduak ere egiten du hori: "Ze gurok ba?", esaten didate niri, adibidez. Pena handia ematen dit horrek.

San Migel jaiak ospatu berri dituzue

NIRE HERRIAN

GAZTEEN ARTEKO GIROA

Uste dut herriko gazteen artean giro ona dagoela. Lehen baino saltsa handiagoa dago gazteen artean, jai gehiago antolatzen dituzte... Uste dut badagoela gauzak egiteko gogoia eta gazteen artean nolabaiteko batasuna. Aktibo daudela esango nuke. Gaur egun, hori da herri mailan gehien gustatzen zaidana.

PINU BELTZA ETA EUSKARA

Herri mailan, bi gauza daude ez zaizkidanak gustatzen: bat da herrian landatuta dagoen pinu beltza. Ez zait batere gustatzen. Gorroto dut. Bestalde, euskararik ez egitea ere ez zait batere gustatzen. Gero eta gehiago entzuten da gaztelera, eta horrek pena handia ematen dit. Horiek aipatuko nituzke.

auzoan. Sukaldari lanak egitea egokitu zaizu. Saltsa guztietan sartuta zaudenetakoa zara?

Egubakoitz gauean zozketatutako txerrikumea niri egokitu zitzaidan; bada, hori da San Migel egunez prestatu dudana, auzotarrak jateko. Hogeita lau lagun elkartuko gara bazkaritarako.

Etxaguen Aramaioko auzo altuenetakoa da. Hemen bertan dituzue mendiak. Mendizalea zara?

Astia falta dut. Mendia gustuko dut, baina denborarik ez dut izaten joateko. Denbora dudanean, aldiz, nekata egoten naiz.

Santikurtz ermita zaintzeko ardurara ere zuk duzu?

Bai, gure etxeko ardura izan da hori bizi guztian. Ermita txukundu eta garbitu, hara botatako dirua jaso, kandelak isiotu... Ekaineko lehenengo domekan meza egiten da eta egun hartarako ermita txukuntzea nire ardura izaten da.

HERRIAK

ONATI

Umearen edoskitzaroa eta hazkuntza bateratzen dituen taldea ezagutzen

- ▶ Txikiak Hazten Laktantzia eta Hazkuntza Taldeak urtebeteko bidea egin du
- ▶ Hil bakoitzeko lehen eta hirugarren eguenetan elkartzen dira gaztelekuko sotoan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Umea jaio osteko lehen orduak, egunak, asteak, hilabeteak... oso politak eta gogorak izan daitezke. Umeak argibide liburu barik datoz. Esperientzia berria gurasoendako: kezkak, ardurak, larritasun uneak eta baita poztasunak sortuko dizkien esperientzia berria.

Bada, une larrietan zer egin, kezken aurrean nola jokatu, ardurak nola kudeatu eta poztasunak partekatze asmoz, Txikiak Hazten Laktantzia eta Hazkuntza Taldea sortu zuten duela urtebete. Horiek guztiak kudeatzen laguntzeko. Urtebeteko ibilbidea egin du. Balorazioa "oso ona" da.

Bizipenak partekatzen

Txantxiki Familia Elkartean biltzen diren gurasok halako talde baten beharra ikusi zuten. Edoskitzean eta haurren hazkuntzan aditua den Arantzazu Intzak ere gauza bera uste zuen. Biek bat egin zuten taldea sortzeko unean. "Eskutik hasi ginen eta eskutik goaz. Umea jaiotzen denean, gurasoek, baina bereziki amek, kezka asko izaten dituzte. Lagundu baino gehiago, urdu-ri ipintzen dituzten mezuak jasotzen dituzte kanpotik. Euren egoera berean dauden beste guraso batzuekin partekatzea irtenbide ona da. Gure taldean egiten dugu hori: bizipenak partekatu eta elkarrengandik ikasi", esan du Arantzazu Intza dinamizazioaileak.

Amaren esnearen garrantzia azpimarratzen duen taldea izanda ere, edoskitze artifiziala edo biberioa erabiltzen dutenei babesa ematen diete. "Norberak erabakitzen du nolako edoskitzea erabili. Biberioa ematen dion ama batek bularra ematen dion beste batek dituen kezka berberak izan ditzake. Beraz, ongi-torria da gure taldean", dio Intzak.

Bularra eta biberioa

Txikiak Hazten Laktantzia eta Hazkuntza Taldea edoskitze talde moduan sortu zen, baina harago joan dira: haurraren hazkuntzaren lehen urteetan sortzen diren kezkek eta ardurak parte-



Txikiak Hazten Laktantzia eta Hazkuntza Taldeko kideetako batzuk umekin gaztelekuko sotoan. | MIREIA BIKUÑA

ESANAK



"Edoskitzeari buruzko aholku asko jaso nituen lehen egunetik"

LEIRE FERNANDEZ | ERABILTZAILEA



"Leku aproposa da zalantzak argitzeko; oso pozik nago"

OIHANA RUIZ | ERABILTZAILEA

katzen dituzte: dagoeneko ama direnen esperientziak, sentimenduak eta emozioak entzun; umearen loari buruzkoak; janariarekin noiz eta nola hasi; kolikoak... Horri guztiorri, amak eta umeak izan beharko luketen hurbiltasuna gehitzen diote: "Bularra

edo biberioa eman, kontaktua, berotasuna, babesa, begiradak... ezinbestekoak dira amaren eta umearen artean".

"Balorazio positiboa"

Edoskitze taldea gaztelekuko sotoan elkartzen da eguenetan.

"Taldea irekia gara. Orain arte aipatu ditugun kezkek edo beselakoak dituzten gurasoak etor daitezke. Edo, akaso, bere esperientzia partekatu gura duena", dio Intzak.

Oihana Ruiz eta Leire Fernandez dira erabiltzaileetako bi. Biak ala biak daude oso pozik esperientziarekin. "Alabak hiru aste zituela egon nintzen lehen aldiz, eta edonori gomen-datuko nioke. Hasieran nituen zalantzak argitu eta segurtasunik ezari aurre egiten lagundu zidaten. Bularrarekin arazo batzuk izan nituen, eta aholku asko eman zizkidaten", dio Leire Fernandezek.

Oihana Ruiz bigarren haurdunaldian zegoen taldea sortu zenean. "Lehen semearekin zalantza asko izan nituen. Handik eta hemendik informazioa bilatuz eta aholkuak eskatuz egin nuen aurrera. Bigarren semea jaio ostean ez nuen bitan pentsatu eta edoskitze taldean sartu nintzen. Leku aproposa da: berba egiteko, umearekin jolasteko, beste ama batzuk ezagutzeko...", dio Oihana Ruizek.

Eguenetan elkartzen dira gaztelekuan

Irailean eta urrian San Migel eta Errosario jaiak direla-eta aldatetaren bat egingo duten arren, hamabost egunean behin elkartzen dira: hileko lehen eta hirugarren eguenetan, gaztelekuko sotoan, 14:30etik 16:30era arte. Talde irekia da. Haur jaioberrien hazkuntzan kezka bat duten gurasoek parte har dezakete. Edonork, baita Txantxiki Familia Elkarteko kide ez direnak. Lotura eta konpromiso barik elkartzen dira: norberak gura edo ahal duenean joateko aukera du.

Taldean parte hartu gura dutenek mezua bidal dezakete edoskitzeatxantxiki@gmail.com helbidera.

Tituludun berrien bekendako eta herriko langabeak kontratatzeke, 150.000 euro

Udalak konpromiso "sendoa eta irmoa" izango du enplegua sustatzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Enplegua bultzatzeko apustuarekin jarraitzen du Udalak. Tituludun berriendako beken eta herriko enpresei langabeak kontratatzeke diru laguntzak emateko programa aurkeztu zuten astelehenean Maria Ubarretxena alkateak eta Saiolaneko zuzendari Joseba Sagastigordiak. Iaz moduan, tituludun berriendako beken programan batera ari dira lanean: "Guretako oso garrantzitsua da elkarlana. Eragile ezberdinek indarra jarri behar dugu bide horretan; enplegua, ekintzailatasuna eta enpresa berrien sorrera dira eta izango dira hurrengo lau urteetan gure konpromiso sendoa eta irmoa", dio Ubarretxenak.

Sagastigordiaren arabera, tituludun berriek garapen proiektuak egiteko aukera izango dute, enpresak egiten dakiena hobeto egiteko: "Enpresen eta Saiolanen artean partekatutako tutoretzak diseinatu ditugu bekadunei begira".

Bekak, hileko 800 euro

Bi programak iaz abiarazi zituzten; hamabi tituludun berri egon ziren programa horren barruan -industria sektorekoak gehienak-, beste horrenbeste enpresatan, sei



Joseba Sagastigordia eta Maria Ubarretxena ekimenak aurkezten. | J. BEREZIARTUA

hilabetez lanean eta hilero 800 euroko beka jasota: "Arrakasta izan zuen iaz, tituludun gazteek eta parte hartu zuten enpresek oso ondo baloratu zuten", adierazi zuen alkateak. Tituludun berriek urriaren 30a baino lehen eman beharko dute izena BAZen eta enpresek urriaren 15a baino lehen jarri beharko dute harremanetan Saiolanekin. Programarako gehienez 50.000 euro erabiliko dira.

Bestalde, herriko langabeak kontratatzeagatik Arrasateko

enpresei diru laguntzak ere eman go dizkie Udalak. Diruz lagunduko diren lan kontratuak gutxienez sei hilabetekoak izango dira, egun osoko lan-jardunekoak eta 50 langile edo gutxiago dituzten herriko enpresetan; langabeek Arrasaten erroldatuta egon behar dute, beranduenez 2015eko urtarrilaren 1etik. Iaz hamabi langabe kontratatatu zituzten. Programa horretarako, gehienez, 100.000 euro erabiliko dira eta eskaerak azaroaren 30a baino lehen egin beharko dira.

OHARRAK

1949AN JAIOTAKOAK

Urriaren 17an Araba aldera egingo dute txangoa. Prezioa 80 euro da eta izena Lore lurrin-dendan eman behar da; 50 euro aurreratu behar dira urriaren 13a baino lehen. Ereserki eta guzti izango dute ospakizunerako, Jesus Markaidek egindakoa, Adrian *El Guate*-ren konpuketekin.

1955EAN JAIOTAKOAK

Urriaren 17an Gasteizera egingo dute irteera, eta, adibidez, Santa Maria katedrala bisitatu dute. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da kontu korrante zenbaki honetan: 30305 0202 70 2021045493. Antolatzaileek eskatu dute izena "lehenbailehen" emateko.

1958AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 7an Herriko Plazan (11:15)edo Harresi aretoan (11:30) elkartuko dira. Harresitik irten go da bisita gidatua alde zaharrean zehar eta gero txikiteoa egingo dute. Erreka jatetxean bazkalduko dute. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da kontu korrante zenbaki honetan: 3035 0001 59 0011144438.

1962AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 7an elkartuko dira. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da honako kontu korrante zenbaki honetan, izen-abizenak jarritz kontzeptu moduan: 3035 0001 51 0010123638. Harremanetarako: 647 67 55 01 (Luis Mari), 620 73 95 51 (Jesus) edo rebeca.garval@hotmail.com.

Gripearen aurkako txertoa datorren astean anbulatorioan eta lau egoitzetan

J.B. | ARRASATE

Osakidetzak eman du gripearen aurkako 2015eko kanpainaren berri. Kanpaina urriaren 5ean hasiko da, eta, urtero moduan, 65 urtetik gorakoendako eta gaixotasun kroniko bat dutenendako da. Txertoa anbulatorioan hartu ahalko da, astelehenetik egubakoitzera, aurrez

txanda hartuta. Zaharren egoitzetatik ere pasako dira: urriaren 7an Etxaluzetik, urriaren 8an Santa Marinatik, urriaren 9an Uribarritik eta urriaren 13an Musakolatik. Gune horietan 12:00etatik 13:00etara pasatuko dira txertoa ematera. Ezinduek euren medikuekin jarri beharko dute harremanetan.



EGIN TOPA GEUREAN!

Bengoa, Ezkiña, Itzala, Monte, Okoretegi, Rumba, Txoko II

Maritxurekiko debozioak hartuko ditu kaleak gaur, fededun dotoreenak batuta

Nobenaixuan Santa Ageda abesbatza omendu dute aurten: "Gonbidapena ez genuen espero; eskerrik asko!"

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Heldu da eguna, gaur Maritxu Kajoi da Arrasaten. 1977a ezkerro arrasatearren ama birjinarik maitatuena denaren omenez, haur, gazte zein heldu dotore-dotore jantziko dira. Kuadrillak mahaiairen bueltan eseriko ditu Maritxuk, eta Komisiñuak gogora ekarri die "izugarri" eskertzen duela loreak jasotzea. Eskapularioaren mezuak gaur bertan Bergarara helduko den Emakumeen Mundu Martxarekin egin du bat aurten. Bestalde, argazki lehiaketarik ere ez da faltako; Artgazki elkarteak hartu du antolatzeko ardura, eta erretratuak lehiaketak@artgazki.org helbidera bidali behar dira. Informazio guztia: www.artgazki.org.



lazio mirarian, Palestinako bonbardaketa bateko sirena hotsak entzun ziren. | I.S.

Nobenaixuak berotu zuen festa

Nobenaixuak ederto berotu zituen motorrak joan den egubakoitzean. Santa Ageda abesbatza omendu zuen Maritxu Kajoi Komisiñuak, "urteetan zehar herriaren alde" egindako lanagatik: "Korua omentzea aspaldi genuen buruan, baina aurten izan dugu horretarako aukera. Polita izan da euredako eta guretako", esan zuen Komisiñoko Olaia Muruak. Abesbatzaren sortzaileetako bat izan zen Eugenio Gallastegiri eman zioten inbutu preziatua: "Banekien zer izango zen eta lasai nengoen



Gallastegi, inbutuarekin. | LARRAIZ ZEBERIO

horregatik. Hala ere, gonbidapena ez nuen espero; eskerrik asko!", zioen omenaldia jaso berri. Ondoren, Santa Ageda abesbatzako

kideek zenbait pieza abestu zituzten jendaurrean. Eta, nola ez, ardoa eta gazta jarri zituen Maritxuk gura zuten guztiendako.

URRIAK 2, EGUBAKOITZA

08:00 Suziri jaurtiketa.

17:30 Irrien Lagunekin *Arrantzara dantzan* haurrendako ikuskizuna, Seber Altube plazan. Euria eginez gero, Biteri plazan.

18:30 Kiliki eta erraldoi txiki eta ertainak herriko kaleak alaituz dantzan ibiliko dira.

19:00 Oria txaranga Herriko Plazan eta inguruetan.

20:30 Lore eskaintza eta Maritxuren miraria.

00:00 Dantzaldia herriko plazan, Luhartz taldearekin.



IMANOL SORIANO

'PHOTOCALL'-A Aurten ere *photocall*-a jarriko du Goienak Herriko Plazan, 13:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Argazkiak www.goiena.eus atarian kaleratuko dira gero.

'Arrasaten sinesten dugu' kanpaina, herriko komertzioa sustatzeko

Eguaztenez aurkeztu zuten *Arrasaten sinesten dugu* kanpaina, herriko merkataritzaren "sustatzaile eta bultzatzaile" izateko. Ekimenarekin bat egiten duten saltokietan, adibidez, kutxatila batzuk jarriko dituzte, edozein pertsonak egiten duen erosketa bakoitzeko 1.000 euroko zozketa baten parte hartzeko. Azaroaren 30era arte iraungo du kanpainak.

erreka

t a b e r n a - j a t e t x e a


Ondo ibili Maritxutan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate

Tel.: 943 53 32 72

erreka@errekajatetxea.eu



AMAIUR ARRASATE OSORIK
DAT EKAITZ ILUNTZ
TAUPA ETXOSTE
IRATI JAI ZALE

Eraso sexistarik ez
Erantzunik gabe!

Arrasate pasealekuko bide bat irekiko dute astelehenean, urriak 5

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Sei hilabetez itxita egon ostean, Udalak aditzera eman du astelehenean irekiko dutela bide bat Arrasate pasealekuan. Atzo, Udala plazako biribilgunea itxita egon zen egun osoan, Construcciones Amenabar enpresako langileek berriro ere asfaltatu behar izan zutelako.

Pasealekua guztiz irekitzen denean, 30 kilometro orduko abiadura muga ezarriko dute, eta zirkulazioa ibilgailu arindako soilik egongo da baimenduta. Hortaz, kamioiek Olandixoko tuneletik pasatu beharko dute. Herri barruko autoen mugimendua txikitu eta kalea oinezko eta bizikletendako egokiago bihurtzeko

asmoz, aparkalekuak kendu eta espaloia handitu dute.

Polemika piztu duen obra

Azken urteetan herrian zeresan handiena eman duen obra izan da Arrasate pasealekuarena, Udala eta Foruen plazen arteko bide zatiarena. Aurreko agintaldiko Udal Gobernuak –Bilduk eta Aralarrek osatua– jarri zuen martxan obra eta, besteak beste, proiektuaren kontra zeuden bizilagunak eta dendariak sinadurak biltzen hasi ziren lanen aurka. Hauteskundeak EAJK irabazi ostean, "ahalik eta azkarren" bide bat irekiko zutela hitz eman zuten. "Herritarrekiko konpromisoa hartu genuen", adierazi du alkateak.



Arrasate pasealekuko lanak, eguazten arratsaldean. | JOKIN BEREZIARTUA



JESUS MARI APRAIZ

Musakolatik, Estonia, Letonia eta Lituaniara

Musakolako 50 erretiratutako Estonia, Letonia eta Lituania ezagutu dituzte. "Ezberdinak" diren Europako hiru herrialde horiek bisitatu dituzte: "Leku ederrak ezagutu ditugu", diote. Duela zazpi urte hasi ziren irailean irteerak egiten; Frantzia, Kroazian, Polonian, Belgikan eta Holandan egon dira, besteak beste.

NIRE USTEZ

AITOR OROBENGOA



%6 gehiago egin behar

La aberri guztien kezka da bere gizartearen jarduerak ona den jakitea. Neurri absoluturik ez dagoenez, aberrien arteko alderaketak egin ohi dira. Horrela, bada, alderaketa mota eta sailkapen ugari sortu izan da. Hala nola ekonomiaren alde-

eraketa, hezkuntza sistemaren kalitatearen alderaketa edo osasungintzako kalitatearen alderaketa.

Enpresako hizkuntzan alderatze hori *benchmarking* deritza. Duela gutxi Suediako Gobernuak halako *benchmarking* deigarri berri bat burutu du.

Kontua da Suediako Gobernuak Olinpiar Jokoetako ondorioak aztertu dituela 1894tik hona.

Ahalegin horren helburua argibide zehatz bat ezagutzera ematea izan da: hain zuzen ere, Olinpiar Jokoetako historian joko mota guztiak kontuan har-

tuta, zenbat hobea izan den urrezko dominaren irabazlea. Azterketaren ondorioa deigarria iruditu zait.

Izan ere, urrezko dominaren irabazlea gaitetiko kirolariak baino %6 hobea suertatu da.

Ondorioz, Suediako Gobernuak bere gizarteari adierazi dion leloa nahiko erraza da ulertzeko: egunero-egunero gure lanean edo ikasketetan gainerakoak baino %6 gehiago eginez gero, lehenak izatera iritsi gitezke.

Benetan ezer gutxi da %6 hori. Edonon eskura egon liteke, ahaleginduz gero.

ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84



Bideoa aurkeztu aurretik antolakuntzak eta lagunek bazkaria egin zuten. | J.B.

Jul Bolinagaren omenaldiko lehen irudiak ikusgai daude

Aurrerapen bideoa Artemanek egin du: "Erronka izan da Monterronen bizitakoa pantailan islatzea"

J.B. | ARRASATE

Jul Bolinaga zenaren omenezko jaialdiko lehen irudi *ofizialak* astelehenean kaleratu ziren sarean; hau da, ekainaren 27ko omenaldi bereziaren promoziorako bideoa atera du antolakuntzak. Arteman komunikazio enpresak grabatu zituen irudiak eta ekoiztu du aurrerapen bideoa. "Artemaneko lantaldea kontzertu osoa grabatzen egon zen; erronka garrantzitsua izan da Monterronen bizitako momentu guztiak pantailan islatzea", adierazi dute.

RIPen *Condenado* abestiaren zuzeneko musikarekin "gau ahaztezin" hartako irudi ikusgarriak biltzen ditu lau minutu pasatxoko ikus-entzunezkoak –kantu hori jotzen ari zela hil zen Bolinaga, Bergarako gaztetxeko agertoki gainean The Potes taldearekin-. "Gau ahaztezina izan zen

gure lagun Jul gustuko zuen moduan gogoratu genuelako, jai giroan eta musikarekin topera. Eta, baita ere, Arrasateko, Euskal Herriko, Kataluniako, Zaragozako eta beste leku askotako lagunekin batera bizi izan genuelako", adierazi dute antolakuntzakoek.

Jaialdi osoa, aurrerago

Aurrerago jaialdi osoko irudiak ateratzeko asmoa dute, seguruenik DVD formatuan: "Editatze lanetan hasiko gara urtea amaitu aurretik; helburua da irudiok oroigarri moduan gordetzea. Oraindik ez dago datarik eta ez dakigu zenbat ale aterako diren".

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Domekan itxiko dute Julio Galartaren erakusketa Gasteizen

Julio Galarta pintore arrasatearraren obra oinarri duen erakusketa domekan itxiko dute. Uztailean ireki zutenetik, jende asko pasatu da Gasteizko Vital Kutxa Fundazioaren aretotik: "Kritikak hitz borobilak izan ditu Galartaren obrarendako eta bisitariak biziki txalotu dute ikusitakoaren maila", adierazi du Julio Galarta Pintorearen Lagunak Elkarteak.

Donostia 2016 proiektua aurkezteko ekitaldia urriaren 6an Kulturaten

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua deritzon proiektuaren barruan, datorren urteko ekimenen berri emateaz gain, leku bakoitzean ze proiektu gauzatu den jakinaraziko dute. Parte hartzeko bideen berri ere eman go dute, eta, beraz, aukera egongo da proiektuaren gaineko zalanztak argitzeko. Arrasateko aurkezpena Kulturaten izango da, urriaren 6an, 19:00etan hasita.

Señor No gonbidatu du Kooltur Ekintza Taldeak hilaren 8rako

Kooltur Ostegunak ekimenaren bigarren kontzertuan Señor No izango da talde gonbidatua; urriaren 8an joko dute, gaztetxean (22:00). 1993an sortutako taldea, *A veces No* singlearekin etorriko dira Xabi Señor No eta konpainia. "LPa abendu aldera aterako dugu. Oso ona da, borobila!", dio musikari nekazekinak.

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Surrealismoaren maisuak datozen etzi Amaiara, beste umore bat eskaintzera

Faemino eta Cansadok 'Como en casa ni hablar' aurkeztuko dute; sarrera gutxi batzuk daude oraindik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hamaika adjektibo erabil daitezke Faemino eta Cansado umorista ezagunen umorea deskribatzeko: absurdoa, inteligentea, ulertezina, barregarria, inprobisatua, landua... Argi dagoena da ez dutela inor axolagabe uzten; hitzak eta keinuak dira euren osagai bakarrak, baina gai dira areto oso bat barrez leherrarazteko. Bada, Bergarako Pikupe Produksioak-en eskutik domekan *Como en casa ni hablar!* azken ikuskizunarekin etorriko dira Amaia antzokira.

Aurreko ikuskizunaren ildo beretik doa, finean: agertokian argi fokuak eta mikrofono pareak, besterik ez. Ez dute gehiagorik behar, batak besteari hitza lapurtuz, zentzurik gabeko berrikeria etengabe eta eurak ere barre algaraka. Beste umore bat ekarriko dute Amaiara.



Faemino eta Cansado umoristak promoziorako argazki baten. | FAEMINO Y CANSADO

Sarrerak sarean salgai

Publiko fidela dute eta horren adierazle da Elgetako eman dirako sarrera guztiak salgai jarri eta gutxira agortu zirela eta Amaia antzokirako azken leuroetako eserlekuak bakarrik

geratzen direla libre. Sarrerak Internetez eros daitezke, Kutxa-banken eta Udalaren webguneetan; prezioa 25 euro da –kudeaketa gastuak kontuan hartu gabe-. Emanaldia 19:30ean hasiko da.

DSk nahiago du TOTAL

ORAINDIK AURKITZEKO
DAGOENA DA
ZIRRARAGARRIENA.

SYLVESTRE MAURICE DOKTOREA - ASTROFISIKARIA

DS 5 BERRIA



BATEZ BESTEKO KONTSUMOA: 3,3-6,1 L/100 KM. CO2 EMISIOAK: 85-158 G/KM



www.driveDS.es

TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

ONDO IBILI
MARITXUTAN!



Produktzio eta biltegi eremuaz gain, bulegoak, jangela eta aparkalekua izango ditu eraikin berriak. | O.E.

Eraikin berrian hasiko du 2016a Katealegaiak

Oñatiko eta inguruko 49 langile daude; automoziorako eta sarrailagintzarako piezak egiten dituzte

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Katealegaiak Oñatin duen egoitza txiki gelditu zaie. Egungo espazioarekin nekez sar daitezke proiektu berrietan, eta egungoa baino handiagoa izango den eraikinean egingo dute lan datorren urtariletik aurrera. Goribar auzoan Santa Cruz enpresa zegoen industria-eraikinean izango dira 2016tik aurrera.

Denak batera

Egun, bi eraikinetan banatuta dago Katealegia Oñatin. Berezaikoan produktioari lotutako lanak egiten dituzte eta Goribarrekoan, biltegi eta banaketa lanak. Eraikin berria bukatzen dutenean, baina, batera egongo dira langile guztiak.

Errementeri lanak egiten zituzten Santa Cruz enpresa zegoen

eraikina bere beharretara moldatzeko lanak egiten ari da orain Katealegia. Handitu egin dute. "Mila metro karratu inguru zituen enpresa horrek, eta guk espazio hori erabiltzen dugu egun, bi eraikinetan banatuta. Ez zuen zentzurik espazio bereko toki batera joateak, batez ere proiektu berriak egiteko ditugun espazio arazoak ikusita. Hori izan da

handitzearen arrazoia. Eraikin berriak 1.600 metro karratu izango ditu", azaldu du Oñatiko Katealegaiako arduradunak, Maria Bermejok. Produktzio eta biltegi eremuaz gain, bulegoak eta jangela ere izango ditu eraikin berriak. Sarrera nagusia saihebidetik izango du. "Oso toki egokia izango da, irisgarria da-eta. Saihesbidea ondoan egoteak erraztu egiten du garraiolarien lana. Langileok ere saihebidetik sartuko gara autoz joanez gero, aparkalekuraino. Hala ere, eraikinarekin atzeko aldean bidegorria dago, eta, kontuan izanda Oñatiko eta bailarako langile asko gaudela hemen, beste sarrera bat egokituko da lanera bizikletan doazeneandako", zehaztu du Bermejok.

Guztira, 49 langile daude egun Oñatiko Katealegiaian. Asko oñatiarrak dira eta beste asko Deba-goienekoak eta Urola Garaikoak. Sarrailagintzarako eta automoziorako piezak egiten dituzte eta bezeroen artean Eskoriatzako Tesa eta Arrasateko Polmetasa enpresak dituzte.

Jakion

Eraikin berrira egingo duten lekualdatzea Santa Cruzekin eta Udalarekin batera bideratu du Katealegaiak. Lanak martxa onean doaz eta asmoa da abendurako bukatuta egotea. Hilabete horretan zehar, egun erabiltzen dituen bi eraikinak hustuko ditu, eta urtea bukatu orduko lekualdatzea eginda egotea gurako lukete, urtarrilean toki berrian lanean hasteko.

Enpresa horrek Berezaon zuen lokalean Jakion enpresa kokatuko da gero; Leintz Gatzagatik Oñatira ekarriko dute Jakion. Horretarako, baina, Berezaoko eraikina berrantolatu eta garbitu egin behar dute. Udalak lagunduko du lan horiek egiten.

Urkixo gezurretan aritu izana salatu du Udalak

O.E. | OÑATI

Espainiako Gobernuaren ordezkari Carlos Urkixok presoan aldeko ekitaldiak debekatzeko eskaeraren aurrean, Oñatiko Udala Gobernuak gezurretan aritu izana salatu du. Udala Gobernuak adierazi du Oñatiko Udalak ez dituela Urkixok aipatzen dituen lege urraketak egiten. "Jaietako programan, jaien inguruan antolatzen diren ekitaldi guztiak sartzen dira, Oñatiko Udalak zuzenean antolatutakoak izan edo ez", dio, batetik, Udala Gobernu Taldeak bidalitako prentsa oharra. Urkixok bereziki aipatzen dituen hiru ekitaldiei dagokionez, hau adierazi du Udala Gobernuak: "Hiru ekitaldi hauetako bakar batean ere ez dago inongo biktimaren mesprexuzko jarrerarik, eta hori oso ondo daki Urkixo jaunak". Giza eskubideen defentsa ez dela delitua ere badio oharrean Udala Gobernuak, eta Oñati bakean uzteko eskatzen dio Espainiako Gobernuaren ordezkariari.

Urkixoren debekua aurrean, *Elkartasuna ez da delitua* lelopean elkarretaratzeko egingo dute gaur, egubakoitza, plazan, 20:00etan. Bihar, 19:30ean izango da manifestazioa.

Argazki ikastaro bi egingo ditugu jaien ostean

KOMUNITATEA GOIENA | ILUNPETAN ARGAZKI TALDEA | OÑATI

Argazkigintzaren hastapen eta sakontze ikastaroak egingo ditugu laster. Hastapeneko oinarriko ikastaroa da, kamerak erabiltzen irakatsiko da eta irudien konposiziorako oinarriko ezagupenak ere emango dira. Martitzenetan -urriaren 13tik abenduaren 1era- 18:00etatik 19:30era izango da, eta zapatu goiz bat ere hartuko dugu. Prezioa da 60 euro. Sakontze ikastaroa oinarriko teknika menperatzen dutenei zuzenduta dago. Diafragma eta obturadoreaz hitz egin beharrean, argazkiak egiteari buruz hitz egingo dugu. Ikastaro hau ekain artekoa izango da, martitzenetan, hamabostean behin, 19:30etik 21:00etara. Prezioa da 180 euro. Izena emateko bideak: ilunpetan@gmail.com edo 605 75 39 66.

Bestalde, jaiak irauten duten bitartean, *estenopeiko* deritzen teknikarekin landutako argazkien erakusketa egongo da ikusgai Foruen plazako arkuetan. Urtero bezala, erakutsitako argazkiak zozkatu egingo ditugu.

Zarataren arazoa konpontzea, mapa eginda

Kale Zaharreko arazoa konpontzea proposatu du EAJk; herri osokoa egingo luke EH Bilduk

O.E. | OÑATI

Kale Zaharreko zarataren arazoa konpontzeko bi proposamen egin ditu Oñatiko alderdi jeltzaleak: zaraten mapa egitea eta bizilagunekin eta ostalariekin elkarlanean partaidetza prozesu bat martxan jartzea. Arazoari "behin betiko konponbidea emateko", jarrera "aktiboagoa" ere eskatu dio Udala Gobernuari.

EAJk azaldu duenez, hauteskudeen harira herritarrengandik jasotako iritzietan hainbat keza heldu zitzaizkien gai horren harira, eta Udala Gobernuari "ahalik eta epe motzenez arazoari heltzeko" eskatu diote.

Miren Elgarresta bozemaileak uste du "egokia izan daitekeela inguru horretako bizilagunek jasaten duten arazoak jabetzeko eta merezi duten

arreta eskaintzeko" zarataren mapa bat osatzea. Jeltzaleen proposamena da Jaurlaritzaren ingurumen gaietarako herri-baltzuari (IHOBE) laguntza eskatzea. Mapa egiteaz gain, jeltzaleek proposatzen dute partaidetza prozesu baten bidez gaia bideratzea eta, era berean, egungo araudia berrikusi eta betearaztea.

Mikel Biain alkateak sorpresaz hartu du EAJren eskaera hori: "Izan ere, uda ostean egindako Hirigintza batzordean alderdi biok adostu dugu ordutegien ordenantza berritzea; egungoa 1992koa da". Zarata mapa egiteari dagokionez, Biainek adierazi du herri osoa, industrialdeak barne, hartzen duen zarata-mapa egitea izango litzatekeela egokiena.



Herriko pintoreen lanak ikusgai

Sanmigeletako aire zabaleko pintura lehiaketara hamasei nagusi eta lau gaztetxo aurkeztu ziren. Helduen lehen saria Bergarako Juan Jose Altunak irabazi zuen eta gaztetxoena, Ane Urtzelai oñatiarrak. Herriko margolari onenaren saria, berriz, Santi Ugartek. Lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai daude kultura etxean urriaren 11ra arte. Baita Oñatiko Margo Taldeko pintoreek egindako koadroak ere.

Errosaixo jaiak falta dira oraindik

OIHANA ELORTZA | OÑATI

"Jaietako lehen zatia oso ondo joan da. Antolatuta zeuden ekitaldi guztiak gauzatu ahal izan dira. Gainera, ekitaldi guztiak izan dira jendetsuak, parte-hartzea handia izan da eta oso pozgarria da hori. Jaiak zapuztu dituen elementu bakarra Carlos Urkixoren debeku eskaera izan da". Hitz horiekin baloratu ditu San Migel jaiak Kultura zinegotzi Nerea Zubiak.

Egin diren ekitaldien artetik, baina, gazteendako antolatutako abentura parkea nabarmendu du Zubiak. "Tirolinatik 80 gazte baino gehiago bota ziren. Aukera hori bi ordu gehiago luzatu genuen, eta, hala ere, sekulako ilarak egin ziren. Unibertsitate aurreko berdeguneko ekintzek ere arrakasta handia izan zuten, eta baita gaztetxoaren euren baz-

kariak ere. Horixe izan da aurtengo berrikuntza, eta harrera ona izan du".

San Migel eguna bera ere indartu gura izan du aurtengo Udalak, eta Esne Beltza taldearen kontzertua antolatu zuen Foruen plazan. "Oñatiko herriko plaza handia da, eta gutxitan ikusten da hain beteta. Jendea, gainera, adin askotarikoa zen", gaineratu du Zubiak.

Udaltzaingoak egindako lehen balorazioa ere ona da; ez da aparteko ezer gertatu.

Karrozak

Gaurtik martitzenera bitartean Errosaixo jaiak izango dira, herriko jaien bigarren zatia, alegia. "Ez dute hain eguraldi egonkorrik iragarri, eta, akaso, baliteke ekintzaren bat edo beste tokiz aldatu behar izatea. Erabaki hori, baina,

momentuan hartuko da, eguraldia zenbaterainoko txarra den ikusita. Oraingoz, antolatutako ekitaldi guztiak egingo dira aurreikusitako ordu eta tokietan", aurreratu du Zubiak.

Aste bukaerari begira, zapatuan, domekan eta astelehenean Unibertsitate etorbidea itxita egongo da ibilgailuendako. Bestalde, aurtengo ere, astelehenean karrozak eta osagaiak uzteko gune bat egokituko dute Aita Madina kalean. Kaleetako denda, jatetxe eta tabernetako jabeek, bestetik, aurrez jakinarazitako puntuetara eraman beharko dituzte hondakinak.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Tirolinatik 80 gazte baino gehiago bota ziren.



Egaña omendu zuten danborradan.



110 jaioberri egon dira azken urtean.



Esne Beltza taldeak jendez bete zuen Foruen plaza irailaren 29an.



Udal Musika Bandak egunero jo du zuzenean zapatutik martitzenera.



Umeendako jolasak ere izan dira.



Txantxiaren jaitiera.



Bazeta-Perez bikoteak irabazi du herriko pilota txapelketa. | ARGAZKIAK: GOIENA

NIRE USTEZ

IÑAKI IDIGORAS



Udazken koloreak

Udazkenian sartu barri gara. Eguna moztan dabil, girua freskaketan eta basuak kolore aldaketan. Aloña azpitan, Arantzazun eta Araotz aldiatan, batez be.

Aurreko mendixan, baina, nekez ikusten dogu udazken koloreak. Insignisan berde illuna eta botatako basuen soilunak dira nagusi. Insignisa eta matarrasia, errentagarritasun haundixena emun izan dauein zuhaitza eta meto- dua, hurrenez hurren. Hustiapen ekonomikorako darabilten terrenuak.

Entzuna dakot pinuek ez daueila iada lehen beste emuten. Basua botatakuan, jaso-

tako diru gehixena barrixa landaketan inbertitzen dala berriz be. Biharbada errentagarritasun formula beste kontzeptu batzuk be sartzeko garai egogixa izan leike: lurra zenbat pobreketan dauen; udako beruetan freskurarik emuten ote dauen; zer nolako ekosistema sortzen dauen; udabarri eta udazken kolorekin herrixa jazten ote dauen, herritarroi aisialdirako zein aukera emuten doskuen...

Jabetza pribatukuak diranez, jabe bakoitzak erabagiko dau zer egin.

Onura publikokuak be badi- ran neurrixan, udal eta instituzi- ño desberdiñei be badago- kixe bestelako koloreko basuak bultzaketia, politika desberdi- ñan bittartez lurjabiak animauaz.

"Beste kontzeptu batzuk sartzeko garai ona izan leike"

Euroagindua eta kontrol judiziala, biak kendu dizkiote 'Aitto'-ri

O.E. | OÑATI

Frantziak ez du gauzatu Alberto Plazaola *Aitto*-ren kontrako euroagindua. Atzo, eguna, eman zuen aditzera epaia Paueko auzitegiak. "Abokatuak eskatuta zuen, eta martitzenean fiskala ere ados agertu zen euroagindu hori bertan behera uztearekin, zentzurik ez zuelako. Hori egia bihurtzeko esperantza bagenuen, eta, azkenean, halaxe izan da. Berri onak dira. Pozik gaude", adierazi du Gerardo Plazaolak.

Irailaren 7an atxilotu zuten *Aitto*, eta 8an aske utzi, baina bi baldintza hauekin: Pirinio Atlantikoko Departamendutik ezin

ateratzea eta asteen birritan joan behar izatea Baionako komisi- rariara sinatzera. Orain, baina, debeku horiek ez ditu bete behar- ko, euroagindua bertan behera uzteko eskaerarekin batera kontrol judiziala kentzeko erabakia ere hartu dutelako irailaren 15ean epaitu zuten epaileek.

Berriak onak izan arren, Espainiak estradizioa eskatuko duen beldurra ere badu *Aitto*-ren sendiak. "Estradizioaren aurretik euroagindua eskatu du Espai- niak, eta estradizioa eskatu arren hori gauzatu arte Alberto libre egon daitekeela uste dugu", dio anaiak.

Udaleku irekietan galdutakoak eta han ateratako argazkiak Txaloka ludotekan eskura daitezke

Uztailean egindako udaleku irekietan objektu bat baino gehiago jaso zituzten begiraleek: jertseak, txankletak, motor bat... Txaloka ludotekan daude objektu horiek, eta hara joanda eskura daitezke. Bestalde, udalekuan ateratako argazkien kopia bat gura izanez gero, horiek gordetzeko USB edo antzeko memoria bat eramanez gero, momentuan egingo dute Txalokako begiraleek argazkien kopia.

Urriaren 9ra arte egongo da zabalik matrikulazio kanpaina Txiki Txoko haur eskolan

Txiki Txoko haur eskolan zabalik dute matrikulazio kanpaina. Urriaren 1etik 9ra bitartean izango dute zabalik. Hala ere, plazak bete arte, urte osoan egongo da umearen izena emateko aukera. 2014ko urtarrilean bukatu zituen Oñatiko Udalak Txiki Txoko berritze lanak, eta, egokitzen lan horiei esker, 0-2 urte arteko 40 haurrentzako tokia dute harrezkero, lehen baino zortzi gehiago. Bertara joanda edo telefonoz deituta eskura daiteke informazio gehiago. Zenbakia hau da: 943 71 64 05.

Kaleratzeak eta Aviteren mozioa, osoko bilkuran eztabaida iturri

Bi mozioak mahai gainean uzteko proposamena egon zen, baina Gobernuaren botoek erabaki zuten

JULEN IRIONDO | BERGARA

Kaleratzeak Stop-en mozioaren esaldi batek Udalarri legea urratzea dakarren zerbitu egitea eskatzen ziola-eta, esaldi hori mozioetik kentzea onartu egin zuen plataformako kide Salva Gonzalezek, EH Bilduk proposatuta. Ondorioz, jeltzaleek, hasieran abstenitzeko asmoa agertu arren, gaia hurrengo batzarrerako uztearen alde bozkatu zuten –PSE-EErekin–.

Esaldi hura kenduta, mozioa orduantxe bozka zedin nahi izan zuten plataformak eta oposizioak, baina alkatea ez zen prest agertu, mozioaren momentuko berridazketari baino testua patxadaz berraztertzeari egokiago zeritzola-eta. EH Bilduren ustez, aipatutako esaldia mozioa ez onartzeko aitzakia zela agerian geratu zen, hura kenduta ere ez zuelako EAJk testua bozkatu nahi izan. Alkateak esaldi hartaz gain beste nabardura batzuk ere berrikusteko nahia adierazia zuten bere azalpenetan.

Talidomida botikak kaltetutakoen Espainiako elkartearen –Avite– mozioarekin, berriz, alderantzizkoa gertatu zen: EH Bilduk nahi izan zuen –Irabazi ere bat etorri zen– testua egokitu eta ahalik eta epe laburrean deitutako beste batzar batean onartzea. Funtzarekin ados zeuden –Udalak kaltetu haien aldeko zenbait ekintza egiteko eskakizuna–, baina desegoki zeritzoten mozioaren idazkerari, Espainiari egiten zion-eta uneoro erreferentzia. EH Bilduren argudioak definitzeko "kosmetika", "semantika", "lokalismo" eta halako hitzak erabili zituen alkateak, eta une hartan inportantea gaixoei babesa agertzea zela adierazi –kontrako ebazpen bat jaso berri dute Auzitegi Gorenean–; EH Bilduk adierazi zuen "tristea" zela "izatera euskalduna" aintzat hartua izateko egin zuten eskaria alkateak nola definitu zuten entzutea. Koalizioaren abstentzioarekin, azkenean onartu egin zen mozioa.



Irailaren 10ean Irala kalean egindako bilkura. | SALVA GONZALEZ

Bergara, 'hiri aterpe': errefuxiatuak hartzeko prest

Aho batez onartu zen osoko bilkuran errefuxiatuen gaineko adierazpen instituzionala. Bertan, "gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten pertsonak" herrian hartzeko "prestutasuna" agertzen du Bergarako Udalak, "iristen diren errefuxiatuen eskura udal zerbitzu guztiak" eskainiko dituela gaineratuta. Horrela,

hiri aterpe aitortzen du Udalak Bergara. Eta gaineratzen du, besteak beste, konpromisoa hartzen duela gainerako euskal erakundeekin "sarean lan egiteko, Europak bizi duen errefuxiatuen krisiari aurre egiteko eta erantzun eraginkorra eman ahal izateko". Europako Batasunarentzako eskariak ere jasotzen ditu.

Emakumeen Mundu Martxarekiko atxikimendua

Bigarren adierazpen instituzionala ere aho batez onartu zuen udalbatzak. Emakumeen Mundu Martxa gaur –egubakoitza– herritik pasatuko dela-eta (*Debagoiena* sailean informazioa), Udalak ekimenari babesa adierazten dio, eta "bere esku dauden baliabideekin berdintasunaren alde lan egiteko" eta horretara bideratuta "neurriak hartzeko" konpromisoa agertzen du.

Udalbatzak, onartutako adierazpenarekin, helburuok bere egiten ditu; besteak beste: indarkeriari dagokionez, "ekintza protokoloak" martxan jartzea, "sentsibilizazioan" lan egitea eta "formakuntza" burutzea; "zaintzaileen bizitzak hobetzeko" lan egitea; "aniztasun sexuala eta genero identitatea kontuan izanik lan egitea"; eta "emakumeen jabetasuna sustatzea".

Desfilea: diseinatzaileak, arropa egiten

J.I. | BERGARA

Bedelkarren urriaren 17ko moda desfileak iazkoarekiko izango duen nobedade nagusia da denetako arropa eta osagarriez gain, herriko hiru diseinatzailearen jantziak ere erakutsiko dituztela. Aukerari interesgarri iritzi, izena eman, eta soinekoak, prakak, eta abar egiten ari dira egunotan Iraide Birumbrales, Itziar Martinez eta Eli Gallastegi, Anezka akademian, bertako Ana Parraren

laguntzarekin. Marinela erako soinekoa ari da egiten aurrenekoa; praka, kamiseta eta jaka, bigarrena; eta festarako soinekoa, hirugarrena.

Diseinatzaileak lehen urratsetik azkenera ari dira euren arropekin lanean: paperean marraztu; modeloei neurriak hartu ostean patroiak egin; probarako oihalean jantzia egin; eta oihal errealeran eraman. Hiru diseinatzaileek diote aukera poli-

ta dela eurentzako desfilean parte hartzea; Birumbralesek, adibidez: "Mutilak denda bat dauka, eta hor ari gara beti pentsatzen geure marka sortuko ote dugun; niri moda betidanik gustatu izan zaidanez, esan nuen: 'Zergatik ez parte hartu honetan?'. Gero, posible bada, geure marka sortu eta prenda horiek aurrera eraman nahi genituzke". Arroparik gustukoena, gainera, saritu egingo dute desfile egunean.



Diseinatzaileak, Anezkako Ana Parrarekin –eskuinekoa–. | JULEN IRIONDO

AITONAK

TABERNA
(Jubilatuaren etxea)

Bazkariak

Afariak

Ospakizunak

Kintadak

ETOR ZAITEZ!

08:00etatik 21:00etara zabalik!

Tel.: 628 443486

Boni laskurain, 9 behea
BERGARA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Bihar Hegaztien Eguna dela eta, ekintzak Laboratorium museoan

J.I. | BERGARA

Urriaren 3a da Hegaztien Mundu Eguna, eta bi ekintza antolatuta ditu Laboratorium museoak: bate-tik, eskualde mailako bi talde sortuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoan egingo den I. Maratoi Ornitologikoan parte hartzeko; 24 orduz ahalik eta hegazti espezie gehien identifikatzea da maratoiaren helburua –EAEn, edonon–.

Bestetik, haurrei eta familiei zuzendutako ornitologia tailerra antolatu dute urriaren 10erako. Tailerraren zati bat laborategian izango da, eta bestea kanpoko parkean, hegaztiak behatuta; hegaztien gordeleku izan ohi diren habia-kutzak ere egingo dituzte. Debagoieneko umeendako da, eta hilaren 8a baino lehen eman behar da izena.



Txantxangorria. | NATXO SANTOS

Francesc Mata | Bergarako Ahal Duguko bozeramailea

"Udaletarako hurrengo hauteskundeei begira egingo dugu lan"

Foru hauteskundeetan Ahal Duguk jasotako babesak bultzatu ditu herrian zirkulua abiatzera

JULEN IRIONDO | BERGARA

Berriki egin dute herrian Ahal Duguren zirkulua eratzeko batzarra. 30etik gora lagunek hartu zuten parte, eta lau bozeramaile izendatzea izan zen lanetako bat: Jose Maria Sasietta, Iñaki de Benito, Luis Miguel de Benito eta Francesc Mata dira –idazkari nagusia geroago aukeratuko dute–; laugarrenak erantzun ditu Goienaren galderak.

Zirkulua martxan jartzeko, ikusi zenuten hor bazela espazio bat zuentzat ere?

Maiatzeko foru hauteskundeetan ikusi genuen Bergaran 574 boto lortu genituela. Bergara moduko herri batean, kanpainarik egin gabe, kopuru hori lortzea ez da edozer. Gainera, ohartu ginen bikoiztu egin zela Europako hauteskundeetako boto kopurua. Bazeuden pertsona batzuk Ahal Dugun izena emana zutenak; haiekin harremanetan jarri nintzen, eta zirkulua sortzeari ekin genion. Bergaran 53 pertsona daude ofizialki Ahal Dugun izena emandakoak; ez dago gaizki.

Ze soslaitako jendea da?

Ezagutzen ditugu bakarrik etorri zaizkigunak. Horietan, denetik dago: badira aurrez politikara gerturatu gabeak; Sasieta modukoak, adibidez –Irabazirekin aurkeztu zen udal hauteskundeetara–; ni Kataluniako ezkerreko mugimendutik nator... Bozeramaileak ikusten badituzu, denetik dago: jende nagusia, gazteagoak; hori bai, lanerako gogo handia duen jendea.

Lehenengo batzarreko emaitza-ekin, gustura?



Francesc Mata. | JOKIN BEREZIARTUA

Bai, oso. Ez genuen hainbeste jende espero batzarrean; batez ere, badakigulako jendeak ez duela nahi izaten era bateko ekintzetan ikus dezaten. Onerako harritu gintuen.

**Zeintzuk dira zuen planteamen-
duak Bergararako?**

Zirkulua osatzen ari gara. Orain egin behar duguna da lan batzordeak sortu... Hor ikusiko dugu ze puntu diren interesgarriak lau urte barrurako. Hurrengo udal hauteskundeetara begira egingo dugu lan. Baina, bitartean, Udalaren jardun osoa kontrolatuko dugu. Talde bat sortuko dugu osoko bilkuretar joateko, horien edukia aztertu, eta une batean zerbait esateko badugu, esango dugu. Ikusten badugu ekarpenen bat egin dezakegula edo zerbaitetan lagundu behar dugula, hor egongo gara.

Nola jar daiteke jendea harremanetan zuekin?

Facebook edo Twitter bidez, podem.bergara@gmail.com helbidearen bitartez, eta bloga: Podemosbergara.blogspot.com.es.

Ikasturte berrian parte hartzeko dei egin dute Auzoko egitasmoko partaideek

J.I. | BERGARA

Udalaren laguntzarekin Jardunek dinamizatzen duen Topagunearen egitasmoa da Auzoko. Euskara elkargune, euskaratik gertu eta euskaratik urrun bizi diren pertsonak lagun taldeetan batzen dira, astean behin, euskarara hurbilpen hori egiteko.

Hiru talde egongo dira aurten: egubakoitzetan, 18:00etan, kultura etxean batuko dena; emaku-

meen lagun taldea –asteleheneretan, 15:30ean, leku berean–; eta Osintxukoa –eguaztenetan, 20:00etan, hango liburutegian–.

Horrez gain, ezohiko ekintzak ere egin dituzte, eta herrian antolatutakoetan parte hartu. Gonbidapena egin diete bai euskal hiztunei bai euskarara hurbildu nahi luketenei ekimenean parte hartzeko. Jardunera jo besterik ez dago horretarako.



Auzoko egitasmoko partaideak aste honetako aurkezpenan. | JULEN IRIONDO



IMANOL SORIANO

'Euskaraz bizi nahi dut' martxa

Kirola Kalera ekimenaren barruan eta *Jardun kirolean euskaraz* leloarekin egin zen domekan *Euskaraz bizi nahi dut* martxa. Jardun elkarteok irakurritako manifestuak zioen gaur egun errespetuarekin, elkarri laguntzarekin eta halako balioekin lotu ohi dela kirola, baina zaindu beharreko beste zerbait ere badela: euskara. Euskararen erabilera handitu beharra azaldu zuten domekako martxan Jardun elkarteok.

Patin ikastaroa, 'Gazte txef!', horma margotzea eta 'paintball'-era

KOMUNITATEA GOIENA
KABALOTE GAZTELEKUA | BERGARA

Bihar, zapatua, patin ikastaroa egingo dugu; hurrengo zapatuan, berriz, *Gazte txef!*: hezitzaileek hamar osagai emango dituzte eta gazteek lehenengo eta bigarren platerak egin beharko dituzte. Urriaren 16an, 17an eta 18an gaztelekuan dagoen horma zahar eta ilun bat kolorez beteko dugu; pentsatu, diseinatu eta margotu. Urriaren 23an, *Eraiki leku!*: gaztelekura datozen kuadrillekin elkartu, ideiak jaso, proposamenak...; guztion artean gaztelekuko dinamika eraiki. Eta urriaren 24an, *paintball*-era; izena, hilaren 21era arte, gaztelekuan edo Jardunen, 20 euroren truke.

Astelehenean hasiko da gripearen kontrako txertaketa kanpaina

Gripearen aurkako 2015eko txertaketa kanpaina urriaren 5ean hasiko da, astelehenean. 65 urte baino gehiago dituztenak, diabetesa edo gaixotasun kronikoak dituztenak, haurdunak eta profesional sanitarioak dira arrisku taldeak, eta haiei zuzenduta dago kanpaina. Osasun etxera deitu edo joan besterik ez da egin behar txertoa jartzearen gaineko informazio osoa jaso eta hitzordua eskatzeko. Bestalde, urriaren 9an osasun etxetik Labegarietara joango dira txertoa jartzera –12:00-13:00, kiroldegian–, eta urriaren 14an Osintxura –12:00-13:00, liburutegian–.

Paperean argitaratu dute '1936ko gerra Bergaran' liburua

Martxoan EPUB eta PDF formatuetan argitaratu zuten liburua; baina, sorrarazitako interesaren ondorioz, paperean ere argitaratzea erabaki dute, Gipuzkoako Foru Aldundiak duen oroimen historikorako diru laguntzari esker. Intxorta 1937 Kultur Elkartek 2012an ekin zion ikerlan horri, eta *1936ko gerra Bergaran* liburua egindako ikerketaren emaitza da. Liburua Bergarako Udal Artxiboan eta liburutegian salduko dute, eta Arrasateko Eroskin eta Ttukun dendan ere bai. Bost euro balio du. 100 orri ditu, eta argazki gehienak Bergarako Udal Artxiboko argazki fondoetakoak dira.

Helduentzako antzerkia gaur eta umeentzako domekan

Antzezlan bi ikusteko aukera izango da Zabalotegin asteburu honetan. Gaur, egubakoitza, 22:00etan, *Datorren urtean hobeto* lana eskainiko du Txalo Produzioak taldeak. Zortzi euro kostatuko da sarrera. Domekan, berriz, umeentzako antzerkiaren txanda izango da: Lanku bertso zerbitzuen eskutik, *Hor konpon marianton* izenekoarekin gozatzeko aukera izango da. Kasu horretan, lau euro izango da sarrera. Udalak atera du urriko kultura gida, eta hilabete amaierarako helduentzako ipuin kontaketa saio bat eta umeentzako beste bat programatu dituzte.

Lapurretak aurreko asteburuan Ernai kalean

UBANE MADERA | BERGARA

Hainbat garajetara sartu ziren lapurrak egubakoitzetik zapatutako gauean, baita zenbait etxabetara ere. Lur azpiko garajeen kasuan, beheko solairuko gehienek sarrailak apurru eta, adibidez, bi auto eraman zituzten.

Beste auto askotan sartu zirela ere sumatu zuten jabeek, baina ez zuten ezer faltan igarri. Hori bai, garaje barruetako zein etxabeetako beste-lako gauza batzuk ere eraman zituzten.

Poliziaren aurrean salaketa jartzeaz gainera, etxe barruko bizilagunek batzarra egin dute asteon egoera aztertzeke. Izan ere, etxe horiek eraiki zirenetik hiru urte besterik ez denean, hiruzpalau bider sartu zaizkie dagoeneko lapurrak, bai etxeetan eta baita garajeetan ere.

Hain justu, bizilagunen ustez, lehentasunezkoa da garajeetarako sarrera nagusirako ateari irtenbidea ematea, sarri matxuratu eta irekita geratzen da-eta, bizilagunetako batek Goienari adierazitakoaren arabera.

Edozein modutan, atea konpontzeaz gainera, bizilagunek ez dute baztertzeko aurrera begira bestelako segurtasun neurri batzuk ere hartzea.

Beste bi saiakera

Bestalde, astelehen eguerdian Labegarietako Telleria kaleko margo-entresa batean saiatu ziren lapurreta egiten. Aluminiozko leiho bat apurtuta sartzen saiatu ziren lapurrak, baina ez zuten ezer lapurtzerik lortu. Eta Angiozarko baserri batean ere sartu ziren berriki, ezer eraman ez zuten arren.

OHARRAK

GREDOS-GUADARRAMA

Gaur da Pol-Polen datorren asteko irteerarako ordainketarako azken eguna.

LEHENENGO EGUAZTENA

Azoka, hilaren 7an, Oxiron-don, 18:00etatik 21:00etara.

1948AN JAIOTAKOAK

Iruñera joango dira azaroaren 7an. Autobus geltokitik irtegaro dira 09:00etan. Izen-ematea, zabalik; 60 euro sartu behar dira Laboral Kutxan urriaren 30a baino lehen.

1968AN JAIOTAKOAK

Bazkaria egingo dute urriaren 24an. Izena, hilaren 18ra arte, Deportivo tabernan, 10 euro ordainduta.

Berlingo maratoian izan da Hanka Labankako taldetxo bat

Lasterketarekin zein giroarekin, gustura itzuli dira izandako esperientziarekin

JULEN IRIONDO | BERGARA

Hanka Labankako Agustin Oianguren ohikoa da Berlingo irristaketa maratoian. Seigarren aldiz parte hartu du bertan, baina oraingoan –aurreko zapatuan– taldeko beste 11 lagun ere izan dira berarekin –batek bigarren aldian zuten, besteak aurrenekoa–.

Bertako probetan ibiltzen dira normalean Hanka Labankakoak –Le Manseko 24 orduak, Landetako beste lasterketa bat... dira salbuespenak–, baina taldeko laguna Berlina urtero joaten dela eta animatu da oraingoan kuadrilla majoa. Oraingo edizioan hautsi egin du irabazleak lasterketako errekorra. 56 minutu pasatxo behar izan zituen; Agustin Oianguren eta Bergarako taldetxotik berarekin atera ziren patinatzaileak ordubete eta hamar minutu eta ordu eta erdi artean ibili ziren.

Horiek eta gainerakoek, denek amaitu zuten gustura lasterketa. "Laua eta azkarra" da, eta gustuko horregatik duela dio Oianguren. Lasterketaren inguruan egoten den giroa ere oso ona izaten ei da: 4.800 parte-hartzaile eta zaleak animatzen ibilbide osoan.



Taldeko kideak, lasterketa hasi aurretik. | HANKA LABANKA



Amaieran, dominekin. | HANKA LABANKA

Mila Agirrezabal | Liburutegiko arduraduna

"Irakurketa klubarekin oso pozik dago jendea, aberasgarria da"

J.I. | BERGARA

Irakurketa kluba martxan da berriz ere. Izena *liburutegia@bergara.eus* helbidean eman daiteke. Euskarazko liburuen gaineko solasaldiak hileko hirugarren eguaztenetan egiten dituzte; gaztelazkoen gainekoak, bigarren eguaztenetan; biak 18:00etan, liburutegian. Urriaren 21ean eta 14an izango dira, beraz, ikasturteko aurrenekoak.

Zein izaten da klubaren dinamika?

Nobedadeak eta bai, baina klasiakoak ere sartzen ditugu, esparrua eta ikuspegia zabalduz. Askotariko pertsonak daude taldeetan, eta jendea oso pozik dago: batzuek esaten dute euren generotik atera eta ikasi dutela beste ikuspegi batzuk ere badaudela, eta alde horretatik aberasgarria da. Bestetik, gehiago dakienak bere ekarpenak egiteko aukera ere badu. Ez da inor derrigortzen hitz egitera. Irakurketaren ondoren, saioaren gidariak azaltzen ditu egilearen estiloa zein den eta hala koak, eta gero nahi duenak azaltzen du zein den bere inpresioa, zertarako balio izan dion irakurketak, zer ez zaion gustatu. Gainerako inpresioak jasoaz, norbera konturatu gabe-



Mila Agirrezabal. | GOIENA

ko gauzak ateratzen dira, eta aberasgarria da.

Nork gidatuko ditu saioak?

Uxue Agirrek. Sentsibiltate handia dauka irakurketaren inguruan, eta nik ere parte hartuko dut. Bion artean borobilduko dugu.

Zeliberu duzue orain esku artean?

Taldeetako kide gehienak emakumeak gara, eta ez dakit hori ez ote den igartzen liburuen aukeraketan: orain *La vida de las mujeres*, Alice Munroren, irakurri behar dugu, eta euskarazkoan *Jostorratza eta haria*, Yolanda Arrietaren klasikoa. **Idazleak gonbidatzen dituzue?** Bai. Noizean behin etortzen dira, eta jarraitzeko asmoa dugu.

NIRE USTEZ

SAIOA GARITANO



Aulkian pentsakor?

Guraso ni ere, gai honen inguruko milaka artikululu heltzen zaizkit eskutara. Facebook, Twitter... Zer pasatzen zaio haurrari bere burutik zerbait egiten duenean, ondorio bezala, aulki baten denboratxo bat pasatzera behartzen dugunean? Bera kontziente al da horrelako egoera batean hausnartzeko? Berez, bertan eseri eta egin duenaren inguruan haus-

nartzea izan beharko zen helburu, nagusiak bere autoritatea adierazi eta bertan egotera behartzen duelarik.

Zaila da, benetan, ondokoaren pentsamenduak zein diren asmatzea, baina ziur nago haur hauek horrelakoak edo antzerakoak izango zirela: "Ez dut nahi hemen eserita egon"; "lagunekin jolastea nahi dut"; "gosea daukat"... Egoera hau, haurra zutitu eta "Amaitu dut! Ez dut gehiago egingo!"

"Goazen haurrarekin hitz egitera, eman aukera haurrari"

esaten duenean amaitzen da.

Haurra pentsatzera derrigortzen dugunean haserrea sentitzen du. Ez diogu hitz egiteko aukera ematen. Benetan haurrak badaki zer den pentsatu behar duena? Egokiago izango da, bada, haurrari bere pentsamenduak adierazten uztea, ezta? Ez diogu aukera hori eskaintzen, zigor bat inposatzen diogu. Berak badaki egoera horretatik irteteko eman beharreko erantzuna zein den.

Haurrari bere ikasketa prozesuan laguntzerakoan, bere arlo emozionala eta afektiboa ez dugu alde batera utzi behar. Beraz, egoera honetara heldu gabe, goazen haurrarekin hitz egitera, eman aukera haurrari berari hitz egiteko, entzun esaten duena eta hitz egitea ez badu nahi, utzi.

XIX. Kulturaldiaren barruan ekintza ugari San Joxepen

J.I. | BERGARA

Urriaren 10era bitartean egingo duten Kulturaldiari *Osasuna eta ekonomia* jarri diote goiburua. Atzo izan zen egitarauaren lehen saioa: Genaro Lekuonaren hitzaldia. Gaur, egubakoitza, herriko ikasleen artean egingo dako lehiaketa historiko-kulturalaren sari-banaketa egingo dute, 15:30ean. 18:00etan hasita, berriz, erretiratuen eskulan, eta abarren erakusketa egongo da ikusgai asteburu osoan.

Astelehenean, 19:00etan Miguel Altunan, *Oinordetzak eta dohaintzak* izenburudun hitzaldia emango du Diputazio-

ko Ogasun Departamentuko Juan Carlos Gonzalezek. Eguaztenean, 20:00etan, Santa Marina parrokiari, San Joxepe abesbatzaren eta Oñatiko abesbatzaren emanaldia izango da; eta eguean, 19:00etan Miguel Altunan, *Zahartzte aktibo eta osasungarria* izenburuko hitzaldia, osasun zentroko Jose Ramon Bardeci eta Igoitz Aranbarriren eskutik.

Egubakoitzean, Oñatiko Pake Leku elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak *Vivir en Villa Titiritaina* eskainiko du, 17:30ean Zabalotegin. Azkenik, zapatuan bazkaria egingo dute, musika, dantza eta opariek.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74



Lekaixoka bertso eskolako Mikel Mendiartze eta Euskara zinegotzi Aitor Gabilondo hitzarmena sinatzen. | MIRARI ALTUBE

Bertsoak iaz jaiotako neska-mutikoendako Lekaixokaren eskutik

- ▶ Gurasoek emandako argazkiekin osatu eta liburuan jasoko dute guztia
- ▶ Udalak babestu du proiektua eta izena emateko epea zabalik dago

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaletan 2014an jaiotakoei bertsoak egingo dizkiete Lekaixoka bertso eskolako kideek. Eta bertsoekin eta argazkiekin osatutako liburua argitaratuko dute Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an. Udalaren oniritzia jaso du proiektuak.

Bertsoa argazkiekin batera

"Orain dela urte eta erdi inguru liburuxka bat iritsi zitzaigun esku artera Bizkaiko herri batek. Jaioberriei egindako bertso bana zuen liburuxkak, eta polita iruditu zitzaigun", jakinarazi du Mikel Mendiartzek, Lekaixoka bertso eskolako presidentea.

Proiektua Aretxabaletera ekarri dute orain, eta Udalaren babesa jaso du: "Ideia benetan polita da eta ez dugu inolako trabarik jarri aurrera egin dezan", dio Euskara zinegotzi Aitor Gabilondok.

Bertso eskolako kideak gertu daude iaz jaiotako 69 neska-mutikoei bertso bana idazteko. Horre-

tarako, baina, gurasoen edo tutoreen baimena behar dute; baita laguntza ere: "Umearen izen-abizenak eta jaioteguna esan behar digute, eta, gutxienez, argazki bi helarazi. Bizpahiru lerroko deskribapen labur bat ere behar dugu, besteak beste, zera kontatuaz: umearen izaera, berezitasunak, bitxikeriak, familiako kideak...", esan du Mendiartzek.

Bertsoa osatuko dute argazkiekin eta diseinatzailearen ilustrazioekin, eta liburuan jaso guztiak. Bertso liburua banatuko diete, gero, parte hartu duten umeen guraso eta tutore guztiei Euskararen Nazioarteko Egunean -abenduaren 3an- bueltan egingo den ekitaldi batean. "Gurasoek, tutoreek eta umeek urte berean jaiotako haurren opari eta oroigarri polit, landu eta original bat jasoko dute, etorkizunean ere gogoangarria izango dutena", diote proiektuaren bultzatzaileek. Eta hori, gainera, debalde.

Bi hilabete eskas geratzen dira abenduaren 3ko ekitaldira-

ko, baina bertsolariak ziur daude ordurako gertatzeko gai izango direla: "Taldean bagaude hamabi bat lagun; hortaz, ume guztien gurasoek izena emanda ere ez da arazoa izango". Ekimenak, gainera, jarraipena izan dezan gura dute, eta urtero atera liburua.

Azken eguna, urriaren 10a

Interesatuta dauden gurasoek izena eman behar dute, eta horretarako azken eguna urriaren 10a da. Datuak bidaltzeko bi aukera eskaini dituzte: bertso eskolara zuzenean bidaltzea, baita argazkiak ere; hona helbidea: lekaixoka@gmail.com. Edo Arkupe kultura etxeko harreraren uztea. Argazkiak CD batean edo USB batean sartuta, eta horiek bueltan hartu ahal izango dituzte gurasoek bi aste barru.

Proiektuaren gaineko argibideak gura izanez gero, bertso eskolara jo dezakete interesatuek, edo Aretxabaleteko Udaleko Euskara Sailera deitu: 943-71 18 62.

Izen-ematea zabalik bertso eskolan

Urriaren jarriko dute abian ikasturtea Lekaixoka bertso eskolako kideek. Deialdia egin dute ikastetxeen bitartez, eta izen-ematea zabalik dago, gaur arte, urriak 2. Hain zuzen, 8 urtetik gorako neska-mutikoei berbeekin jolas egiteko eta ondo pasatzeko aukera izango dute.

Egutegia eta ordutegia ez dute zehaztuta oraindik; izan ere, gaztetxoek beharrak ezagutu gura dituzte aurretik, eta horietara moldatzeko gertu daude, ahal den heinean.

Izen-emate orria ikastetxeetan utzi behar dute, baina, Lekaixokara zuzenean bidali gura izanez gero edo argibideak eskatu, hau da helbidea: lekaixoka@gmail.com.



Iaz ikastetxean. | AMAIA TXINTXURRETA



Landareak feminismoa aldarrikatzeko

Aretxabaleteko feministek bat egin dute Debagoienetik gaur pasatuko den Emakumeen Mundu Martxarekin, eta landaketa egin zuten joan den egunean Ilargi plazako lorategian, Emakume Txokoaren aurrealdean. Pauso moreak margotu zituzten kaleetan.

Nikaraguako umeen argazkiak daude Arkupen

'Chigüines' erakusketa jarri du Amsogra elkarteak hamabost urtetako proiektuen berri emateko

M.A. | ARETXABALETA

Argazki erakusketa jarri du Amsogra gobernuz kanpoko erakundeak, Nikaraguan dituen proiektuen berri emateko aretxabaletarrei.

Aurten hamabost urte bete ditu elkarteak: "Argazkiak aitzakia dira urteotan egindako lanaren berri emateko. Hamasei bat argazki daude, eta informazioa duten panelak ere bai", argitu du elkartearen kide Iñaki Agiriano arrasatearrak: "Aretxabaleteko Udalak, gainera, diruz laguntzen ditu proiektu horiek".

Etxebizitza eta osasuna eskubide unibertsalak direla dio Amsograk, eta, horregatik, euren lan-esparru nagusiak etxebizitza duin eta osasungarria izan ditzaten dabilta lanean Nikaraguan. Herrialdearen iparraldean, esaterako, Chorotega de Mozonte herri indigenarekin batera dihardute.

Urriaren 15era arte egongo da erakusketa.



Nikaraguako umea. | AMSOGRA



JOSE INAZIO ISASMENDI

Bedoña eta Orora mendi buelta

Ekitaldi mordoia izan dituzte Basotxoko erretiratuek Kultura Astean, eta joan den egubakoitzean mendi buelta egin zuten Oro eta Bedoña aldera: "Eguraldi ona izan genuen ibiltzeko, baina paisaiarekin disfrutatzeko ez horrenbestekoa, behe-lainoa zegoen eta", jakinarazi du Jose Inazio Isasmendi presidentea. Domekan bukatu zuten astea, dokean jokaturik: "Aretxartek irabazi zuen baina Gabonetan beste txapelketa bat egiteko asmoa dugu eta orduan ikusi behar...".



Beinke-Loramendi dantza egiten plazan, Ramon Erañaren irudia oholztan dela txistulariekin batera. | MIRARI ALTUBE



Erañaren irudia Julitori ematen. | M.A.



Kudrilla bat mahaiaren bueltan kantuan. | AITOR AGIRIANO



Herritar bat eztiaren postu aurrean. | A.A.



Umeak zaldiekin. | A.A.



Erretiratuak kalean kantuan. | I.S.



Doke jokariak txapelketa bukatutakoan. | FELIS BELTRAN DE HEREDIA



Mexikar dantzariak pilotalekuan. | IMANOL SORIANO

Kantuan eta dantzan joan dira San Migel jaiak

Ramon Eraña izan dute gogoan herritarrek eta haren omenez egindako irudia eman diote Julito lagunari

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kantuan, dantzan, dokean eta musean egin dute aretxabaletarrek joan den aste bukaeran. 750 bat lagunek egin zuten kantuan egubakoitzean: "Oso gustura, gainera", jakinarazi dute Kultu-

ra Saileko kideek, eta gaineratu: "Hurrengo urterako arautu egingo dugu mahaiaren erabilera, baita bukaera ordutegia ere".

Zapatu goizean, osterara, bertako eta sasoiko produkturik onenak erosi zituzten herritarrek 21. azo-

ka ekologikoan: "Ekoizleak eta artisauak gustura egon dira eta salmentekin pozik zeuden bukaran", adierazi dute antolatzaileek.

Zapatu arratsaldean, osterara, Ramon Eraña izan zuten gogoan herritarrek. Haren omenez Kata-

lin Antxiak egindako irudiak adi-adi jarraitu zuen Beinke-Loramendi dantza plazako oholztatik, eta Anjel Bergaretxe lagunak hura ekarri zuen gogora.

Aretxarte nagusi dokean

Sanmigeletako lehenengo doke txapelketa jokatu zuten domekan eta Aretxarte izan zen nagusi UDARI irabazita, 50-11. Mus txapelketan, osterara, 32 bikotek jardun zuten norgehiagokan eta Etxabek eta Agirrek eroan zuten txapela. Jaiak bukatzeko, Mexikoko ranchera ezagunekin gozatu zuten herritarrek Aretxabaleta Abesbatzari esker.

Udal ordezkariak eskerrak eman gura dizkiete udal langileei eta herritarrei: "Horiek barik jaiak ezin dutelako aurrera egin".



KURTZEBARRI INSTITUTUA

Gazta Rosa Etxeberriarendako

Kurtzebarri BHI institutuko laugarren mailako ikasleek postua jarri zuten sanmigeletako azokan eta jasotako dirua da Holandako Merlett College institutuarekin antolatutako elkartruke bidaiaren gastuetarako. Azoka girotzeko apustu bat antolatu zuten: gazta baten pisua asmatzea. Gehien hurbildu zen haren pisura Rosa Etxeberria. "Eskerrik asko postura hurbildutako, eta on egin, Rosa!", diote institutuko kideek.

Biodantza eta argazki ikastaroak jarriko ditu abian Loramendik

M.A. | ARETXABALETA

Denboraldi berria jarriko du abian Loramendi elkarteak eta urriarekin batera ikastaro bi egingo ditu.

Eguaztenetan *Biodantza: bizitzaren dantza* saiok emango ditu Oihana Barrutia Agirrek. "Musikaren bidez nor bere potentzialarekin konektatzeko gorputz teknika da. Mugimenduan, sentitzen duguna adieraztea", jakinarazi dute antolatzaileek. Hona egunak: urriak 7, 14, 21, 28 eta azaroak 4. Bi orduko saiok izango dira, 18:30etik 20:30era bitartean. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, berriz, 12 euro.

Filarmendirekin argazkiak

Eguenetan, osterara, argazkilaritza ikastaroa izango da. Argazki kamera era automatikoan jarri barik argazkiak ateratzen irakatsiko du Ekaitz Filarmendik. Sentsibilitateak aldatu, abiadurak eta diafragmak erlaziozatu, tripodak zelan erabili eta beste hainbat kontu landuko dituzte. Hona egunak: 8, 15, 22, 29 eta azaroak 5 eta 12. Ordu eta erdiko saiok izango dira, 18:30etik 20:00etara. Bazkideendako prezioa 10 euro da eta gainerakoendako, berriz, 15 euro.

Izena eman gura dutenek Loramendira jo dezatela. Hona bideak: loramendielkartea@gmail.com; 943 77 09 70 eta 685 75 67 29.

Itoiz eta Sotres, flauta eta gitarrarekin kontzertua

M.A. | ARETXABALETA

Alberto Itoiz eta Jorge Sotres musikariek *Flauta-gitarra bikotea* kontzertua eskainiko dute datorren egunean, urriaren 8an, 19:30ean, Arkupen (sarrera, 4 euro).

Gasteizko Udal Bandako kide den Itoizek jardungo du flautarekin eta hainbat talde-tako kide izan den Sotrek gitarrarekin; ordubeteko saioa eskainiko dute. Obra originalekin eta konponketekin osatutako lanak ekarriko dituzte. "Flauta errepertorioan garrantzitsuak diren Dopplerren Hungariako fantasia pastorala eta Piazzollaren tangoaren historia, esaterako. Baita Fallaren zazpi kantuen konponketa bat", dio Itoizek, eta gaineratu du: "Ezusteko bat ere gertatu dugu kontzertu horretarako".

'Txintxilipurdi erregea' domekan Panta Rhei taldearekin

Zigoitiko (Araba) Panta Rhei taldeak *Txintxilipurdi erregea* antzezlan eskainiko die neska-mutikoei domekan, 17:00etan, Arkupen (sarrera, 3 euro). Kutxa baten barruan iritsiko da Mari Zikin eta hark ekarriko ditu jolasak, kantua, ezustekoak eta lagun mordoa. Eta kontatuko du Txintxilipurdi erregearen istorioa.

'Clown eta dibertsioa' saioa dute bihar Jaikiko kideek

Clown eta dibertsioa: nire mundu heldua ezagutzen ikastaroa egingo dute bihar Jaikikoek, kuartelean (10:00-13:30 eta 15:00-18:30). Bederatziren bat lagun elkartuko dira; batzuk clown-ean lehen pausoak emateko asmoarekin eta beste batzuk ondo pasatzeko gogoarekin. Azken orduan animatzen direnak ere onartuko dituztela jakinarazi dute.

Yolanda Arrietarekin ibilbidea egingo dute bihar liburutegian

Irakurzaletasuna bultzatzea helburu duen *Bularretik mintzora* egitasmo barruan *Ibilbide bat liburutegian* barrera saioa egingo dute bihar liburutegian (10:00-13:00).

Yolanda Arrieta idazleak umeendako liburuen gaineko argibideak emango dizkie helduei: umeendako liburuen non dauden, zein irizpide erabili liburu bat aukeratzeko...



Mugikortasun Astean, ikastetxeko gazteak eta zaharren egoitzakoak Ibarraundi museotik irteten. | ROSA LASAGABASTER

Zaharren egoitzakoak ilusioz beteta gaztetxoekin

Mugikortasun Astearen balorazio positiboa eginda, jarraikortasuna eman nahian

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Mugikortasun Astean, besteak beste, Ostegun Bidaiariak, goiti-behera lasterketa eta Urkulura bizikleta martxa izan dira ekin-tza nagusiak. Baina, horiez guztiez gain, Eskoriatzako ikastetxeetako haurrek zaharren egoitzako erretiratuak kalera atera dituzte hainbat egunean.

Almen-Arizmendiko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailakoak eta Luis Ezeizako Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoak zaharren egoitzakoak bisitatzera joan dira, eta, bide batez, Eskoriatzako hainbat txoko erakusteko konpromisoa hartu dute. Eguraldiarengatik, hainbat irteera ez dituzte egin, eta irteera bat edo beste egiteke geratu da. Udal Liburutegia, Zaldirabar antzokia, Ibarraundi

museoa, Zubiate labea, Santa Marina plaza... ikusi dituzte, eta gaztetxoak eta zaharren egoitzakoak oso pozik ibili dira.

Iratxe Arrillaga zaharren egoitzako psikologoaren esanetan: "Esperientziak partekatzen dituzte, eta, hala, denok irteten gara irabazten. Zubiate labera joan ginenean, esaterako, aspaldiko zeramika piezen kontakizunak eman zituzten egoitzakoek, eta umeak gustura egon ziren entzuten. Liburutegia, esaterako, ez zuten ezagutzen zaharren egoitzako hainbatek, eta leku horiek konpainia ezin hobean ikustea esperientzia berria izan da". Bestalde, kalean zehar paseatzean herritarrek begi onez ikusi dute ekimen hori, eta hunkigarria dela adierazi du Iratxe Arrillaga psikologoak.

Zaharren egoitzakoek ez dute ekimena aste bakarrean geratzetik nahi, eta ikastetxeekin batuko dira bilera bat egin eta ekin-tzari jarraikortasuna emateko.

Jose Aranatik ere hilero

Gaztetxoak eta zaharrak batzea ez da gaur egungo kontua soilik. Izan ere, iaz, Jose Aranako 4 eta 5 urteko haurrak ere hilean behin bisitan izan ziren martxotik maiatzera bitartean. "Aspaldiko jokoak erakusten dizkiete egoitzakoek; kanika jokia, esaterako. Batak bestearen izena ikasten du... Egoitzatik ere izan gara bertako instalazioak ikusten", dio Arrillagak.

Ekimen hori aberasgarria dela uste dute, eta urritik aurrera egiten segitu nahi dute zaharren egoitzakoek.

Zeramika ikastaroak ematen segituko dute Zubiate labean

I.B | ESKORIATZA

Apiriletik ekainera arte, *Zubiateko aitzindarien babespean, buztinaren munduari sarbidea bilatuz* izenpean, heldu eta umeentzako buztin eta zeramika ikastaroak ematen ibili dira Zubiaten, Iñaki Lizundiaren eskutik.

Esperientzia aberatsa izan dela azaldu dute Ibarraundi museotik, eta, horregatik, ikastaro gehiago antolatuko dituztela adierazi dute. Ikastaroa hiru hilabetekoa izango da, urriaren 13tik abenduaren 29ra arte, martitzeneko. Heldu eta umeentzako izango da ikastaroa. Helduak 18:00etatik 20:00ak arte egongo dira eta umeak, 16:45etik

17:45ak arte. Gutxienez, hama-bi pertsonako taldea egin gura dute, eta Ibarraunditik gonbidapena egin dute jendeak izena eman dezan.

Prezioak eta izen-emateak

Helduek 120 euro ordaindu beharko dituzte ikastaroan parte hartzeko, 40 euro hileroko. Langabeek, berriz, 90 euro ordaindu beharko dituzte, 30 euro hileroko; eta umeek 60 euro, 20 euro hileroko.

Izena eman daiteke Ibarraundi museoa, *ibarraundi@eskoriatza.eus* helbidera idatzita edo 943 71 54 53 telefono zenbakira deituta, urriaren 9a baino lehen.



Zeramika ikastaroa egingo dute Zubiaten. | IMANOL SORIANO

Bizikleta irteera egingo dute domeka honetan Araba aldera

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Kirol Elkarteak antolatuta, egun osoko bizikleta irteera egingo dute domekan. 10:00etan batuko dira martxa egingo dutenak, Huheziko aparkalekuan, eta, bizikletak furgonetetan kargatu ostean, Marisa jatetxeraino igoko dira; han hasiko dute ibilbidea. Marisa-I-suskita-Salburua-Uribarri-Marisa ibilbidea egingo dute eta 43,19 kilometro izango ditu.

Ez dago erripa gogorrik, eta paisaia ederrak ikusteko aukera izango da. Salburuko parkean bazkalduko dute bertaratuek, eta hezeguneko behatokitik hegatiak behatzeko aukera izango dute, gainera.

Bueltan, Uribarri Gamboako urtegia zeharkatuko dute, eta Marisa jatetxean amaituko dute egun osoko martxa. Izena eman nahi duenak 609 96 61 27 telefonora deitu beharko du.

Seniorrek denboraldia hasiko dute zapatuan



Senior mailako saskibaloitako taldekoak Pagaldai harategian. | ESKORIATZA KE

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako saskibaloitako taldeko senior mailako emakumezkoek aste bukaera honetan hasiko dute denboraldia. Kanpoan jokatuko dute, Azkoitiko kiroldegian. Partidua zapatuan izango da, arratsaldeko seieta, Zurt Tabernaren aurka.

Aurten, gainera, berrikuntza batekin dator taldea; izan ere, kamiseta berriak estreinatuko dituzte senior mailako emakumezkoek. Hain zuzen ere, Eskoriatzako Pagaldai harategiak babesa eman die, eta entrenatzeko kamiseta berriak atera dituzte horren adierazgarri. Bada, taldea Pagaldai harategira joan da emandako babesa eskertzeraz, eta bertan talde argazkia atera dute taldekideek harategikoekin batera, estreinatuko duten kamiseta berriak eskuetan dituztela.

Eskoriatzako Presoen Lagunak Taldeak elkarretaratzea deitu du domekarako

Marixol Iparragirreren eta Mikel Albisuren atxilotetaren hamai-kagarren urteurrena betetzear dela, "hamaika urteotako dispersioa, isolamendua, jazarpen mediatikoa, gose eta egarri grebak, espetxe zigorrak, giza eskubideen ukapena, Eskoriatzako Udalak familiakoei emandako diru laguntzak Donostiako epaitegiak bertan behera uztea..." salatzen ditu Eskoriatzako Presoen Lagunak Taldeak. Horretarako, elkarretaratze deialdia egin du, 13:00etan izango da, domekan Eskoriatzako herriko plazan.

Haurtzaroaren gaineko prestakuntza zikloaren barruan hitzaldia egingo dute Ibarraundin

Eguenean, urriaren 8an, *Lehen sorospenak haurtzaroan* hitzaldia egingo du Amaia Santxez Osakidetzako erizainak. Bi saio eskainiko ditu, gazteleiaz 15:00etan eta euskaraz 17:30ean. Izena emateko azken eguna urriaren 7a da, Jose Aranara, Luis Ezeizara, Almenera edo kultura etxera joanda, *gazteria@eskoriatza.eus* helbidera idatzita edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta. Izena emateko, inprimaki bat bete behar da, *Eskoriatzakoagenda.eus* webgunean dagoena.

Iker Aizkorbe | Argazkilaria

"Pazientzia eta konstantzia dira argazki on bat ateratzeko sekretuak; baita zorrea ere"

- ▶ 'Zazpi kolore' erakusketa urriaren 5etik aurrera ikusgai izango da Aitz Garbi tabernan
- ▶ Naturazale "amorratua" izateak eragin zuzena dauka Aizkorberen erretratuetan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

2008az geroztik ez du argazki kamera eskutik askatu Antzuolan bizi den Iker Aizkorbe aretxabaletarrak (39 urte). Ateratako argazki guztien artean zazpi aukeratu ditu eta urriaren 5etik aurrera antzuolarren begi bistara jarriko ditu Aitz Garbi tabernan, 09:00etatik 23:00etara.

Zer-nolako argazkiak ikusteko aukera izango da erakusketan?

Paisaiak erretratatzeko ditut; baina nire asmoa da koloreetan oinarritutako erakusketa zabaltea. Aukeratutako argazki bakoitzean kolore bat nagusitzen da. Urdina, berdea... zazpi kolore nagusi diren zazpi argazki osatzen dute *Zazpi kolore* izeneko erakusketa. Egunsentietako gorriak, udazkeneko horiak, gaueko beltzak, goizetako zuriak, udaberriko berdeak, egun hotzetako urdinak eta negu iluntzeetan noizean behineko magenta-arrosak batu ditut bilduma horretan.

Zergatik paisaiak?

Bestelako argazkiak atera izan ditudan arren, erosoan paisaiak erretratatzeko sentitzen naiz. Naturazale amorratua naiz, eta horrek ere eragina du. Izan ere, paisaiak erretratatzeko sentitzen dudana ez dut beste inon edo ezer erretratatzeko sentitu.

Pazientzia da argazkilaria baten sekretua?

Pazientzia, konstantzia, natura argazkilaria kasuan ingurumena ezagutzeko, faktore klimatikoa, argia... gauza asko hartu behar da kontuan gura den argazkia lortzeko. Garrantzitsuena, baina, zalan-tza barik, zorrea izatea da, horrek laguntzen du eta argazki bat lortzen.

Azkenean, lortu duzu buruan zenukan argazki hori!

Bai; asko sufrituta, gainera. Ideia bat neukan eta argazki konkretu bat gura nuen. Tokia garbi neukan zein izango zen. Hiru urte egon



Iker Aizkorbe argazkilaria Aitz Garbin. | MAIDER ARREGI

naiz zain, eta, azkenean, iaz neguan ateratzea lortu nuen. Argazki horri, gainera, estimu berezia diot, asko kosta zaidalako.

"Hiru urte zain egon naiz buruan neukan argazkia ateratzea lortu dudana arte"

Eta orain, zein da buruan bueltaka darabilzun argazkia?

Argazki asko! Atzerrira bidaia bat egitea gustatuko litzaidake.

"Kamera eskuan izan nuenean etorri zitzaidan zaletasuna"



IKER AIZKORBE

URIBARRI GANBOA Hiru urteren ostean lortu du buruan irudikatua zeukan erretratu. "Kondizio egokiak parean suertatu arte itxaron behar izan dut: elurra, hotza eta argi laranja eta urdinaren arteko jolasa, alegia".



IKER AIZKORBE

ANTZUOLA Argazki ederrenak etxetik gertu daudela geroz eta garbiago dauka Aizkorbek: "Euskal Herritik inora irten gabe argazki ederrak atera daitezkeen ingurumen batean bizi garela argi daukat".

Ez daukat toki edo ideia konkreturik buruan; ezta argazki berezirik ere. Egunean bertan buruak eta gorputzak eskatzen didanari kasu egitea; alegia, ideia finkorik izan barik.

Orain dela zazpi urte hartu zenuen lehenengoz argazki kamera bat.

2008an izan nuen lehen argazki kamera. Baina zaletasuna gerora etorri zitzaidan, behin kamera esku artean nuela. Edozelan ere, beti gustatu izan zait artea eta

marraztea.

Erakusketa astelehenean zabalduko duzu, urriaren 5ean.

Bai; zazpi argazki aukeratu ditut, esan bezala, horma batean jartzeko kopuru polita delako. Ez dut askorik kargatu gura, horrela hobeto estimatuko dela uste dudalako. Aipatu gura dut esker-tzekoa dela herriari begira eta herriko artisten lana erakuste aldera horrelako aukera eskaini izana Aitz Garbik.

Unai Larrea, kadetea Euskadiko BTTko txapelketa

Domekan jokatu zen Bizkaian Euskadiko BTT txapelketa. Arboleda eta Trapagaran arteko jaitsieretan egindako proban, Unai Larrea antzuolarrak jantzi zuen kadete mailako elastikoa. Oztupo eta saltoz beteriko jaitsieran, Larrea bikain aritu zen. Parte-hartzaileen erakustaldi apartaz gozatu zuten ikusleek.

ION LIZARAZU



Emakumeak albiste

ehen deia eta kapitainak salto eta oina zuzen gora. Taldeak jarraitzen du. Maki-la txikiak eskuan urduritasunak ihesari eman dio. Nahasteak nahaste, ez da akatsik egon. Bigarren dantzari sarrera egiteko, kapitainaren zortziko. Berehala hasi da erdiko laukotea arkuekin dantzan, gainontzekoak batu zaizkio eta bizitasunez bukatu da bigarrena ere. Arku bat apurtuta, anekdota gisa. Hirugarren dantza-

NIRE USTEZ

ren aurretik kapitainak zortziko. Erdiko lauak berriz protagonista, makila handien golpe lehorrak entzuten dira. Denok batera burun-badagoga da. Bada gogor jotzen duenik, baita suabe dantzatu nahi duenik ere. Azken dantzarako zinta eskuan. Kapitainak lehenik, eta taldeak ondoren, azken zortziko. Deia entzun eta zinta lotzera. Behin lotuta buelta eta askatzera, oraingoan kantuan. Nahikoa lan hauspotik putz egiten, eskerrak

kanpotik ere ari diren. Gogoratze-ko moduko eguna, Antzuolatik 30en bat dantzari eta 10eko txistulari taldea. Emakumezkoak atera ginen plazara, bai, eta elkarrekin egin genuen dantza, bai. Gizonezkoekin plazara irten ziren emakumezkoek lehenak izateko pribilegioa izan zutela irakurri dut. Horrenbesteko ohorea ote gizonezkoekin plaza partekatzea? Ez al luke ohikoa izan behar, eta albiste izateari utzi?

Loli Lasaga | Txirritolako kidea

"Txirritolak piztuta jarraituko du, baina ekintzak antolatzeko modua aldatuko da"

- ▶ Txirritolak barne hausnarketa prozesua egin du
- ▶ Eukararen Eguneko antolakuntzan dihardute

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Txirritola euskara elkarteko batzordeko kide da Loli Lasaga. Azkeneko urtean hainbat batzar izan dituzte euskara elkartean barne hausnarketa egiteko. Txirritolaren funtzioak zein izan behar duen aztertu dute. Etapa berri baten aurrean daudela azaldu du Lasagak.

Urte hasieran hausnarketa prozesua zabaldu zenuten. Zergatik egin zenuten hausnarketa hori?

Premia ikusten zelako. Leloa izan zen: *Txirritola piztu edo itxungi*. Erabaki zen piztuta jarraitzea eta aldatzea ekintzak antolatzeko modua.

Nolakoa izango da etapa berri hau?

Erabaki da hilerio zerbait antolatu beharrean urtean hiru edo lau ekintza antolatzeko, baina ganorazko ekintzak izatea.

Nolako ekintzak izango dira?

Orain gertuen duguna izango da Euskararen Eguna. Elkarte moduan parte hartuko dugu anto-



Loli Lasaga domekako ospakizunean. | LARRAITZ ZEBERIO

laktuntzan. Horrez gain, pentsatu dugu egitea hitano ikastaro bat, eta baita irakurketa edo literatura saio batzuk ere.

Ekintzak urtetik urtera ezberdinak izango dira?

Bai, hala izango da, ez ditugu urtero gauza berdinak antolatu. Batzorde nagusiaz gain, talde bat eratu dugu Txirritola barruan urtean zehar zer antolatu erabakitzeko.

Zenbat herritarrek osatzen duzue gaur egun Txirritola euskara elkartea?

Txirritolako batzordean bost lagun gaude; baina, horiez gain, beste talde horretan elkartu ginen hamabi bat lagun. Bakoitzak ahal zuen ekarpena egin zuen, edo iritzia eman zuen nahi zuen gaiaren inguruan. Oso aberasgarria izan zen elkartu ginen kide guztien iritzia entzutea eta ekarpenak jasotzea.

Aurtengo Sagardo Eguna ez antolatzeko erabaki zenuten. Hala ere, ekintzak aurrera egin du Udalaren laguntzarekin. Pozgarria izan da zuendako aurrera nola egin duen ikustea?

Bai; Sagardo Eguna ezin zen galdu, urte askotako ekintza da. Guretako, pozgarria izan da guk antolatu ez arren beste batzuek antolatuta aurrera egin duela ikustea.

Sagardo Egunean omenaldia jaso zuten

Domekan ospatutako Sagardo Egunean omenaldia jaso zuten Txirritolako kideek, orain arte egindako lanaren esker on moduan. Txotx irekiera egin zuten euskara elkarteko kideek Udaleko hainbat ordezkariaren laguntzarekin.

Urteroko hitzordu garrantzitsu bilakatu da Sagardo Eguna herrian. Aramaioko sagardoa dastatzeko aukera paregabea izan zuten domekan: hamahiru sagardogilaren sagardoa. Horrez gain, Lagun Artean dantza taldeak egindako taloak jateko aukera egon zen, eta baita sagarra nola xehatzen den eta lehen muztioa nola ateratzen den ikusteko aukera ere. Trikitalejira taldeak ipini zion musika egunari eta Manex Agirrek eta Andere Arriolabengoak bertsoak bota zituzten.



Txirritolako kideak eta Udaleko ordezkariak txotx irekieran. | LARRAITZ ZEBERIO



Sebastian Lizaso. | GOIENA



Angel Mari Peñagarikano. | GOIENA

Lizaso eta Peñagarikano bertsolariak gaur Untzillan

A.E. | ARAMAIO

Untzillako jaiak ospatuko dituzte gaur hasi eta domekara bitartean. Jaiei hasiera emateko, kanpai-jotzea egingo dute eta etxafuegoak botako dituzte. Ondoren, bertso afaria izango dute Sebastian Lizasorekin eta Angel Mari Peñagarikanorekin.

Ginkaka umeekin

Zapatu eguerdian meza izango dute auzoko hildakoen alde. Ondoren, umeendako ginkana egongo da eta trikitilariak girotuko dute jaiaren musika-ekin. 16:00etan mus txapelketa izango dute. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu

parte hartzeko. Sariak izango dira: irabazleek %40 eta garai-kurra; bigarren bikoteak %20; eta hirugarrenak %10. Izena elkartean eman beharko da 15:30etik 16:00etara.

17:30ean Puski eta Txurru-ski pailazoaren ikuskizuna; 19:00etan txokolate-jana; eta 23:00etan Murumendi elkartean 23. bolo txapelketa. Parte-hartzea 10 euro da.

Kupela taldearekin dantzan

Domekan meza nagusia izango dute Aramaioko abesbatzarekin, 12:00etan. 13:00etan, Bermouh dantza izango dute Kupela talde ezagunarekin.

Astelehenean hasiko da gripearen aurkako txertaketa kanpaina

A.E. | ARAMAIO

Aurten ere Osakidetzak abian jarri du gripearen aurkako txertaketa kanpaina.

Azkeneko urteetan moduan, txertaketa 65 urtetik gorako guztiei zuzenduta dago, eta baita gaixotasun kronikorekin bat duten 65 urtetik beherakoei ere. Besteak beste, diabetesa edo bihotzeko, biriketako eta giltzurrunetako gaixotasunen bat dutenentzuzuzendutako kanpaina da. Horiez gainera, eta iaz egin zuten moduan, emakume haurdunei ere txertoa hartzeko gomendio egin diete Osakidetzako arduradunek.

Aramaioarrek herriko osasun etxera joan behar dute txertoa jartzera.

Kontsultategira joan

Kanpaina astelehenean hasiko da, urriaren 5ean. Txertoa hartzeko osasun etxera joan behar da, astelehenean ostiralera, 09:00etatik 13:00etara. Etxean dauden ezinduek euren mediku edo erizainarekin harremanetan jar daitezke txertoa etxean bertan jasotzeko.

Bolanterik gabe

65 urtetik gorakoek ez dute medikuaren bolanterik behar txertoa



Txertoa jartzen. | GOIENA

jartzeko; haiek zuzenean joan daitezke txertoa hartzerako osasun etxera. Astelehenean hasiko den kanpainak hainbat hilabete iraungo du.

Urriaren 9a da konpost-gunean izena emateko azken eguna

Udalak Osteta kalean jarriko duen konpost-gunean izena emateko azkeneko eguna datarren egubakoitza izango da, urriaren 9a. Interesatuak 945-44 50 16 telefonora deitu edo al21zuia@gmail.com helbidera idatzi behar dute. Udalak ikastaroak antolatuko ditu materia organikoa modu jasagarrian nola kudeatu erakusteko.

Margo lehiaketa egingo dute urriaren 12an, Itur Zuri taldeak antolatuta

Itur Zuri emakume taldeak 24. kaleko margo lehiaketa egingo du urriaren 12an, astelehena. Nahi duenak parte hartu ahal izango du eta teknika librea izango da. Egin beharreko lanak 09:00etatik 11:00etara sinatuko dituzte; lanak entregatzeko epea 14:00ak izango da. Gaia da Aramaio eta ingurua. Sariak 18:30ean emango dituzte.

Urriaren 31n postua jartzeko eskaera gaur egin beharko da

Urriaren 31n Erretiratuen Eguna ospatuko dute. Horren barruan, azoka egingo dute; bada, Udalak deialdia egin die herriko artisau eta abeltzainei egun horretan postua jartzeko. Interesatuak izena eman beharko dute udaletxean. Eta, hain zuzen ere, horretarako azkeneko eguna gaur da, urriaren 2a.

ELGETA

Mintzapraktika taldeak bultzatuko ditu Udalak Topagunearen babesarekin

Asmoa da Elgetan euskara maila askotariko hiztunen arteko topalekuak sortzea azarorako

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Martitzenean aho batez hartu zuen erabakia Elgetako udalbatzak. Hala, Udalak aurrera egingo du *Elgetan berbetan* egitasmoarekin, eta hitzarmena sinatuko du euskara elkartearen federazioa den Topagunearekin 2015-2016 ikasturtean mintzapraktika taldeak bultzatzeko ahalegina egiteko. Dinamizatzaile batek asteen hiru ordu eskainiko dizkio egitasmoari. Helburua da herritarrek inplikatzeko mintzapraktika taldeetan parte hartzeko.

"Topaguneak planteamendu zehatza egin du, esperientzia du eta sendotasuna emango dio egitasmoari", azaldu du Euskara batzordeko arduradun Janire Lazkanok.

Egitasmoak 4.486 euroko aurrekontua du, eta, babestu arren, Gu Geu taldeko bozeraile Mikel Larreak kezka agertu zuen. Galdetu zuen ea horrelako kostuak ez ote diren handiegia Elgetarako. "Emitzak mereziko du kostua?", galdetu zuen. Lazkanok erantzun zuen aurreikusita dagoela proiektua.

ren jarraipena egitea eta amaieran Topaguneak balorazio txostena egingo duela. "Eta mintzlagun talderik irtengo ez balitz, aukera dugu hitzarmena bertan behera lagatzeko", esan zuen. Urrian hasiko da dinamizatzaile lanean. Laster, herritarren parte hartzea eskatuko du mintzapraktika taldeak osatzeko. Asmoa da ekimena azaro hasieran martxan jartzea.

Osoko bilkuran, bestalde, Mankomunitateko ordezkariak izendatu zituen udalbatzak. Sei batzorde izango ditu Mankomunitateak eta Iratitz Lazkano, Sebastian Arantzabal eta Mikel Elkoro izango dira Elgetako ordezkariak.

Kirol zerbitzua martxan

Pilates eta *zumba* jarduerak izan ezik, asteen abiarazi ditu Udalak kirol zerbitzuko gainerrako jarduerak. Lan-poltsa osatu ostean, Etor Garate elgetarrak egingo ditu kirol teknikari lanak.



MANU CASTRO

Txomin de Vega berriz txapeldun

Zapatuan jokatu zuten La Arboledan (Trapagaran, Bizkaia) BBT jaitsierako Euskadiko txapelketa. Bere kategoriari onena izan zen Txomin de Vega elgetarra. Podiumera igo eta master 30 kategoriako txapeldunaren elastikoa jantzi zuen.



ELGETAKO HERRI ESKOLA

Eskolako umeak Intxorta puntan

Irteera eguna izan zen aurreko barikua Elgetako Herri Eskolako neska-mutikoendako. Bolatokiko parkera egin zuten txangoa txikienek; 1. eta 2. mailako ikasleak Asentziara joan ziren eta 3. mailatik gorakoak Intxorta puntan izan ziren —argazkian—. Jan-edanak motxilan hartuta egun-pasa polita egin zuten irakasleen konpainian.

Badator Gabonetako pilota txapelketa; zabalik dute izen-ematea, udaletxean, urriaren 9ra arte

Eskuz binakako lau t'erdiko pilota txapelketa ate joka dago Elgetan. Aurten ere bi txapelketa izango dira: 40 urtetik azpikoena eta 40 urtetik gorakoena. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena, antolatzaileek egutegia garaiz prestatu ahal izateko.

Domeka honetan doan izango da bisita gidatua, Intxortako frontea ezarri zeneko urtemuga gogoan

Francoren tropek 1936ko urriaren 4an egin zuten Intxortako frontea apurtzeko lehen eraso. Urtemuga eguna izango da etzi. Hala, aste bukaera honetako bisita gidatua doan izango da, eta ez da aurrez izena eman beharrik izango. Taldea 10:00etan elkartuko da Espaloia kafe antzokian dagoen interpretazio zentroan.



JUAN MARI ARANTZETA

39 erretiratu Errioxan egun-pasa

KOMUNITATEA GOIENA
XALBADORPE ELKARTEA | ELGETA

"Lanbroa eta euri apur bat izan dugu, baina ondo ibili gara Errioxa aldean.

Bastidan egin dugu hamarretakoa, Eltziegion bisita txiki bat eta Guardian tren ibilaldi turistikoa eta bazkaria. Arratsaldean, berriz, Haron izan gara", azaldu du elkarte presidentea Pedro Mari Uberak.

OHARRAK

EGOARBITZA AUZOLANEAN

Urriaren 12rako, astelehena, Egoarbitzako herri basoa auzolanean garbitzeko dei egin du Elgetako Udalak. Boluntario taldea 08:30ean elkartuko da herriko plazan. Aukera izanez gero erremintak hartzeko eskatu dute. Egun horretan Udalak ipiniko du hamarretakoa guztiendako.

MATRIKULA HAURRESKOLAN

Zabalik dute matrikula epea Elgetako haurreskolan urriaren 9ra arte. Argibide gehiagorako, jo haurreskolara.

GAZTELEKUA MARTXAN

Bihar, zapatua, zabalduko dute gazteleku zerbitzua, 16:00etatik 20:00etara.

GURE ESKU DAGO

Batzar irekia deitu dute urriaren 8rako, 19:00etan, kultura etxean. Gaia: Eskura prozesua. Iraupena: ordubete. Herritar guztiei zabalik.

FAEMINO ETA CANSADO

Kafe antzokian egingo dute ikuskizuna bihar, zapatua, 22:30ean. Sarrerak agortuta daude.

LEINTZ GATZAGA

Urriaren 24ra arte eska daiteke azokarako postua

San Milixan azokan postua jartzeko epea zabaldu du Leintz Gatzagako Udalak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 15ean, domeka, 10:00etatik 14:30era izango da aurtengo San Milixan azoka, pilotalekuan, ohi bezala. Eta bertan postua jartzeko baimena

eskatzeko epea zabalik da, urriaren 24ra (zapatua) bitartean.

Deialdia Euskal Herriko eskulangileendako edo artisauendako da; bestela esanda, Iparraldean, Nafarroan eta Euskal

Autonomia Erkidegokoan bizi diren artisauak egindakoa. Bete beharko dituzten baldintzen artean, hori bai, honako hiru hauek ezinbestekoak dira: erakusgai edo salgai jarriko dituzten produktuen egilea izatea derrigorrezkoa izango da, baita azoka egunean langintzaren erakustaldia egitea ere. Hori horrela, artisauak berak landu ez dituen produktuak ez dira onartuko. Eta, horrekin batera, eskatzaileak dagokion herrialdean artisauen erregistroan alta eman

da dagoela egiaztatuko duen ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko du.

Hamabost bat postu

Izen-emate orriak udaletxean bertan aurkeztu beharko dira. Eta, bertatik jakinarazi dutenez, dagoeneko badabilta halako hainbat jasotzen.

Berez, 14-15 bat artisauak parte hartu ohi dute San Milixan azokan. Beraz, interesa dutenek ahalik eta lasterren aurkeztu beharko dituzte eskaerak.

LEINTZ GATZAGA

Gaur, urriak 2, bukatuko da ehiza eskaerarako epea

Orain arte egindako enkan-teetatik libre geratu den uso posturen bat edo oilagor txartelen bat eskuratzeko interesa daukatenek gaur (egubakoitza) dute proposamenak aurkezteko azken eguna, udaletxean bertan. Udalak esandakoaren arabera, esleipen zuzena egingo dute, hau da, proposamenak jaso ahala.

ATLETISMOA



Arrasate-Oñati lasterketaren irteera, iaz, Portaloian. | GOIENA

Debagoienean dago Behobia-Donostia prestatzeko aukera onena

Urrian egingo dituzte Arrasate-Oñati, Gaueko Tafyd eta Antxintxika krosa

XABIER URZELAI | ARRASATE

Debagoieneko bidegorrietan oinez edo bizikletan dabiltzanak dagoneko konturatu dira azken hila-beteotan hazi egin dela zapatilak jantzi eta korrika dabilen jende kopurua. Batetik, geroago eta

gehiago direlako azken urteotan *running* egiten, edo, bestela esanda, korrikan dabiltzanak.

Eta bestetik, udazkena delako askok korrika egiteko bereziki aukeratzen duten sasoi. Eta hor, noski, eragin zuzena dute azaro-

ko bigarren domekan antolatzen duten Behobia-Donostia lasterketak eta, baita ere, proba horren itzalean antolatzen diren lasterketa guztiak ere. Arrasaten, Bergaran eta Oñatin, antolatzaileak aspaldi dabilta lanean.

DATOZEN LASTERKETAK

Urriak 10: ARRASATE-OÑATI PROBA: 11,8 kilometro. Izen-ematea: www.herrikrosa.eus

Urriak 23: GAUEKO TAFYD KROSA: 5,6 kilometro Arrasateko kaleetan, gauez. www.herrikrosa.eus

Urriak 31: ANTIXINTXIKA KROSA: 10 kilometro, Soraluze eta Bergara artean. Izen-ematea: www.kiralprobak.com

Badago non aukeratu

Asier Osinaga Antxintxiketan taldeko kideak garbi adierazi zuen Arrasate-Oñati lasterketaren aurkezpenean: "Behobia-Donostia probak gurean duen eragina ikusita erabaki genuen gure lasterketa udazkenera aldatzea". Eta, gauzak diren moduan, azken urteotan proba hazi egin da. Bai Arrasate-Oñati bera, bai Antxintxika krosa (Soraluze-Bergara) eta baita Gaueko Tafyd Krosa ere.

Hala, bakarrik entrenatzeaz aspertuta dagoenak eta lasterketek ematen duten "puntu" hori bereganatu gura duenak hilabete bete izango du urria.

FUTBOLA

UDAk Zamudio liderraren etxean jokatu du

X.U. | ARETXABALETA

Hirugarren Mailan bost puntu batu ditu UDAk, eta denak berdinketei esker. Hala, zapatuan Zamudion lortu gurako dute lehen garaipena (17:00).

Ohorezko Erregionalean, berriz, Aloña Mendik partidu bat irabazi eta berdindu egin du bestea. Oiarzun ez da hobeto hasi, eta haien kontra jokatuko dute zapatuan, Karla Lekuona zelaian (16:30).

Mondra lider dago

Lider dagoen Mondrak Beasainen jokatu du zapatuan (18:30). Bergara ere txukun hasi da, lau puntu batuta; mahoneroek Azpeitian jokatuko dute domekan (16:30). Antzuolak bidea zuzendu gura du etxean domekan (16:30) Lagun Onaken kontra. Eta Aretxabalek ordu berean jokatuko du, Urolaren kontra.

ESKUBALOIA

Etxean estreinatzen ordua Aloña Izarraitz eta Ford Mugarrirendako

X.U. | ARRASATE

Euskadiko Txapelketan Izarraitz Aloña Mendik eta Ford Mugarrik modu onean hasi dute liga, etxetik kanpora denboraldiko lehen garaipena eskuratuta.

Oñatiarrek 21-30 irabazi zieten Gasteizko Corazonistas taldekoei eta Arrasateko Ford Mugarrikoek beste horrenbeste egin zuten Lau Bide jatekaren kontra (25-28). Garaipen horrek lasaitasuna emango zien aste barruan, etxeko zaleen aurrean estreinatzea dagokien asteburuari begira. Hala, oñatiarrek Lau Bide hartuko dute Zubikoan eta Ford Mugarri Arrasatek Deustuko Unibertsitatekoen kontra jokatu du

tatekoen kontra jokatu du Iturripen (domeka, 12:00).

Bergarak liga hasiko du

Kategoria bat beharago, Gipuzkoako Lurraldekoan, asteburuari hasiko dute liga, eta Bergarak etxean izango du lehenengo hitzordua, Aritzbatalde taldearen kontra (zapatua, 18:30, Labegaraieta). Talde gaztea dute mahoneroek -jokalarien batez bestekoa 19 urte da-, eta taldeko beterranoenak, Dani eta Unai, min hartuta daude. "Horrenbestez, gazteek euren gain hartu beharko dute ardura", adierazi du aste barruan Muniategik.

FUTBOLA



MAITE TXINTXURRETA

Emakumezko lau talde izango dituzte Bergaran

Hamalau futbol talde izango ditu Bergarako futbol klubak aurtengo denboraldian, lau emakumezkoenak eta hamar gizonezkoenak. Jokalari guztiak klubeko ekipamendua jantzita aurkeztu zituzten zapatuan, San Martin plazan egindako ekitaldian. Camden Town dantza eskolako ikasleen ikuskizuna baliatu zuten aurkezpena bera ikusgarriago egiteko, eta, ondoren, ehunka neska-mutiko igo ziren taula gainera, Bergarako taldearen elastikoa harro erakustera.

FUTBOLA



MONDRA

Lidergoarekin estreinatu du Mondrak babesle berria

Joan den zapatuan etxean jokatutako lehenengo partidua aprobetxatu zuen Mondrak babesle berria aurkezteko: Igo Eraikin Projects. Eta, hain zuzen, modu ezin hobean egin zuten estreinaldia, talde zuri-morea dagoeneko lider dago-eta Ohorezko Preferente Mailan, Lagun Onak taldeari 1-0 irabazi ostean. Enpresa horrek Mondrako kategoria guztiak babestuko ditu, oraingoz, urtebetez, eta JMAK jarraituko du eskola kirola bultzatzen laguntzen.



Igoerako partiduan, Zubikoan. | IMANOL SORIANO

MOTORSHOW

Raul Uriarte eta Aitor Pagaldai | Arrasateko Motorshow-aren antolatzaileak

"Lasterketetan beti dago arriskua, horregatik hartu behar dira neurri zorrotzak"

- ▶ Hirugarren Motorshow-a egongo dela aurreratu dute
- ▶ Halako hitzordu baten lana barrutik azaldu dute

XABIER URZELAI | ARRASATE

Leher eginda. Halaxe iritsi ziren astelehen arratsaldean A+Gas taldeko Raul Uriarte eta Aitor Pagaldai Goiena telebistara. *Harmailatik* saioko grabazioak, baina, arnas apur bat ere eman zien, gainontzeko lagunak Garaian jarritako zirkuituan zeuden-eta, dena batzen. Ilusioz antolatutako hitzordua izan da bigarren Motorshow-a, eta babesleek ere igarri egin dutela uste dute.

Biharamun galanta, baina parrandan ibili barik?

Leher eginda gaude. Egubakoitzean hasi ginen dena muntatzen eta lan handia izan dugu asteburuan. Kontua da, baina, gauez ere ez dugula atsedetik hartu, zirkuitua zaintzeko txandak egin

ditugu-eta gure artean. Zirkuituan bertan egin dugu lo, auto barruan. **Guztira, zenbat lagun ibili zarete lanean?**

Motorshow-a antolatzen lau lagun ibili gara, baina azken orduan hainbat lagun animatu dira laguntzera, eta egunean bertan 60 pertsona izango ginen, komisarioak eta bestelakoak kontuan hartuta. Egitarau osoa jarri gura genuen, haurrendako ekintzekin, lasterketak atsegin dituztenekin, auto klasikoekin zaleekin... eta lan handia izan da.

Baina bigarren edizio honek ere merezi izan du, ala?

Bai, gustura geratu gara, eta aurreten, gainera, eguraldiak lagundu egin du. Markuleten beharrean, ikusten genuen zirkuitua Garaia

Berrikuntza Gunean jarriz gero gauzak egiteko aukera handiagoak izango genituela, zirkuitu ikusgarriagoa izango litzatekeela; pozik geratu gara emaitzarekin. **Zenbat lagun pasatu da asteburuan bertatik?**

Oraindik ez dugu zenbaketa egiteko astirik izan, eta ez da erraza, gainera. Gutxi gorabehera, 1.500 lagun inguru ibili da asteburu osoan.

Badago motorrerako zaletasunik hemen?


Bai, hemendik jende asko joaten da lasterketetara eta halakoetara. Akaso, halako *show* edo erakustaldiak ez dira oso ohikoak, baina uste dugu jendea pozik geratu dela, bai ikusleak eta baita pilotuak ere.

Ikasketa amaierako proiektu moduan jaio zen ikuskizun hori, eta dagoneko bi edizio egin dituzue.

Bai, aurtengoa iazkoaren jarripena izan da; hau da, ikasketa-proiektu horrekin aurrera egiten jarraitzen dugu. Datorren urtean, berriz, unibertsitate ikasketak amaituta izango ditugu, eta hirugarren edizioa egiten badugu, Motorshow-ak berak beste izaera bat hartuko du.

Horrenbestez, hirugarren edizioa antolatzeko gogoz?

Oraindik ez dugu gure artean berba egin, bigarrena amaitu berri dugu eta oraindik dena dugu jasotzeko, balorazioa egin



Raul Uriarte eta Aitor Pagaldai. | X.U.

behar dugu, jendearen iritzia hobeto jaso... Baina bai, bigarren edizio hau ilusio handiz antolatu dugu, eta pentsatzen dut hirugarrena ere egongo dela.

Prestatutako ekitaldi guztietatik, zerk izan du arrakasta handien?

Bada, orain momentuan ez dakigu esaten, gutako bakoitza gune konkretu batean lanean ari zelako eta beste ezertaz enteratu ez garelako [Barre]. Uste dugu onena izan dela zaletasun guztiak ase ahal izan ditugula: auto klasikoekin zaleena, abiadura eta derrapatzeak atsegin dituztenena... Haurren guneak ere harrera oso ona izan zuen [Barre].

Galiziako rally batean duela aste batzuk egondako istripu larriak izan du zuen proba antolatzeko orduan eraginik?

Bada, ez dut uste. Gertakari larria izan da Galiziakoa, eta komuni-

kabideetan oihartzun handia izan duena. Garbi dago kirol arrisku-tsua dela hau, automobilak abiadura bizian ibiltzen direlako. Eta, hain zuzen, arriskua egon bada-goelako jarri behar dira segurtasun neurri zorrotzak. Udaletik eskatutako guztia betetzeaz batera, baimenak, aseguruak... Kontu handiz jarritako zirkuitua izan da, ondo neurtuta ikusleak non jar zitezkeen eta non ez; ardura handia izan dugu horretan.

Babesleak, ezinbestekoak.

Bai, eta eskerrak eman gura dizkiegu. Ate joka joan garenean oso ondo hartu gaituzte denek, eta euren laguntzari esker antolatu ahal izan dugu hau guztia. Uste dut ikusi dutela proba antolatzeko ilusio handia geneukala, eta eurak ere kutsatu egin ditugu. Euretako batzuk, gainera, Motorshow-an bertan egon ziren.



Zapatuan, Motorshow ikuskizuneko une bat. | IMANOL SORIANO

MENDIA

Chamlang mendiaren ipar aurpegia da WOPeak espedizioaren hurrengo erronka

Eguaztenean iritsi ziren Iñurrategi eta konpainia kanpamentu nagusira



Alberto Iñurrategi, Juan Vallejo eta Mikel Zabaltza kanpamentu nagusira bidean. | WWW.WALKONPROJECT.ORG

X.U. | ARRASATE

Alberto Iñurrategi, Juango Vallejo eta Mikel Zabaltzak dagoneko eman dute esku artean daukaten proiektua gauzatzeko lehenengo pausoa, aste barruan iritsi dira-eta Chamlang mendiaren kanpamentu nagusira (Himalaia, Nepal, 7.319 metro).

WOP espedizioaren zarpigarraren proiektua da, eta argi dute egin beharrekoa: askorendako ezezaguna den mendi hori ipar aurpegitik eskalatzea.

Paraje ezezagunetan barrena

Esperientzia handiko mendizale horiendako ia dena izan da berria paraje berri horretan, eta aste-bete behar izan dute kanpamentu nagusira iristeko. Ezohikoa bada ere, harkaitzean beharrean belar gainean finkatu dute kanpamentu hori: "Katmandutik hona,

ezagutzen ez genuen bide batetik etorri gara. Lehenengo egunak gogorak izan ziren, euri asko egin zuelako eta behe-lainoaren eraginez itsu-itsuan etorri garelako", azaldu du Aretxabaletakoak.

Hainbat egunetako trekingaren ostean 4.600 metroko mendi-lepoa gainditu behar izan dute, eta 5.400 metroko beste tontor bat. Garaierara egokitzen joateko baliatu dituzte saio horiek: "Ondo gainditu ditugu, baina hasiera zakarra izan dugu". Hala, bidearen erdi ingurutik aurrera inguru menditsuagoaz egin dute topo: "Azken egunean ere behe-laino oso itxia izan dugu, ezer ez genuen ikusten, baina egunak aurrera egin ahala zerua ireki egin da, eta harritura geratu gara bertako paisaiaz, ikusgarria da". Egun hauek mendia zelan eskalatu aztertzeke baliatuko dituzte.

IGERIKETA

Jon Mujika azkarrena Flisch Beltza igeriketa zeharkaldian

XABIER URZELAI | BERGARA

Joan den zapatuan egin zuten II. Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia eta Jon Mujika bergararra izan zen distantzia luzeko proban azkarrena -7.000 metrokoan-.

Hasiera batean, distantzia motza Mutriku eta Deba artean egin behar zuten -3.000 metro-, eta luzea Saturrarango hondartzatik Debara. Baina antolatzaileek azken orduko aldaketak egin behar izan zituzten.

Itsasoa, zakar

Itsasoaren egoera txarra zela-eta antolatzaileek ibilbidea aldatzeko erabakia hartu zuten, eta igerilariek Debako ibaian bertan burutu zituzten metro horiek

guztiak, itsaso zakarretik babesean. Aurreratu moduan, distantzia luzeko igeriketa saioan Jon Mujika igerilari bergararra nagusitu zen, 1.26ko denbora eginda, eta, kontrario gogorak izan bazituen ere, esaterako, distantzia luzeetan espezialista den Jaime Caballerori (1.28.26) bi minutu eta erdiko tartea atara zion.

Bergarako zeharkaldiaren hasieratik aurreratu zen, eta halaxe egin zuen lasterketa osoa, aurretik ihes eginda. Hala, igeriketako azken bi zeharkaldietan -Kontxan eta Bermeon- bigarren postua eskuratu ostean, denboraldiko azken lasterketan lortu du garaipena Mujikak.



Iaz, Mondranbike martxaren irteera. | IMANOL SORIANO

MENDI BIZIKLETA

Hiru mendi bizikleta martxa antolatuko dituzte urrian: Oñatin, Arrasaten eta Bergaran

X.U. | ARRASATE

Urriaren 11n egingo dute, Oñatin, Iban Altuberen omenezko mendi bizikleta martxa, baina ez da bakarra izango, hil honetan hiru martxa egongo dira eta. Martxa soila baino gehiago izango da Oñatikoa, bizikleta jai bat, eta gaztetxoenei ere bizikleta bueltatxo egiteko aukera emango diete antolatzaileek. Nagusiak 09:00etan

abiatuko dira, omenaldiaren ostean, eta 36 edo 30 kilometroko bi ibilbide izango dituzte aukeran.

Arrasaten eta Bergaran

Urriaren 17an, ostera, Arrasaten hartuko dute erreleboa, Mondranbike martxa antolatuta. Eta, hileko azken egunean, 31n, Bergarako Palmerakuek antolatuko dute hiruretako azkena.

PILOTA

Mikel Deuna Pilota Txapelketako finalak etzi

X.U. | OÑATI

Domekan (17:00) jokatuko dituzte Mikel Deuna Pilota Txapelketako finalak Oñatin -Gipuzkoako Txapelketa-, eta jaialdia hasteko erakustaldi berezi bat egongo da: gurpil aulkiko gomazko paleta partiduak egongo dira ikusgai; hain zuzen, Oretetako Mindara elkarteok eta Usurbilgo Pagaspekoak izango dira erakustaldia egiten. Lau pilotari izango dira; horietako hiru gurpil aulkian daude eta besteak protesia dauka; hala, ezinezkorik ez dagoela erakutsiko dute.

Kadeteak eta gazteak

Ondoren etorriko dira finalak. Kadete mailan, Gasteizko Uribe eta Donostiako Miguez pilotariak Urrietako Osa eta Markinako Ibarloza izango dituzte aurrean.

Gazte mailan, ostera, Arrasateko pilotari bat izango da finalean: Garate, hain zuzen. Garatek Andoaingo Usandizagarekin osatuko du bikotea, eta Alegiko Irazustabarrena eta Itziarko Salegiren kontra neurtuko dituzte indarrak.



Jon Mujika, podiumeko lehen postuan. | MIKEL MUJIKA

AZKENEKO ERAIKINA
ARRASATE / URIBARRI

Baldintza berriak
943 31 68 68
www.sukia.com

2x
3x

Logelak



Garaje itxiak

Espazio osagarri
batekin

Bista irekiak



Hornitutako sukaldeak



Armairuak

sukia GEDI

FINANTZAKETA:





Miguel Angel Elkoroberezibar, liburuaren lehen aleak eskuetan dituela. | M.A. ELKOROBEREZIBAR

Simon Arrieta margolariaren bizitza eta obrak liburu batean bildu dituzte

Urriaren 7an bere azken lanaren aurkezpen irekia egingo du Miguel Angel Elkoroberezibar idazleak, 19:30ean, Bergarako udaletxeko batzar aretoan

A.A. / M.T. | BERGARA

Simon Arrietaren ibilbide biografiko eta artistikoa biltzen duen liburuaren lehen aleak irten dira inprentatik dagoeneko. Miguel Angel Elkoroberezibar bergararrak 192 orritan bildu ditu, besteak beste, 60 elkarrizketatik jasotako testigantzak, sasoi askotariko argazkiak eta artistaren 150 margolan.

"Hasieratik oso garbi neukan ez zela katalogo soil bat izango. Arima izango zuen liburua nahi nuen, bizirik dagoena", dio Elkoroberezibarrek, eta azaldu du dokumentazio prozesua "oso luzea" izan dela. Idazteko, "arte munduan jantzi" beharra izan du, eta uste du liburuari esker Simon Arrietak Euskal Herriko panorama artistikoa "bere lekua berreskuratzea" lortuko duela.

"Arrietak, Parisen aritu eta Madrilén 50eko hamarkadako lehenengo urteetan izugarriko arrakasta lortu arren, bere gogoz nahiago izan zuen jaioterrik ez aldendu", dio Elkoroberezibarrek, eta, horregatik, Bergarako udaletxeko batzar aretoan egingo du liburuaren aurkezpen ofiziala, eguaztenean, 19:30ean.

Idazlearen hitzetan, Arrietak "biziki" maite zuen bere herria, baina baita herriak bera ere. "Arrietak bere zaletasuna zabaldu izana da haren meritu handia, bere estudioa ireki baitzuen probintziako gazte, margolari eta zale askori", azaldu du. Pintoreak egindako lanari esker, gainera, haren ikasleetako askok, maisu bihurturik, "Bergarako pintore eskolari segida" eman diotela ere esan du Elkoroberezibarrek.

Bergarako Udalaren eskutik argitaratuta, eta Bearten eta Foru Aldundiaren laguntzarekin, *Simon Arrieta 2015-1969* liburuaren 1.000 ale kaleratuko dituzte. Salneurria 15 euro izango da eta Elkar dendetan, Bergarako kultura etxean eta Laboratorium museoan erosi ahal izango da, baita aurkezpenean bertan ere.

Erakusketa ere prest

Liburuaz gain, Arrietaren 32 obrarantz 29 olio-pintura eta hiru marrazki- osatuko erakusketa ere aterako dute argitara. Hain zuzen ere, urriaren 8an 19:30ean inauguratuko dute, Donostiako Koldo Mitxelena kulturagunean, eta azaroaren 14ra arte egongo da.

Azaroaren 20tik abenduaren 20ra, berriz, Bergarako Aroztegi aretoan izango da ikusgai.

'Loreak' izango da Espainiaren ordezkaria Oscar sarietarako

Aitor Arregi: "Amerikarrak euskaraz egindako film bat ikusten irudikatzea zoragarria da"

T.M. / M.T. | DEBAGOIENA

Loreak Hollywoodeko bihotzera bidean da dagoeneko. Izan ere, Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzendutako pelikula aukeratu du Espainiako Zinemaren Akademiak datorren urtean banatuko diren Oscar sarietan ingelesez ez den pelikula onenaren atalean lehiatzeko. Euskaraz egindako filmik ez da sekula iritsi hain urrun, Oscar sarietarako lasterketan.

Twitter bidez jakin zuten albistea martitzenean, eta ekoizpen eta gidolari lanetan ibili den Aitor Arregik azaldu duenez, "oso pozik" dago lantalde osoa. "Amerikarrak euskaraz egindako film bat ikusten irudikatzea zoragarria da", esan du Arregik, baina argitu nahi izan du hizkuntza bigarren mailako faktorea dela filmaren

balioari dagokionez, eta filmaren kalitatean jarri behar dela arreta. Gaineratu du duela urte batzuk euskal zinemaren alde egindako apustua orain ari dela fruituak ematen, eta *Loreak*-en parean badela kalitatezko euskal pelikula sorta bat.

Abendu erdialdera, mundu osotik aurkeztutako lanen artean bederatzi aukeratuko ditu Ameriketako Estatu Batuetako Akademiak, eta horietatik bost izango dira behin betiko hautagaiak. Badakite ez dela erraza izango, baina... "zergatik ez?", dio Arregik. "AEBetan erakutsi dugunetan, ondo funtzionatu du; beraz, hegoak moztu behar badizkigute, egin dezatela beste batzuek, geuk ez dizkiogu geure buruari moztuko". Bitartean, lanean jarraituko dute *Loreak* munduari ezagutarazten.

Zabalik da Durangoko Azokako Ahotsenean izena emateko epea

XABIER SANTXEZ | DEBAGOIENA

Aurreko urteetan bezala, euskaraz eginiko lanak izatea eta 2015ean argitaratutakoak, horiek izango dira aurten ere Ahotsenean parte hartzeko derrigorrez bete beharreko bi baldintzak. Atzo zabaldu zuten izen ematea. Lanak zuzeneko kontzertuen, solasaldien, errezitaldien zein performanceen bidez aurkeztu ahal izango dira eta 30 minutuko aurkezpena izango du sortzaile bakoitzak.

Eskaerak posta elektronikoz bakarrik egin daitezke, lanak

info@ahotsenea.net helbidera bidalita. Izen-ematea betetzeko, Ahotsenearen webgunean dagoen fitxa teknikoa ere atxiki beharko dute eskaera egiten dutenek. Zalantzak argitzeko, antolatzaileek 615 70 58 52 telefono zenbakia jarri dute.

Aurten, egun gehiago

Durangoko Azokaren baitako sortzaileen guneak aurten bost egunez izango ditu ateak zabalik, eta sortzaileek abenduaren 4tik 8ra bitartean aurkeztu ahal izango dituzte lanak.

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko irailako zozketetako irabazleak



TELEBISTA
Mertxe Cantero Peinares (Oñati)

HARREMAN DENDAKO OTARRA
Julian Errasti Azurmendi (Arrasate)

PETER PAN DVD-A
Itsaso Lazpiur Ibarzabal (Bergara)

GERARDO MARKULETAREN LIBURUA
(Denbora bere lekura)
Kristina Atxa Gallastegi (Bergara)

ARDIBIDEZ ETA KIROLAZ BADAKIT JOKOA
Jose M. Iñarra Kortabarria (Arrasate)

ARRIKRUTZERAKO SARRERAK
Amaia Irizar Aranburu (Bergara)
Josu Larrañaga Larrañaga (Aretxabaleta)
Larraitx Arabaola Landa (Bergara)

RUPER ORDORIKAREN KONTZERTURAKO SARRERAK
Jesus Mari Markinez Legarda (Oñati)

ELKARTASUNA EGUNERAKO SARRERAK
Luken Martin Izurtegi (Aretxabaleta)

ZINEMALDIRAKO SARRERAK
Marta Martin Larrañaga (Arrasate)
Antonio Zabala Puy (Bergara)

JAZZ EMANALDIRAKO SARRERAK
Aintzane Perez Ugarte (Arrasate)

ALFOST TALDEAREN ANTZERKIRAKO SARRERAK
Aitor Umerez Ezeola (Oñati)
Jasone Uribesalgo Zugasti (Aretxabaleta)

JATETXETAKO OTORDUAK
• MAULANDA
Kristina Arriaran Arregi (Arrasate)
• GOXO-GOXUAKO TARTA
Iker Arroio Sanchez (Arrasate)
• HILARION
Jabier Uribetxebarria Bolinaga (Arrasate)
• MENDIOLA
Maixa Arozena Irastorza (Aretxabaleta)
• ERREKA
Jose Mari Balzategi Juldain (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzteko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikruzteko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe mugari izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Araotz Auzoa, OÑATI, 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) **Harreman dendako otarrak.** Otarra jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Beste sariak.** Zatoz, GOIENAREN egotzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otarora Lizentziaduna, Arrasate. 943 25 05 05. Orduetgia: Asteleheneetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Asier Altuna 'Kixi' | Zinema zuzendaria

"Niretako, saria baino garrantzitsuagoa da jendearen berotasuna"

- ▶ Urriaren 16an estreinatuko dute 'Amama' zinemetan
- ▶ Euskal Zinemaren Irizar saria jaso zuten Zinemaldian

A.A. / M.T. | DEBAGOIENA

Asier Altunarentzat (1969), bakar-ka zuzendutako lehen fikziozko lana izan da *Amama*, baserriaren eta belaunaldien arteko talka hizpide duen filma. Zinemaldian erakutsi zuten lehen aldiz, irailaren 21ean, eta, ikusleen harre-ara onaz gain, Euskal Zinemaren Irizar saria jaso du.

Ezer baino lehen, zorionak! Zer moduz zaude?

Pozik, oso pozik. Zinemaldia txukun joan da eta oso gustura gauda jasotako sariarekin, baina, batez ere, jendeak egindako harre-ara onarekin. Ikusleak pozik eta hunkituta atera dira zinema aretotik, eta, azken batean, hori da garrantzitsuena.

Euskal Zinemaren Irizar saria jaso duzue; ze garrantzi ematen diozue horri?

Ondo etortzen da sariak jasotzea, eta, egia esan, asko poztu nau, errekonozimendu puntu bat ematen dutelako. Ongietorriak dira, baina ni ez naiz horren zain egoten. Niretako, saria baino garrantzitsuagoa da jendeak pelikula nola hartzen duen ikustea eta

jendearen berotasuna sumatzea. **Izan duzu aukerarik beste filmak ikusteko?**

Gehienbat, lanean ibili naiz, kazetarien galderak erantzuten, eta estreinaldira begira ere bilera dezente izan ditugu. Beste zinemaldi batzuetarako prestatzen ere aritu gara, eta kanpoko banaketa antolatzen. Horregatik, pelikula gutxi ikusteko aukera izan dut, baina kusi ditudanako oso gustura ikusi ditut. Nabarmenduko nuke *Truman*, asko gustatu zaidalako. Euskaldunak ez dut ikusi, baina zinemetan estreinatzen direnean ikusiko ditut.

Amama Europara zabaltzeko helburua zenuten Donostiako Zinemaldian; zer moduz joan dira harremanak banatzaileekin?

Espainiako Estatuan lotuta daukagu dagoeneko banaketa, Golem

-ekin, eta, gainera, Zinemaldi ostean segituan estreinatzeak lasaitasuna ematen du. Pelikula kanpoan banatzea, ordea, ez da oso erraza izaten. Hala ere, izan dugu harremana banatzaile turkiar batzuekin eta suediar batzuekin ere bai, baina, batez ere, sortu diren aukerak izan dira pelikula jaialdietara bidaltzekoak. Urriaren 23an bertan Erromako zinema jaialdi garrantzitsu batean lehiatuko gara, eta hori izango da Europako zinemaldietan *Amama* ikusteko lehen aukera. Ondoren Frantziara, Marokora, Txekiara eta AEBetara joateko gonbidapenak ere jaso ditugu; horrenbestez, pelikula mugitzen hasi dela esan daiteke.

Zinemaldiarentzako esker hitzak izan zenituen ahotan saria jasotzean.

Jose Luis Rebordinos beti egon da gure gainean, zer egiten ari garen galdetzen, eta beti geure lanen zain. Konfiantza horrek asko laguntzen du pelikulak egiteko orduan, ziurtasuna ematen duelako. Momentuan ez nuen aipatu, baina Kimuak egitasmoak



Asier Altuna, Euskal Zinemaren Irizar saria eskuetan duela. | HARTZ DENDATEGI

EMANALDIAK

ARRASATE

Urriak 16. 20:30.

Urriak 17. 19:30, 22:00.

Urriak 19. 20:30.

OÑATI

Urriak 16. 22:30.

Urriak 17. 22:30.

Urriak 17. 19:30, 22:30.

Urriak 19. 19:30.

ARETXABALETA

Urriak 29. 19:30.

Urriak 30. 22:00.

Urriak 31. 20:30.

Azaroak 1. 19:30, 22:00.

Azaroak 2. 16:00.

eta Txema Muñozek berak ere asko lagundu digute ibilbidean. **Loreak Oscarretarako bidean dela jakin berri dugu. Zer sentimendu sortzen dizkizue horrek?**

Asko pozten nau, lagunak direlako, eta euskaraz egindako pelikula batek bide hori hartzea oso gauza ederra da.

Esperantza berriak sortzen ditu albiste horrek Amama-rentzat?

Loreak bidea zabaltzen ari da eta gu atzetik goaz. Ez bakarrik Zinemaldian izan zuen harreragatik; mundu osoan zehar ezagutzen dute dagoeneko euskal zinema, eta orain, eurek atea zabaltu zituztelako joango da *Amama* zinemaldi askotara. Hortaz, albiste ona baino ezin da izan guretzat. **Filma bailaran erakustea pozgarria izango da, ezta?**

Bai, noski. Gainera, Arrasateko emanaldian egoten saiatuko naiz estreinaldi egunean. Dena den, pena ematen dit filma Bergaran estreinatze behar bezalako aretorik ez izateak.

Zapatuan ekingo diote Nazioarteko Organo Zikloari

Hamaseigarren edizioa da aurtengoa eta Bergaran lau kontzertu egingo dituzte

MAIALEN TORRES | BERGARA

Angel San Bartolome tronpeta-jotzaileak eta Jose Santos de la Iglesia organo-jotzaileak emango diote hasiera aurten Organo Erromantikoaren Nazioarteko XVI. Zikloko Bergarako kontzertu sortari. Bergarako gainontzeko guztien moduan, Santa Marina parrokiaren eta dohainik izango da lehen emanaldia, 20:00etan.

Dena den, beste hainbat emanaldi ere prestatu dituzte urri-rako. Hurrengoa hilaren 10ean izango da, toki eta ordu berean. Bernhard Marx organo-jotzaile alemaniarrek Cesar Francken eta Louis Vierneren piezak joko ditu, besteak beste, eta Noel Rawsthorne konpositore britainiarren *Hornpipe Humoresque* obrarekin itxiko du kontzertua.

Etxeko artistek izango dute Bergarako kontzertu sortari

amaiera emateko ardura. Aritzeta abesbatzak Aitor Olearekin elkarlanean eskainiko du emanaldia, urriaren 17an, 20:00etan.

Ikasleen emanaldia

Azpeitiko eta Bergarako musika eskoletako organo ikasleek ere eskainiko dute kontzertua zikloaren barruan, urriaren 17an. 11:00etan izango da, eta Arantxa Sagarzazuk, Elena Lakak, Ignacio Arakistainek, Leo Joaristik eta Mikel Arenasek J. S. Bachen eta J. M. Usandizagaren piezak joko dituzte, besteak beste.

Hiru herriren arteko elkarlana

Urtero bezala, Azkoitian eta Azpeitian ere izango du presentzia zikloak, eta hiruna kontzertu eskainiko dituzte Jasokundearen parrokiaren eta Loiolako basilikan.

Antzuolan ospatuko da aurten Artekale

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolako kaleak artez blai bustiko dira urriaren 18an, domekan. Izan ere, Artekale eguna aurten Antzuolan izango da. Hala, Euskal Herriko arteaz Antzuolako kaleetan barrena gozatzeko aukera izango dute debagoiendarrek artearen festaren laugarren edizio honetan.

Ekintzaz betetako egitaraua prestatu dute. Hala, ekin-tza nagusia 12:00etatik 14:00etara bitartean egingo da. Euskal Herriko hainbat kale antzerki talderen eskutik antzerki emanaldi txikiak izango dira herriko hainbat gunetan.

Arratsaldean, aldiz, familia osoarendako bi ikuskizun izango dira: 17:00etan eta 18:30ean egingo dira emanaldiak, hain zuzen ere.

Segi bertsolaritzaz gozaten, mila esker!

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATIKO BERTSO ESKOLA | OÑATI

Bi saio, zortzi bertsolari. Gai-jartzaileak eta gai-emailea. Soinu teknikariak eta antolatzailak. Eta, nola ez, entzuleak.

Gaur, egubakoitza, Herri Egun bezperan, sei bertsolarik egingo duten saioa noiztik ote dator? Hau idazten dugunok betidanik ezagutu dugu. Uda aurretik bertso eskolako kide guztien artean bozketa prozesu bat zabaltzen dugu, demokratikoa erabat, zortzi bertsolari aukeratzeko ditugu, boto gehien jaso dituzten bertsolariak etorriko dira kantura Zubikoa pilotalekura gaur, eta Kale Zaharrera domekan. Tartean bi oñatiar, Maider eta Andoni oraingoan, bertso eskolak ere fruituak ematen dituelako.

Gaur gaueko hamar eta erdiak pasatxo, sei bertsolari eta gai-emailea oholtzara igoko dira, entzuleen txaloak. Gai-jar-

tzaileak entzuleekin batera publiko artean eserita izango dira, gaiak ez baititu aurkezle edo gai-emaileak bakarrik pentsatzen, bertso eskolako gai-jartzaile taldeak baizik. Gainera, adi-adi jarraitzen dute saioa gaiak funtzionatu duten edo ez aztertuz.

Gaurkoa eginda, balkoitik balkoirakoa igandean. Lizaso eta Zubeldia bat-batekotasunari ahotza eta doinua jartzen. Iluntzeko zortzi eta erdiak, ireki balkoirako atea eta has dadila festa.

Batean zein bestean soinu teknikariak eta antolatzailak eskutik lanean, bertsoa batez ere entzun egin behar delako, eta entzundakotik nork bere marrazkia egin dezala.

Gauerdia pasatu da. Agurren txanda da. Entzuleek azkeneko eskuak astinduko dituzte, edo dituzte, edo ditugu... Segi bertsoaz gozaten, mila esker!

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Baserria salzten da kale ondoan eta prezio onean. 607 63 48 23

Oñati. Ugarkalde auzoan babes ofizialeko etxebizitza salgai garajearekin eta trastelekuarekin. Sukaldea, hiru logela, bi komun eta egongela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 79 06 93

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdialdean apartamentu berria ematen da errentan. Logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Trasteleku ere bai. Pertsona batendako nahiz bikoteendako aparteko. Hilean 530 euro. Kontratuarekin. 639 17 49 52

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Uribe auzoan. 680 58 01 27

Leintz Gatzaga. 99 metro koadroko duplex xarmagarria salgai edo errentan Leintz Gatzagan. Distribuzio irekia. Bi komun eta hiru logela. Beheko sua eta trasteleku. 615 00 67 21 (Alberto)

Oñati. Erdialdean lau logelako etxebizitza ematen da errentan. Igozailurik ez. 696 40 38 82

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan San Lorenzo auzoan. Toki oso eguzkitsuan. Jantzia. Harremanetarako deitu telefono honetara: 687 00 54 79

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Datorren ikasurtean Aretxabaletan ikasiko dut. Etxebizitza bila nabil. Xabier. 616 96 61 46

Arrasate erdialdean. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan, Arrasate erdialdean. Jantzi gabe badago hobeto, etxetresnak eta altzariak baditugu-eta. 675 70 24 17

Arrasate. Bikote gazte batek etxebizitza errentan hartuko luke Arrasaten, jantzia eta ekonomikoa. Kontratu ezinbestekoa. 606 66 80 21

Arrasate. Etxebizitza jantzia behar dut errentan, erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. Presazkoa da. 627 60 49 99

Arrasate. Familia batek etxebizitza behar du errentan. Gutxienez bi logelakoa. 610 67 45 15

Baserribila. Baserria errentan hartuko genuke urtariletik aurrera. Bailaran edota Durangaldean izan daiteke. 653 71 78 82 (Amaia)

Bikote gazte errenta bila. Bergarako bikote bat gara eta etxebizitza bat errentan hartuko genuke. Deitu arratsalde. 678 47 43 54 edo 943 76 50 97

Oñati. Bi oñatiar langile, arduratsu eta txukunek etxe bat errentan hartu gura dute Oñatin. Gehienez ere 400-450 euro ordaintzeko gertu. 685 73 06 80

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Erdigunean logela ematen da errentan. Telesistarekin eta zarrailarekin. 603 14 28 89

Arrasate. 30 urte inguruko hiru langile euskaldun gara eta logela bat daukagu errentan emateko lau logelako duplex batean. Prezioa 200 eurokoa da hilabetean, eta barne hartzen ditu gastu guztiak: ura, argia, berokuntza, internet, garbiketa eta abar.

679 84 49 20 (Maider) edo 677 44 82 85

Arrasate. Logela ematen da errentan Cordoba y Oro kalean, San Andresen. Pertsona ez erretzailea eta arduratsua izatea eskatzen da. 648 00 86 55

Arrasate. Logela ematen da errentan Grupo San Juanen. Pertsona bakarra bada, hobeto. 691 28 53 25 edo 627 24 62 76

Arrasate. Logela ematen da errentan partekatutako etxebizitza batean, Arrasate erdigunean. 608 49 89 93 (Iñaki)

Logela bila. Debagoienean edo Debabarrenean pertsona batendako logela behar dut errentan. Errolda agiriarekin. 631 29 77 31

Pixukide bila. Iepa! Logela bat libre daukagu. Errenta 185 euro da. Zubieta kalean, terraza eta guzti. Animatu! 605 74 78 29

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. 20 metroko garaje itxia salgai, Ibargarai 39 kalean, prezio onean. 607 63 48 23

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garajea hartuko nuke errentan. 669 90 95 95

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Neska koadrilla batek lokala hartuko luke errentan. 680 29 99 79 (Amaia)

4. LANA

401. ESKAINTZAK

BERGARA

Zerbitzaria behar da tabernarako.
669 53 97 03

ARRASATE

Esperientziadun ile-apaintzailea behar da.
Egun osoz.
943 08 10 68

Umeak zaintzeko. Neska euskaldun bat behar dugu bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Lanaldi erdia eta goizez. 652 71 74 49

402. ESKAERAK

Arrasate. Arrasateko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. 667 90 50 49

Arrasate. Arratsaldetan, orduka, nagusiak zainduko nituzke. 622 24 86 64

Arrasate. Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. Urte askotako esperientzia dut laguntza lanetan. Orduka, astelehenerik ostiralerara lan egingo nuke. 607 72 75 61 (Bego)

Arrasate. Logela hartuko nuke errentan, bertako jendeararekin. Kontratuarekin. 647 28 92 34 (Fausto)

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

Arrasate. Mutilagertu etxean bertan bizitzaren nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. Bestela, eraikuntza ere lan egingo nuke. 678 25 95 46

Arrasate. Orduka lan egingo nuke garbitzen, tabernan eta abarretan. 691 28 53 25

Bergara edo Arrasate. Haur Hezkuntzako ikaslea, esperientziaduna, arratsaldez ume bat zaintzeko gertu. Informazio gehiagorako deitu zenbaki hone-

tara: deitu telefono honetara: 645 70 23 37

Bergara. Bergarako emakumea arratsaldetan nagusiak paseatzen ateratzeko gertu. Bost euro orduko. 628 54 02 41

Bergara. Bergarako neska bat naiz. Haur hezkuntzako ikaslea. Aurtengo ikasurtean arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 618 36 80 60 (Ane)

Bergara. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko.

Esperientziaduna. 631 33 83 75 (Hilda)

Debagoiena. Arrasateko neska euskalduna prest etxeko lanak egiteko eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 634 81 54 93

Debagoiena. Arrasaten bizi eta pertsona nagusien eta umeen zaintzan esperientzia duen emakumea naiz. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan egingo nuke. Umeei ingelesa ere irakatsi diezaiet. Orduetegi aldetik inongo arazorik gabe. 602 16 00 28

Debagoiena. Bertako mutila gertu margotzen, tabernari edo nagusiak zaintzen jarduteko. 697 88 35 62

Debagoiena. Erizain laguntzaile ikasketak dituen gizona gertu nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bertan bizitzaren, egunez edo orduka. Erabateko prestutasuna. 631 17 16 35

Debagoiena. Erizain laguntzailea gertu nagusiak orduka zaintzeko. Esperientziaduna. 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia handia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Etxeko lanak egiten eta janaria prestatzen ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Orduka erlan egin dezaket. 662 43 08 54

Debagoiena. Garbiketan edo ume eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka. 634 26 10 92

Debagoiena. Gertu nago garbiketa lanetan jarduteko: etxe, atari, lantegi eta abarrik. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. 632 77 35 38 edo 645 72 92 87

Debagoiena. Mutila gertu etxean bertan bizitzaren nagusiak zaintzeko. Garbiketarako eta tabernari lanak ere egingo nituzke. 685 64 85 64

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Etxean bertan bizitzaren, egunez edo orduka. 642 03 51 84

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Soldatzen eta tailerretan ere arituko naiz. Autoa daukat. 697 98 31 30 (Victor)

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. 632 12 65 40

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo etxe, lantegi eta abarren garbiketarako egiten lan egingo nuke. 631 15 76 23

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukalde laguntzaile arituko nintzateke. Esperientzia dut arrandegi eta harategian. 675 58 75 21

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusi eta umeak zaintzeko gertu. 609 18 87 32 (Paola)

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onak dituen, lanerako gertu. Nagusi eta umeak zaintzen edota etxeko lanak egiten arituko nintzateke. 688 85 44 78 edo 631 49 94 96

Debagoiena. Neska arduratsua, lege paperak dituen, gertu nagusiak zaitdu, garbiketarako egiten lan egingo nintzateke. Etxean bertan bizi izaten edo. Autoa daukat. 697 20 00 86

Debagoiena. Neska arduratsua, lege paperak eta gida baimenak daukane, gertu nagusiak zaitdu. Etxean bertan bizi izaten, egunez eta baita ordezkapenak egiten ere. Ilea-apaintzaile eta sukaldean ere aritu naiteke. 631 78 42 27

Debagoiena. Neska gertu etxean bertan bizitzaren nagusiak zaintzeko. Autoa daukat. 666 26 75 08

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko zein sukaldean laguntzeko. Erreferentzia onak ditut. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

Debagoiena. Neska gertu orduka lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketarako, sukaldari zein tabernari. 610 99 70 46

Debagoiena. Neska lan bila. Esperientzia dut jangelako zer-

bitzari moduan, etxe, atari eta abarren garbiketan eta tailerretan. 616 09 37 90 (Eva)

Debagoiena. Neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizitzaren zein orduka. 697 86 49 00

Debagoiena. Pertsona nagusiei laguntzen lan egingo nuke: bazkari-afariak gertatu, etxeko lanak egin, enkargu edo medikuarengana lagundu, paseatzen eta abar. Bertako bazkaria egiten badakit. Sukaldaria naiz. Esperientziaduna. 635 28 38 11

Debagoiena. Zerbitzari lanetan edota nagusiak zaindu eta garbiketarako lanetan arituko nintzateke. Leonarda Arandia. 629 29 11 23

Emakume euskalduna. Emakume euskalduna atariak, lokalak, tabernak, etxeak eta abarrik garbitzeko prest. Baita partikularrei etxea txukundu eta janaria prestatzeko gertu. 605 74 03 00 edo 943 76 06 10

Emakume euskalduna. Emakume euskalduna garbiketarako egiteko prest: atariak, tabernak, etxe partikularrik eta abar. Eskarmentua nekazaritza-turismoko lanetan: logelak atondu, gosariak zerbitzatu eta bestelakoak. 690 86 46 80

Ile-apaintzailea. Ilea-apaintzaile eta estetizista lanerako prest Debagoienean. 605 72 64 43

Lan bila. 27 urteko neska lan bila. Hiru urteko esperientzia zerbitzari lanetan. Umeak zaintzen, dendari, edota etxe zein atariak garbitzen lan egingo nuke baita ere. Debagoienean edo Eibarren. Mila esker. 676 44 85 58

Lan bila. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko Antzuolan, Bergaran, Arrasaten zein Elgetan. Autoa daukat. 642 88 07 31

Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. 24 urteko neska euskalduna, Arrasate eta inguruetan haurrak zaintzeko prest, goizez edo arratsaldez. Haur Hezkuntzako titulua eta eta esperientzia handia. 638 71 50 66 edo 943 79 88 58

Oñati. Emakume euskalduna gertu arratsaldetan umeak zaintzeko. 645 00 07 23

Oñati. Hezkuntza bereziko alorretik, lehen hezkuntzako ikasketak HUIEZIn burutzen ari naizen Oñatiko neska bat naiz. Aurtengo ikasurtean zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Haurrekin esperientziaduna. 664 65 12 15

Zaintza eta garbiketa. Arrasateko emakumea, etxetan zein egoitzetan nagusien zaintzan 9 urte baino gehiagoko lan esperientziarekin, gertu nagusi eta umeak zaintzeko edota etxe garbiketarako egiteko. 696 04 67 20 (Mirian)

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Pertsona bat behar dugu DBH 3. mailako eskola partikularrek emateko. Batez ere matematikan. 605 71 50 14

Ingeniaritzako eskola partikularrik. Ingeniaritzako 2. mailako eskola partikularrik jasoko nituzke Bergaran. Batez ere ikasgai hauetan laguntza beharko nuke: mekanika, estatistika eta matematika III. 638 86 82 53

Oñati. Bi neskarik batxilergoko lehenengo eta bigarren mailako

eskola partikularrik emango dizkien norbait behar dugu. Batez ere matematikan eta fisikan. 627 91 23 21

502. EMAN

Arrasate. Umeendako yoga eskolak ematen dira. 615 72 51 70 (Ana)

Bergara. Kimika, fisika eta matematika eskola partikularrik ematen ditut. Batxilergo eta DBH mailatan. 669 51 08 46

DBH eta Batxilergorako eskola partikularrik. Euskara, gaztelania, ingelesa eta oro har giza zientziak irakasteko esperientziadun irakasle oñatiarra, Debagoienean eskola partikularrik emateko gertu. 695 71 21 95

Eskola partikularrik. 23 urteko gazte bergararra eskola partikularrik emateko prest. Kazetaritza graduatua eta euskara, ingelesa eta frantses tituluduna. DBH 4. mailara arte emango nituzke klaseak. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 628 52 43 72

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeakopari. Abuztuaz jaiotako katakumeak ematen dira opari. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 629 09 63 46 edo 660 92 70 71

8. DENETARIK

802. EROSI

Bizikleta estatikoa. Bigarren eskuko bizikleta estatikoa erosiko nuke. 658 72 95 53

Lursaila. Debagoienean lursaila erosiko nuke bertan borda eta ortua jartzeko. Ahal bada, sarbidearekin eta urarekin. 646 36 68 02

808. BESTELAKOAK

Eskoriatza-Bergara joan-etorria. Astelehenerik ostiralerara Eskoriatzatik, Aretxabaletatik edo Arrasatek Bergarara joan-etorria autoz egiten baduzu, bidaia gastuak konpartitu ditzakegu. Joan eta arratsaldez bueltatzen naiz. Interesatuta bazaud, deitu telefono zenbaki honetara. 627 08 84 62

Igeriketa talde trukaketa Oñatin. Dordoka mailako F 1. 6 taldea (astelehena-astezkena, 18:30etik 19:15era) ondoren aipatzen ditudan taldeetako batekin trukatu niteke. F 2. 6 taldea (astearte-osteguna, 18:30etik 19:15era), F 2.4 taldea (astearte-osteguna, 17:45etik 18:30era) edo F 2.1 taldea (astearte-osteguna, 17:00etik 17:45era). Norbait aipaturiko talde trukaketarako baten bat egitean interesaturik balego, deitu dezala. 657 73 10 42 telefonora edo idatzi e-posta bat anixe2009@gmail.com helbidera.

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Autoa konpartitu Seguratik Aretxabaletara. Aretxabaletan ikasten hasiko naiz aurtengo ikasurtean eta Seguran bizinaiz. Norbait balego joan-etorri hori egingo duena eguneroko, autoa gastuetan lagunduko nioke. Xabier. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 616 96 61 46

ZORION AGURRAK



OÑATI
Danel Amenabarro Arregi
Urriak 8an, 2 urte.
Zorionak, maittia! Muxu handi-handi bat amatxoren eta aitaxoren partetik!



OÑATI
Mikel eta Unax Zubia Martinez de Albeniz
Urriaren 7an, 5 urte. Zorionak, politak! Jada 5 urte beteko ditzuzue. Ze handi in zarein eta zein azkar! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna! Milla patxo potolo familia danaren partetik, goxuen zuen arrea Sararena! Asko maitte zaituztegu!



ANTZUOLA
Aitana eta Eider Mendia
Eiderrek urriaren 6an, 25 urte eta Aitanak urriaren 8an, 3 urte! Zorionak etxeko bi sorgintxuei! Besarkada bat, familia guztixaren, baina, bereziki Ibanen partetik!



OÑATI
Igor Varela Crespo
Urriaren 3an, 8 urte.
Familiaren partetik, muxu handi bat!



ANTZUOLA
Garazi Kortabarria Otaegi
Urriaren 5ean, 9 urte.
Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Aitaren, amaren eta Laieneren partetik.



ARRASATE
Ekhi Arriaran Zubillaga
Urriaren 4an, 5 urte.
Zorionak etxeko danen partetik.



ESKORATZA
Pejo Lizundia Kortazar
Urriaren 4an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun! Ederto pasatu zeure urtebetetze eguna. Izugarri maitxe zaitzua. Aitaxoren, amatxoren, Hegoaren eta familiaren partetik.



BERGARA
Ibon Arevalo Abascal
Urriaren 4an, 9 urte.
Zorionak, Ibon! Patxo handi bat zure amama Franciscaren eta zure tio Patxiren partetik eta baita "plazoko" zure lagunen partetik ere.



ARETXABALETA
Aimar Gorosabel Velez
Urriaren 2an, 3 urte.
Zorionak, Aimar! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat Ikerren, aitaxoren eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Izaro Garai Ibañez de Opakua
Urriaren 1ean, 4 urte.
Zorionak, printzesa! Familia guztiaren partetik, marrubizko muxu potolo-potolo pila, bereziki zure lehengusu eta lehengusina guztiak.



ESKORATZA
Maddi Corres Gabilondo
Urriaren 1ean, 4 urte.
Zorionak, printzesa, amatxoren eta aitaxoren partetik! Gure bizipoza zara! Muxu potolo!



OÑATI
Amets eta Mattin Bikuña Malbadi
Zorionak, bikote! Urte bat gehixau zuen motxilara: Mattinek 4 eta Ametsak 9. Etxeko danen partetik muxu potolo bat. Asko maite zaituztegu. Pozik bizi!



ARETXABALETA
Josu eta Ane Rodriguez Solupe
Irailaren 2an, Anek 12 urte eta irailaren 30ean, Josuk 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik!



BERGARA
Maddi Outeiriño Garitano
Irailaren 30ean, urtebete. Zorionak, Maddi! Belarritik tirakada bat, ondo pasatu eguna eta patxo handi bat familia guztiaren partetik.



ANTZUOLA
Amets eta Oinatz Larrea Garitano
Irailaren 29an, Ametsak 6 urte eta urriaren 1ean, Oinatzek 4. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
Itoitz Martinez Rueda
Irailaren 29an, 2 urte.
Zorionak, potxolo! Dagoeneko 2 urtetxo! Zorionak etxeko danon partetik!



ARRASATE
Ilargi Bengoa Odriozola
Irailaren 29an, 4 urte.
Zorionak, Ilargi, etxeko partetik!



BERGARA
Naia Gabilondo Kapelastegi
Irailaren 29an, 6 urte.
Zorionak, potxolo! Ondo pasatu zure urtebetetzea eta muxu pila bat Juneren, aitaxoren, amatxoren eta familia guztiaren partetik!



ARRASATE
Izaro Tena Azkarraga
Irailaren 28an, 5 urte.
Zorionak zure urtebetetzean eta ondo-ondo pasatu, familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA
Aimar Velasco Racionero
Irailaren 25ean, urtebete. Zorionak, Aimar! Zelako urte polita pasatu dugun zure irribarria ikusten. Horrela jarraitu! Muxu potolo bat danon partetik!



ARRASATE
Oihan Castillo Romero
Irailaren 24an, 2 urte.
Zorionak, bihotza! Ondo pasatu eguna, maitia! Patxo handi-handi bat Danelen, aitaxoren, amatxoren eta etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Izadi Uribarren-Iturrieta Elices
Irailaren 24an, 2 urte.
Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Milla patxituak. Asko maite zaitugu.



OÑATI
Niko Regueiro
Irailaren 23an, hiru hilabete! Zorionak! Patxo handi bat zure aitonen partetik.



OÑATI
Maialen Maiztegi Lete
Irailaren 23an, 8 urte.
Zorionak, *potxoli*, Antzulako eta Oñatiko familia danaren partetik. Txintxua izen eta ondo pasatu. Patxo potolo bat.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zorientzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ASTEAGOIENAN



'Korapilo' saioa, etxeko txikiendako

Bihar, zapatua, estreinatuko dute 2 eta 6 urte bitarteko umeendako *Korapilo* saioa. Maddi aurkezleak gidatuko du eta parte hartuko dute beste hainbat protagonistak; Mari Kalanbrek, esaterako, esperimentuak egingo ditu; eta magoa ere izango da. **'Korapilo'** Zapatua, 10:00



Debagoiendarren bidaiak ezagutzen

Munduan zehar bidaiatu duten hainbat debagoiendarren bidaiak gertutik ezagutzeko aukera emango duen *Mugabarik* saioa estreinatuko dute martitzenean. Kanadan, Japonian, Bolivian, Birmanian... bizitakoak erakutsiko dituzte protagonistek. **'Mugabarik'** Martitzena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 2	ZAPATUA, 3	DOMEKA, 4	ASTELEHENA, 5	MARTITZENA, 6	EGUAZTENA, 7	EGUENA, 8
12:00 Debagoiena zuzenean	10:00 Korapilo	10:00 Korapilo	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Artxibotik tiraka	10:30 Zaindu zaitez	10:30 Debagoiena zuzenean	13:00 Korapilo	12:30 Harmailatik	12:30 Mugabarik	12:30 Osoko bilkura: Arrasate
13:30 Jaiak: Aretxabaletako Sanmigel jaiak	11:00 Debagoiena zuzenean	11:30 Astea iruditan	13:30 Debagoiena zuzenean	13:00 Onein	13:00 Korapilo	13:30 Onein
14:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Astea iruditan	11:35 Herri kirol txapelketa	14:30 Berriak	13:30 Debagoiena zuzenean	13:05 Onein	14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak	12:05 Artzain txakur txapelketa	13:30 Debagoiena zuzenean	15:00 Zaindu zaitez	14:00 Harmailatik	13:30 Hurbilean	14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ	14:00 Amaia DJ	14:30 Astea iruditan	15:30 Hurbilean	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Hurbilean
15:30 Hurbilean 1	14:30 Jaiak: Aretxabaletako Sanmigel jaiak	14:35 Amaia DJ	16:00 Onein	15:00 Amaia DJ	14:30 Berriak	15:30 Harmailatik
16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Zorion Agurrak	15:00 Osoko bilkura: Bergara	16:30 Berriak	15:30 Onein	15:00 Harmailatik	16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak	15:05 Debagoiena zuzenean	16:20 Debagoiena zuzenean	17:00 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein	16:30 Berriak
17:00 Erreportajea: Ibarako azoka	16:00 Astea iruditan	17:00 Astea iruditan	17:00 Artzain txakur txapelketa	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean	17:00 Lurrean bizi
17:30 Artxibotik tiraka	16:05 Ertzak	17:00 Korapilo	19:00 Berriak	17:00 Hurbilean	16:30 Berriak	17:30 Zaindu zaitez
18:30 Berriak	17:00 Korapilo	17:30 Artzain txakur txapelketa	19:30 Jaiak: Aretxabaletako Sanmigel jaiak	17:30 Ur eta lur	17:45 Zaindu zaitez	18:05 Ur eta lur
19:00 Amaia DJ	17:30 Herri kirol txapelketa	19:30 Jaiak: Aretxabaletako Sanmigel jaiak	20:00 Debagoiena zuzenean	18:00 Lurrean bizi	18:20 Zorion Agurrak	18:30 Berriak
19:30 Jaiak: Aretxabaletako Sanmigel jaiak	19:30 Osoko bilkura: Bergara	20:00 Lurrean bizi	20:30 Berriak	18:30 Berriak	18:30 Berriak	19:00 Osoko bilkura: Arrasate
20:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Jaiak: Aretxabaletako Sanmigel jaiak	20:25 Zorion Agurrak	21:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Korapilo	19:30 Harmailatik	20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	21:30 Debagoiena zuzenean	20:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	19:30 Harmailatik	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	22:30 Astea iruditan	21:30 Astea iruditan	22:00 Harmailatik	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak	22:35 Amaia DJ	21:35 Amaia DJ	22:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	21:30 Berriak
22:00 Amaia DJ	23:00 Jaiak: Aretxabaletako Sanmigel jaiak	22:00 Jaiak: Aretxabaletako Sanmigel jaiak	23:00 Berriak	21:30 Berriak	22:00 Osoko bilkura: Arrasate	22:00 Jaiak: Oñatiko jaiak
22:30 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Debagoiena zuzenean	23:30 Berriak	22:00 Mugabarik	23:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak	01:00 Astea iruditan	00:00 Astea iruditan	23:30 Harmailatik	22:30 Debagoiena zuzenean	23:30 Berriak	00:00 Mugabarik
23:30 Jaiak: Aretxabaletako Sanmigel jaiak	01:05 Artekale	00:00 Astea iruditan	00:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	00:00 Jaiak: Oñatiko jaiak	00:00 Jaiak: Oñatiko jaiak
00:00 Debagoiena zuzenean	02:00 Amaia DJ	00:05 Artekale	00:30 Berriak	23:30 Harmailatik	00:30 Debagoiena zuzenean	23:30 Berriak
00:30 Berriak	02:30 Astea iruditan			00:00 Debagoiena zuzenean	01:00 Berriak	01:00 Debagoiena zuzenean

ARRASATE IRRATIA

'Amama' filmaren zuzendari Asier Altuna irratan

Bergarako zinema zuzendari Asier Altuna Arrasate Irratian izango da gaur, egubakoitza, 11:00etan, eta Donostiako Zinemaldian *Amama* pelikula izan duen harrerari buruz hitz egingo du. Elkarrizketa asteburuan ere entzun ahal izango da asteburuko gainbegiratuan, 10:00etan.

Señor No taldearen kontzertua ikusteko sarrerak zozketan

Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan, eguenean Arrasateko gaztetxean eskainiko du kontzertua, 22:00etan, Señor No taldeak. Bertara joateko sarrerak lortu nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera. Animatu eta parte hartu!


GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 2	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Zapatua, 3	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Domeka, 4	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea, 38	943 77 16 30
Astelehena, 5	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea, 1	943 79 15 15
Martitzena, 6	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguaztena, 7	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea, 1	943 79 22 26
Eguena, 8	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
BERGARA			
Egubakoitza, 2	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Zapatua, 3	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 4	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 5	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 6	ALVAREZ MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 7	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Eguena, 8	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
OÑATI			
Egubakoitza, 2	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Zapatua, 3	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 4	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 5	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 6	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 7	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 8	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58


Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoz izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofijuzkoa.com).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 21°
Min. 11°



Max. 22°
Min. 12°

ZAPATUA, 3
Eguraldiak hobera egingo du. Eguna motel antzean hasiko da, lainotuta, baina arratsaldean argitu egingo du.

DOMEKA, 4
Temperatura zertxobait igo daiteke, eta, zapatuan bezala, goizean lainotuta egon arren, arratsaldean hobera egingo du.

EUSKAL HERRIA



Zapatu goizean euri tantaren bat bota dezake, baina hobetzeko joera hartuko du eguraldiak.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA

Liburutegiko laguntzaile lan-poltsa. Nafarroako Unibertsitate Publikoak. Baldintzak: Diplomadun, arkitekto edo ingeniari tekniko titulua edo haren baliokidea izatea. Epea: urriak 13.

Eski kanpaina. Aramon. Eski estazioetan lan egiteko 150 lanpostu bete nahi dira, 20 lan-esparrutan. Epea: urriak 22. [Empleo.aramon.es](http://empleo.aramon.es).

BEKAK

Praktikak enpresetan. Arrasateko Udala. Tituludun berriei (Arrasateko) enpresetan praktika egiteko deialdia. Epea: urriak 30.

Udan alemana ikasteko. DAAD Institutua. Bekak, 2016ko udan aleman ikasteko. Baldintzak: uni-

bertsitateko ikasleak –Alemani Filologia edo Itzulpen gintza ikasleak izan ezik–. Epea: abenduak 1.

Unibertsitatez kanpoko beka orokorrak. Eusko Jaurlaritzak. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Heziketa Zikloak –23 urtetik behera izan behar dira eskakergia egin ahal izateko–. Epea: ikastetxeetan irailaren 30a; bestela, urriaren 17a.

Artxibozain, bibliotekonomia eta dokumentazio-arloetako 15 beka Senatuan. Gorte Nagusiak. Senatua. Baldintzak: artxibozain, bibliotekonomia eta dokumentazio unibertsitate-titulazioa izatea. Irupena: urtebete. Azken eguna: urriak 24. Kontaktua: Senatua. Bailen, 3, 28071, Madril. Telefonoa: 900 10 30 38.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

OROIGARRIA

Ignacio Jimenez Ortega

Naiararen, Zigorren eta Asierren kuadrillakoak.
Arrasaten, 2015ko urriaren 2an.

OROIGARRIA

Ignacio Jimenez Ortega

2015eko irailaren 25ean hil zen.

*Bururako, oroimen alai bat;
Arimarako, zuengan dirauen Ignacioren argia;
eta bihotzerako, gure besarkadarik goxoen.*

Marijoren lagunak: Agustin, Alaitz, Gaizka, Irati, Ixone, Maite, Miren Maite eta Oihana.
Arrasaten, 2015eko urriaren 2an.

OROIGARRIA

Ignacio Jimenez Ortega

2015eko irailaren 25ean hil zen.

*Hitzez arindu ezin dugun saminean,
bihotzez ondoan gaituzue.*

Marijoren lagunak: Isi, Mari, Miren Maite, Nerea eta Oihana.
Arrasaten, 2015eko urriaren 2an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otorla Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 36 61
605 71 24 69
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta trataturik beroena eta hurbilekoena ematea

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55
BERGARA

HILDAKOAK

Juan Ormaetxea Castaños. Arrasaten, irailaren 21ean. 90 urte.
Benito Abarrategi Beitia. Aramaion, irailaren 22an. 80 urte.
Victoriano Belinchon Moya. Arrasaten, irailaren 23an. 87 urte.
Claudia Mugertza Arregi. Arrasaten, irailaren 23an. 80 urte.
Inazio Jimenez Ortega. Arrasaten, irailaren 25ean.
Perfecto Hidalgo Sancho. Aretxabaletan, irailaren 25ean. 87 urte.
Nieves Goirizelaia Arruza. Bergaran, irailaren 25ean. 91 urte.
Puri Jimenez Fernandez. Bergaran, irailaren 26an. 86 urte.
Angel Herran Izarra. Bergaran, irailaren 29an. 91 urte.
Pilar Gartzia Perez. Arrasaten, irailaren 30ean. 90 urte.

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK**Juanita eta Camilo**

Oñatiko Juanitak eta Camilok, urriaren 2an, orain dela 52 urte ezkondu zirela ospatuko dute. Familia osoaren partetik, zorionak, bikote!

**Rosario eta Fernando**

Rosario Garitanok eta Fernando Azkaratek 60 urte daramatzate elkarrekin. "Zorionak! Primeran ospatuko dugu denok! Antzuo-lako eta Bergarako familiak, bihotz-bihotzez".

**Ainara eta Ekain J.**

Ainara eta Ekain Joseba urriaren 3an ezkonduko dira, Iruñean. "Zure pisukide ohien partetik, egun zoriontsua izan eta bidal egiguzue Japoniatik argazkia kimonoa jantzita!".

**Jose eta Ana Mari**

Jose Inda eta Ana Mari Altuna orain dela 50 urte ezkondu ziren, urriaren 5ean. Urrezko ezteiak bazkari eder batekin ospatuko dituzte. Zorionik beroenak, bihotz-bihotzez, familia osoaren partetik.



OÑATI Bertso saioa

Amets Arzallusek, Aitor Mendiluzek, Maialen Lujanbiok, Agin Laburuk eta Maider Arregi eta Andoni Goitia oñatiarrek parte hartuko dute. Sarrerak salgai leihatilan (bederatzi euro) eta alde zurretik Txokolateixan (zazpi euro). Gai-jartzaile lanak Oñatiko Bertso Eskolako kideek egingo dituzte.

Gaur, egubakoitza, Zubikoan, 22:30ean.



BERTSO ESKOLA



WWW.ESKENA.COM

BERGARA 'Datorren urtean hobeto'

Bakarrizketetan oinarritutako antzezlanak: pentsamenduak, kronikak, elkarrizketa motzak, zerbaiten hasiera, hainbat egoera... Itziar Urretabizkaia, Ainhoa Garai eta Iraitz Lizarraga oholtza gainean. Sarrerak, zortzi euro.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:00etan.

MUSIKA**OÑATI Atzoko Ogixa, Zuen Azkena, Endemaño, Lokuria eta Baserriko Oilaskuk Labin taldeak**

Errosaio jaietako kontzertua. Taldeek, agertokira igo beharrean, lurtean ekipoa muntatu eta entzuleen mutur aurrean joko dute.

Gaur, egubakoitza, txosnagunean, 21:00etan.

BERGARA Nazioarteko Organo Zikloa

Angel San Bartolome tronpeta joleak eta Jose Santos de la Iglesia organistak hasiko dute zikloa. Bihar, zapatua, Santa Marinaran, 20:00etan.

OÑATI Gose, Dantzadi eta Trikimailu

Errosaio jaietako kontzertua. Gose taldearen biraren azken emanaldia izango da.

Bihar, zapatua, txosna gunean, 22:00etan.

BERGARA 'BET' jaialdia

El Txef_A taldeak hasiko du aurtengo jaialdia. AEBetatik eta Indiatik Bergarako gaztetxera zuzenean.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 00:00etan.

ARETXABALETA Itoitz-Sotres bikotea

Flauta eta gitarra lagun dutela kontzertua egingo dute. Sarrerak, lau euro.

Urriaren 8an, Zaraia aretoan, 19:00etan.

ARRASATE Señor No

Disko berria aurkeztuko du taldeak Kooltur Ostegunak ekimean.

Urriaren 8an, gaztetxean, 22:00etan.

GAZTELEKUAK**ARRASATE 'Niri bost' lehiaketa**

Parte-hartzaileek hainbat proba gainditu beharko dituzte herriarren laguntzarekin.

Gaur, egubakoitza, Biteri plazan, 17:30ean.

ARETXABALETA Xabogintza tailerra

Parte hartzeko ez da alde zurretik izena eman behar.

Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 17:30ean.

ARETXABALETA Muralgintza

Gaztelekuko pareta baten murla egingo dute gazteek zapatuan eta domekan. Parte hartu gura

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

URRIA 2
URRIA 8

dutenei arropa zaharrak eramatea aholkatzen diete arduradunek. Aipatutako egunetan, gaztelekuan, 17:30ean.

ARRASATE Askotariko ekintzak

Zapatuan eta domekan askotariko ekintzak probatzeko aukera egongo da: wii jokoak, mahai jolasak, karaokea...

Aipatutako egunetan, gaztelekuan, 17:30ean.

ESKORIATZA Txapa tailerra

Parte hartzeko ez da alde zurretik izena eman behar.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 17:30ean.

ESKORIATZA Muralgintzaren jarraipena

Aurreko aste bukaeran hasitako murala margotzen jarraituko dute.

Etzi, domeka, gaztelekuan, 17:30ean.

ERAKUSKETAK**ARETXABALETA Nikaraguako umeak**

Amsogra elkarteak *Chigüines* erakusketa ipini du Nikaraguako umeen egoera erakusteko.

Urriaren 5era arte, Arkupen.

ANTZUOLA Iker Aizkorbe

Zazpi kolore delako argazki erakusketa ipini du. Astelehenean zabalduko dute.

Urriaren 11ra arte, Aitz Garbi tabernan.

BERGARA Erretiratuen erakusketa

Eskulanak, margoak, argazkiak eta egurrezko artisautza lanak ikusgai San Joxepe elkartearen kultura hamabostaldian.

Urriaren 4ra arte, San Joxepen, 18:00etan.

BERGARA Andaren eskulturak

Brontzezko eta egurrezko bost eskultura ipini ditu Jose Ramon Andak ikusgai.

Urriaren 11ra arte, Aroztegin.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'

Bixente Barandiaranen lanak eta burdinaren kulturak herriaren bilakaeran izan duen eragina.

Harresi aretoan ikusgai.

ANTZERKIA**BERGARA 'Hor konpon marianton'**

Telebista, sare sozialak, telefonoak... denon eskuetan daude,

baita ume txikien eskuetan ere. Lanku antzerki taldeak makina horiekin gozaten ikasi behar dela erakutsiko die umei, baina horien menpean erori barik. Oskar Estanga eta Hodei Untzuetak oholtza gainean. Sarrerak, lau euro.

Etzi, domeka, Zabalotegin, 18:00etan.

JAIAK**OÑATI Errosaio jaiak**

San Migel jaiak bukatuta, Errosaio jaiak dituzte oñatiarrek astelehenera arte: Herri Eguna, Errosaio Domeka eta Errosaio Bixamona. Askotariko ekintzak egingo dituzte.

Gaurtik astelehenera arte, Oñatin.

ARAMAIO Untzillako jaiak

Egubakoitzean, 19:00etan hasiko dituzte jaiak etxafuego jaurtiketarekin. Ondoren, auzo afaria eta bertsolarien emanaldia. Zapatuan: 12:00etan meza; 16:00etan mus txapelketa; 17:30ean umeendako pailazoak; 19:00etan txokolate-jana; eta 23:00etan dantza saioa eta bolo txapelketa. Domekan, aldiz:

12:00etan meza auzoko hildakoen omenez eta 13:00etan dantzaldia Kupela taldearekin.

Aste bukaeran, Untzillan.

LITERATURA**ARETXABALETA Yolanda Arrieta idazlearekin**

Bularretik Mintzora egitasmoaren barruan *Ibilbide bat liburutegian barrena* delako saioa egingo dute Yolanda Arrieta idazlearekin. Erakutsiko dute umeendako liburuak non dauden, zein irizpide erabili, zelan sortu irakurtzeko zaletasuna eta beste hainbat kontu.

Bihar, zapatua, liburutegian, 10:00etan.

HITZALDIAK**BERGARA 'Oinordetzak eta dohaintzak'**

Diputazioko Ogasun Departamentuko kide Juan Carlos Gonzalezek egingo du berba, San Joxepe elkartearen kultura hamabostaldian.

Urriaren 5ean, Miguel Altunak, 19:00etan.

OÑATI Gripea nola prebenitu

Griparei aurre egiteko moduak azalduko dituzte.

Urriaren 7an, Pake Lekun, 17:00etan.

BERGARA 'Zahartze aktibo eta osasungarria'

Bergarako osasun etxean diharduten Jose Ramon Bardecik eta Igoitz Aranbarrik hainbat azalpen emango dituzte, San Joxepe elkartearen kultura hamabostaldian.

Urriaren 8an, Miguel Altunak, 19:00etan.

IRTEERA**BERGARA Olitera eta Uxera irteera**

Egun osoko irteera egingo dute, San Joxepe elkartearen kultura hamabostaldian barruan. Bazkariaren ostean, dantzaldia eta bingo-jokoa izango dituzte.

Urriaren 6an, San Joxepetik, 08:30ean.

BERGARA Gredos-Guadarrama

Aste bukarako irteera egingo du Pol-Polek urriaren 10etik 12ra. Izena emateko epea zabalik dute. Izen-ematea, Pol-Polen bulegoan.



YOUVALENCIA.WORDPRESS.COM



ARETXABAETA 'Txintxilipurdi erregea'

Umeendako antzezlanaren egingo du Pantarhei taldeak. Maitasunaren lurraldetik Mari Zikin helduko da kutxa baten barruan. Txintxilipurdi erregea triste dago eta Mari Zikin laguntza beharko du. Sarrerak, lau euro.

Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.

OSPAKIZUNAK

BERGARA Emakumeen Mundu Martxa

Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herrian dagoenez, askotariko ekintzak egingo dituzte: 13:00etan kalejira herriko kaleetan, 13:30ean ekitaldia San Martin plazan, 14:30ean bazkaria leku berean eta 18:00etan *Women in black* delako performancea.

Gaur, egubakoitza, aipatutako lekuetan eta orduetan.

ELGETA Bandera morea, La Belgaraino

Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herrian dagoela ospatzeko, *Lehen eta oraingo emakumeen askatasunaren alde* lelopean irteera egingo dute La Belga posizioa, han bandera morea zabaltzeko. Herritar guztiak daude parte hartzerantz deituta.

Bihar, zapatua, Mendizaleen plazatik, 10:30ean.

DANTZA

ARRASATE Ikasturte hasiera

Urriaren 5ean hasiko da Herrixa Dantzan egitasmoa, hiru taldetan. Guztiak Patxi Monteroren gidaritzapean. Izen emateko: 675 94 46 09 telefonoa, herrixadantzan@gmail.com helbidea, AEDren bulegoan eta Gazte Bulegoan. Izen-ematea aipatutako lekuetan.

BESTELAKOAK

BERGARA Sari banaketa

Bergarako Lehen Hezkuntzako ikasleen artean egindako lehiaketa historiko-kulturalaren sari banaketa.

Gaur, egubakoitza, San Joxepen, 15:30ean.

ESKORIATZA Bizikleta irteera

44 kilometroko ibilaldia egingo dute: Gure Ametsa-Isuzkitza-Salburua-Uribarri-Gure Ametsa. Egun osoko irteera izango da. Etzi, domeka, Hueziko aparkalekuan, 10:00etan.

ELGETA Lubakietara bisita gidatu berezia

Frontea ezarri zeneko urtemuga ospatzeko bisita gidatu berezia egingo dute domekan Intxortako lubakietara: doakoa izango eta

ez dago alde aurretik izena eman beharrik.

Etzi, domeka, Interpretazio Gunetik, 10:00etan.

ELGETA Matrikula epea zabalik haurreskolan

Urriaren 9ra arte eman daiteke izena. Orain izena ematen dutenak abenduan hasiko dira eskolan. Haurreskola %75 beteta ez badago, edozein unetan matrikula daitezke umeak.

Izen-ematea haurreskolan.

AZOKA

OÑATI Herri Eguna

Herri mailako animalien erakusketak eta lehiaketak, gazta lehiaketa, fruitu eta barazki lehiaketak, artisau erakusketak, sagardo dastatzea... Horiek guztiak izango dira protagonista.

Bihar, zapatua, Unibertsitate etorbidean eta Foru plazan, 10:00etan.

BERGARA Eguazteneko azoka

Urriko lehen eguaztenean base-rritarren eta bertako produktuen azoka.

Urriaren 7an, Oxirondo azokan, 18:00etan.

LITERATURA

BERGARA Simon Arrieta 1915-1969 liburua

Bergarako margolariaren bizitza laburbiltzen duen liburua idatzi du Miguel Angel Elkoroberezi-barrek.

Urriaren 7an, udaletxean, 19:30ean.

KIROLA

ARRASATE 'Mondran Bike'

Urriaren 17an egingo dute mendiko bizikleta irteera. Izen-ematea egunean bertan egin beharko da Musakola kiroldegian.

Izen-ematea aipatutako lekuan.

DEBAGOIENA Arrasate-Oñati

Urriaren 10ean egingo dute 32. Arrasate-Oñati lasterketa. Dagoeneko zabalik dute izena emateko epea: www.herrikrosa.eus atarian edo Loramendi Intersporteko San Andresko dendan. Izen-ematea: hamar euro.

Izen-ematea aipatutako lekuan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Ricki

Zapatua: 19:30.
Domeka: 20:30.

Los Minions 3D

Domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Regresion

Zapatua eta domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

El desconocido

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Reina y patria

Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

La casa magica

Zapatua: 17:00.

ANTZOKIA

Regresion

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

Regresion

Egubakoitza eta zapatua: 25:15, 00:15, 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 18:00, 18:45, 19:45, 20:15, 21:00, 22:00, 22:30.

Hitman

Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 18:25, 20:30, 22:35.
Zapatua eta domeka: 16:20.

El corredor del laberinto

Egubakoitza eta zapatua: 00:20.
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 21:40.
Egubakoitza eta domeka: 18:00, 20:40.
Zapatua eta domeka: 16:20.
Astelehenera: 18:00, 19:00, 20:40, 21:40.

El desconocido

Egubakoitza eta zapatua: 23:45.
Egubakoitzetik

eguenara: 17:45, 19:45, 21:45.
Zapatua eta domeka: 15:45.

La visita

Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 18:40, 20:40, 22:40.

Irrational man

Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 16:30.

Everest

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Everest 3D

Egubakoitza eta domeka: 19:30, 22:00, 00:30.
Zapatua: 22:00, 00:30.
Astelehenera eguaztena: 19:30, 22:00.
Eguena: 22:00.

Anacleto: agente secreto

Egubakoitza: 23:45.
Zapatua: 16:45, 23:45.

Atrapa la bandera

Egubakoitzetik eguenera: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

Los Minions

Zapatua eta domeka: 15:30.

Del reves

Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.

Pinocho y su amigo Coco

Domeka: 15:40.

Un dia perfecto

Astelehenera eguenera: 17:30.

FLORIDA

Atrapa la bandera

Zapatua eta domeka: 12:00.
Egubakoitzetik domekara: 16:40.

Atico sin ascensor

Egubakoitzetik domekara: 18:40, 22:30.
Astelehenera eguenera: 19:00.

Del reves

Zapatua eta domeka: 12:00.

El apostata

Egubakoitzetik domekara: 16:45,

20:40, 22:30.
Astelehenera eguenera: 17:00, 21:00.
Astelehenera eguaztena: 20:00.

El corredor del laberinto

Egubakoitzetik eguenera: 17:15.

El desconocido

Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenera eguenera: 17:00, 21:00.

Everest

Egubakoitzetik domekara: 20:00.
Astelehenera eguenera: 20:45.

Francisco

Egubakoitzetik domekara: 16:40.
Astelehenera eguenera: 17:00.

Hitman: agente 47

Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenera eguenera: 17:00, 19:00.
Zapatua eta domeka: 12:00.

Irrational man

Egubakoitzetik

domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenera eguenera: 18:45, 20:45.

Lejos de los hombres

Egubakoitzetik domekara: 19:30, 20:30, 22:30.
Astelehenera eguenera: 18:45, 20:45.

Loreak

Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenera eguenera: 19:00.

Los primates del Caribe

Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenera eguenera: 17:00.
Zapatua eta domeka: 12:00.

Regresion

Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenera eguenera: 17:30, 20:00.

KRITIKA



REGRESIÓN ★★★★★

Zuzendaria: Alejandro Amenabar.

Herialdea: Espainia.

Urtea: 2015.

Aktoreak: Ethan Hawke, Emma Watson, Aaron Ashmore.

Iraupena: 106 minutu.

Sendotasun txikiko 'thriller'-a

Denbora dezente pasatzen da Amenabarrek proiektu bat burutzen duenetik hurrengoa estreinatuta arte. Orain arte egindako filmak arrakastatsuak izan direla kontuan hartuta, eta azken honi egindako kanpaina indartsua gehituta, *Regresión* filmak ikusmin handia sortu du. Baina emaitza oso mugatua da.

Thriller psikologikoa da. Istorioa 1990ean Minnesotako herri baten kokatzen da.

Sexu-eraso salaketak eta errotu satanikoak nahasten dira poliziak ikertu behar duen gertaera misteriotsu batean. Erljioa eta horrek batzuetan dakarren fanatismoa, psikologia eta erregresio teknikak, ikertzailen

eszeptizismoa, herri txikien sekretuak eta errotu satanikoen alde kezagarria azaltzen dira istorio horretan. Zuzendariak *Tesis* eta *Abre los ojos* pelikuletan ukitzen zituen gaiak agertzen dira: normaltasunaren azpitik mugitzen diren talde ezkutua, gure sentimendu eta ametsen bidez jasan ditzakegun manipulazioak, besteak beste.

Regresión intriga film bat da. Hasieratik bide batzuk zabaltzen zaizkigu Ethan Hawkek egiten duen polizia ikerketan murgiltzen den neurrian. Bere alde arrazionalista ukiturik sentitzen du halako istorio maltzurren eraginez. Datuak ez dira batere argiak: pertsonaia

susmagarri askotxo daude, eta horiek kontatzen ez dituzten gauzak ere bai. Horrela, giro kezagarria mantentzen duten filmek bukaera egokia behar dute eraikitako egitura bertan behera ez egiteko. Hori ez da pelikula honekin gertatzen. Bukaraz ez du istorioa aberasten edo sendotzen. Hori horrela, *Regresión* proposamen hutsa suertatzen da.

Ukitzen dituen gaiak eta irekitzen dituen bideak ez dute osotasun egokia lortzen. Pelikulan garrantzitsuena tentsioa eta misterioa mantentzea da, baina horren atzetik zerbait sendoa egon behar du.

ANTONIO ZABALA

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Larrinetxe
jatetxeko
bisigua.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo **Puntua.eus** edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2015-10-02

BUKATZEKO

Euskal pailazoa, soziologoa eta abadea

- ▶ Arrasateko apaiz berria izango da aurrerantzean Pako Etxebeste; domekan esan zuen lehen meza
- ▶ Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo ezagunekin kolaboratu zuen hastapenetan, 1972aren bueltan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Joan den domekan esan zuen lehen meza Arrasateko abade berriak, Pako Etxebeste. Soziologoa ikasketez, azken sei urteetan parrokoa izan da Errenterian. Ondo ezagutzen du Debagoiena, Bergarako San Prudentzio eliza bereziki, 18 urte egin zituen-etan. Donostiako Elizbarrutiko Idazkaritza Sozialeko arduradun izan da hainbat urtez eta Etikarte fundazioko kide gisa hainbat artikulatu idatzi izan ditu.

Etaparen berri, Arrasateko parroko Horazio Argarateri laguntzeaz gain, elizkizunak, katekesia eta helduen taldeak gidatuko ditu, baina, bereziki, On Jose Maria Arizmendiarrietaren fundazio kanonikoaren barruan gotzainaren ordezkari lanak egingo ditu: "Arizmendiarrietaren bi balio uztartuko ditugu: ebanjelioa eta kooperazioaren bidez erakutsi zuen konpromiso soziala. Bizi dugun globalizazioaren aroan, balio horiek ez ahaztea izango da lehen helburua", dio Etxebeste.

Euskal pailazoen sorreran

1972an jaiotako Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo ezagunen hastapenetan eginkizun aktiboa izan zuen: "Donostiako Kresala elkar-



Pako Etxebeste, Arrasateko parrokan, lehen meza esan aurretik. | IMANOL SORIANO

tean hainbat talde zeuden; dantza talde bat, mendi talde bat... Aldi berean, Xabier Otaegi, Jose Ignazio Antsoarena eta konpainia pailazo talde bat sortu nahian zebiltzan, baina euskaraz. Orduan pailazo guztiek gazteleraz egiten zuten. Interesgarria iruditu zitzaidan, eta lagundu egin nien", gogoratzen du. Etxebeste berak ere interpretatu zituen hiru pertsonaiak: "Soldadutzara joan behar izan zuten, eta horregatik tokatu zitzaidan Kixki, Mixki edota Kaxkamelon izatea". Izan ere, Txirri, Mirri eta Txiribiton izan aurretik, Kixki, Mixki eta Kaxkamelon izan ziren. Baina ez zuen luze iraun: "Gero, apaiztu egin nintzen. Gainera, entseatu beharra ez zitzaidan gustatzen".

Gazteekin lan egiteko nahia

Arrasatera etortzeak bi sentimendu eragiten dizkio: batetik, "pena handia" ematen dio Errenteriatik irten beharrak, "oso gustura" dagoelako han. Bestetik, baina, Arrasatera "ilusioz" dator: "Parroko ona dugu, eta beti entzun izan dut Arrasaten jende ona eta irekia dagoela. Gustatuko litzaidake 30 urte gutxiago izatea eta lan gehiago egin ahal izatea gazteekin, baina... [Barre]".

AZKEN BERBA

AGURNE
BARRUSO



'Amama'
Zinemaldian

Aurtengo Zinemaldian egoteko aukera izan dut. *Kixi*-ren *Amama* pelikula ikusten egon nintzen astelehen gauean. Bide batez, esan dezadan ikaragarri gustatu zitzaidala. Zorionak *Kixi*-ri, Mariani eta bere taldeari.

Harro sentitu nintzen. Zuzendari bergarar baten pelikula Zinemaldian. Ez dakit aurretik inoiz gertatu den. Nik ez dut inoiz entzun. Suposatzen dut ez dela berehalakoan berriz gertatuko. Zinemaldira iristea ez da ibilbide erraza euskal zuzendarientzat.

Harrotasun bera ikusi nuen kanpoaldean batu ginen bergararren aurpegietan. Banaka batzuk izan ginen bertan. Gazteak, helduagoak, *Kixi*-ren gertu-gertukoak eta bergarartasunak jota joandakoak. Guztien aurpegiek poza transmititzen zuten.

Igarri nuen faltan bat edo beste. Esan bezala, herri batek ez dauka ordezkariarik Zinemaldian urtero, eta horrek tamainako erantzuna eskatzen du. Baina...

Joan ginenon gozamenarekin geldituko naiz. Bakoitzak jakingo du noiz eta non egon behar duen. Argi neukan han egotea zegokidala eta, benetan, ez dut egon izanaren inongo damurik, astelehen gaua bazen ere. Guztiz kontrakoa, oso pozik nago joan nintzelako.

UDAKO ARGAZKIEN XI. GOIENA LEHIAKETA

IRABAZLEEN IZENAK

Ostiralean, urriaren 9ko Goiena Paperean emango ditugu. Eskerrik asko parte-hartzaile guztiei!

ANTOLATZAILA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

1. ACHIINTZAN FAK.

Begira
argazkaritza

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

EROSKI
ARRASATE

karibu
munduko zaporenak
karibumundukoaporenak.com